# Sagastiberri



URRUZUNO literatura-lehiaketa

2010

# irakaskuntza ertainetako

# URRUZUNO

## literatura-lehiaketa 2010

LAN SARITUEN BILDUMA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2010

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>.

| | |
|---|---|
| Argitaraldia: | 1.a, 2010eko ekaina |
| Ale-kopurua: | 2.600 |
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa<br>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila |
| Internet: | www.euskadi.net |
| Prestatzaileak | Maite Artabe, Iñaki Artola, Miren Jule Azurza,<br>Iñaki Iturain eta Santos Izagirre |
| Azala: | Jesus Iturriza |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Fotokonposizioa eta inprimategia: | R.G.M., S.A.<br>Polígono Igeltzera Pab. A1 bis - 48610 Urduliz-Bizkaia |
| ISBN: | 978-84-457-3078-2 |
| Lege-gordailua: | BI 1878-2010 |

AURKIBIDEA

**Hitzaurrea**. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 7

**Literatura-itsaso Zabala** *Josune Muñoz San Jose*. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 11

**Prosa: A maila**

Itsasoa Berlinen . . . . . . . . . . . . . . . *Amaia Iturriotz Etxaniz* . . . . . . 19
Areago pago uluak baino . . . . . . . *Irati Seijo Diez*. . . . . . . . . . . . . 35
Piratak eta piratak daude. . . . . . . . *Nerea Eizagirre Telleria*. . . . . . 55
Moonlight sonata . . . . . . . . . . . . . *Beñat Irastorza Ugalde* . . . . . . 65
Athlas bezala. . . . . . . . . . . . . . . . . *Aitor Lizardi Ituarte*. . . . . . . . . 75
Jaxintoren gorpua . . . . . . . . . . . . . *Nerea Eizagirre Telleria* . . . . . 87
Ametsen gurpilean . . . . . . . . . . . . *Irati Oregi Belaustegi* . . . . . . . 97
Oroitzapenen ziega . . . . . . . . . . . . *Uxue Agirre Madariaga*. . . . . . 105
Bakardadea helburu . . . . . . . . . . . *Peio Ormazabal Villanueva* . . . 115

**Prosa: B maila**

Azken egunsentia . . . . . . . . . . . . . *Ane Garcia Lopez*. . . . . . . . . . . 125
Ipuin bat ordubetean . . . . . . . . . . . *Goiuri Unanue Arrunbarrena* . 131
Mundu deskafeinatua . . . . . . . . . . *Ana Barbadillo Silva* . . . . . . . . 141
Begi urdineko begirada. . . . . . . . . *Lierni Garmendia Arratibel*. . . 157

| | | |
|---|---|---|
| 573 Km. | *Olatz Niembro Vivanco* | 171 |
| Ikaro | *Xabier Aboitiz Correa* | 201 |

**Poesia: A maila**

| | | |
|---|---|---|
| Denbora | *Nerea Eizagirre Telleria* | 213 |
| SMS-ak | *Blanca Garcia Cengotitabengoa* | 223 |
| Gaueko printzesa | *Irati Oregi Belaustegi* | 233 |
| Ispiluaren aurrean | *Maialen Artetxe Maiztegi* | 241 |
| Gogoan | *Blanca Garcia Cengotitabengoa* | 249 |

**Poesia: B maila**

| | | |
|---|---|---|
| Tabernaren bestaldetik | *Ane Garcia Lopez* | 259 |
| Nori | *Zihara Jainaga Larrinaga* | 265 |
| Ilunabarreko kantua | *Eider Pérez Martínez* | 269 |
| Beste egun bat | *Amaia Cabero Saizar* | 275 |
| Espero ez nuena | *Uxue Agirre Mosquera* | 281 |

**Urruzunotarrak 1986-2010** . . . . . . . . . . 287

# HITZAURREA

Urruzuno literatura-lehiaketak hogeita bost urte bete ditu oraingoan. Liburu honen azken orrietan dituzu, irakurle, urte hauetan guztietan Urruzunotar izan direnen zerrendak. Bostehundik gora dira dagoeneko horrelako “titulua” lortu dutenak. Zerrendako batzuek dagoeneko bikoiztu dute irabazle izan zireneko adina. Ez da, bada, txantxetakoa lehiaketak urte hauetan egin duen ibilbidea. Han eta hemen azaltzen zaizkigu garai bateko kimu berri haiek gaurko kazetaritzan, gaurko literatura-izenetan. Kimu loratuak haiek, kimu berriak liburuan barrena dastatuko dituzunak, irakurle.

Urtero bezala, goraipatu nahi dugu idazle gazte hauetako bakoitzaren atzean dagoen irakasle-trebatzailea. Hauen lan isila dago gaztetxo hauetako bakoitzaren atzean. Berezko iaiotasuna ez da gehienetan nahikoa izaten idazle izateko. Landu, trebatu eta aberastu behar izaten da berezko hori esku artean dugun mailara iritsiko bada.

Eta zuk, Urruzunoko parte-hartzaile ez irabazlea, ez etsi! Agian epaimahai honek ez du asmatu ikusten zure barnean daramazuna. Edo agian ez duzu oraingoan asmatu zure

hori kanporatzen. Edo agian trebetasun apur baten kontua da. Guztiok dugu zer esana; guztion zer esanak du garrantzia; guztiok gara gai esan nahi duguna esateko; guztiok gara gai, gainera, hori era duin, zuzen eta, zergatik ez, literarioan egiteko, zergatik ez? Topikoa litzateke orain esatea “saiatu berriro”, eta topiko erdiarekin nahikoa da “saiatu” besterik ez.

Baina goazen aurtengo datuetara. Epaimahaia aipatu nahi dugu lehenik. Aurtengo epaimahaian literaturaz jantziak diren pertsona hauen kolaborazioa izan dugu:

Castillo Suarez
Urtzi Urrutikoetxea
Josune Muñoz
Miren Agur Meabe
Katixa Agirre

Parte-hartzeari dagokionez, 2010. urte honetan 336 lan jaso dira: A mailan 91 prosan eta 53 poesian; B mailan, berriz, 156 hitz lauz eta 36 olerkian; bestalde, parte-hartzaileetako 252 neskak eta 84 mutilak.

Dakizuen bezala, lehiaketak dituen 20 sariak lau ataletan banatzen dira, parte-hartze kopuruak azaltzerakoan aipatu diren bi arlo eta bi mailetan: bosna sari atal bakoitzean. Aurtengoan sariaz gain hainbat aipamen ere egin ditu epaimahaiak. Lanak epaimahaiak emandako lehentasun-ordenan argitaratu dira.

Hona irabazle bakoitzari dagokion saria:
– Irailean 10 egun inguruko bidaia (Galizia)
– Bidai poltsa norbere gastuetarako: 300 €.
– Oroigarria. Iraileko sari-banaketan ematen zaie.

– Lanak *Sagastiberri* sailean argitaratzea.
  Liburua eskola guztietara eta parte-hartzaile
  guztien etxera bidaltzen da.

Horrez gain, urtero bi ikastetxeri egiten zaie aipamen berezia: aurten Gernika institutuari eta Santurtziko Bihotz gaztea ikastolari. Aipamen horrek irabazleekin batera bidaian joateko eskubidea ematen dio ikastetxe horietako irakasle banari.

Liburuaren azkenean *Urruzunotarren zerrenda* jarri dugu. 1986tik 2010era bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen araberako alfabeto-ordenan. Lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan eta zein orrialdetan argitaratu ziren azaltzen du, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Azkenik, zorionik beroenak eman nahi dizkizuegu sari irabazleoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztiei, eta epaimahaian kide izan ditugunoi eta, bereziki, ondoko aitzin solasa idatzi duen Katixa Agirreri.

Liburuko idazleak poztuko dira irakurle zaren horrek, lan hauek maitekiro eta arretaz irakurtzen badituzu. Irakasle, erabil ezazu liburu hau irakur eta idatz-zaletasuna zure ikasleen artean ugaltzeko. Irakurle, edonor zarela ere irakur ezazu liburu hau gazte batzuen ilusio eta sormenaren ispilu moduan. Euskaltzale oro, irakur ezazu itxaropenez euskararen fruitu apal eta duin hau.

IRAKUR NAZAZU, ERABIL NAZAZU, deiadarka datorkizu liburu hau.

**Euskara Zerbitzua**

# LITERATURA-ITSASO ZABALA

Josune Muñoz

Urruzuno lehiaketan otsailean murgildu eta maiatzera bitartean buruan bueltaka ibili ondoren, horretarako zenbait ikerketa egin eta ikusita benetan ere ze mundu zabala den hori, zin dagizuet Eusko Jaularitzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailaren arduradunak berak enkargua emango balit ere ez nukeela Urruzunotarren literatura-ibilbideen segimendua egiteko ikerketaren zama neure gain hartuko.

Baina badaukat nik gure sailburu-andrea baino agintari zorrotzagorik, neure burua, alegia, eta neure ikerlari sen eutsiezina; ta horri, horri ezin ezetzik eman, men egin behar barne-grinari, ta gehiegi pentsatu barik buruz-behera egin dut salto Urruzunotarren itsasora.

Mundu berri horretan igerian eman dut denboraldi hau; eta arropak sikatu ere egin barik natorkizue hitzaurre hau bukatzeko epeak estututa; beraz, nahi nuen baino izen-abizen gutxiagori jarraitzeko aukera eta denbora izan dut; baina aitortu behar gustura busti naizela, Euskal literatura-sistema osotik ibiltzeko goiz eta gaueko parada eman dit eta. Alizia

urpekari hau ohartu da gure literatura-sistema oso zabala dela eta urruzunatarrek genero ezberdineko liburuak sortzeaz haraindi aukeran zituzten hainbat hautabideez baliatu direla literaturarekin harremanetan jarraitzeko.

Urte eta lagun asko izan dira aurkitu ditudanak. Ezagunenak, Harkaitz Bilbao, Uxue Picabea, Unai Benito, Eider Jimenez, Irati Mitxelena, Garikoitz Pasaia, Urtzi Behiola, Leire Gaztelu edo Igor Arretxe. Poeta, bertsolari eta idazle famatu horien ibilbideak arras ezagunak dira, euren liburuak salduenen zerrendetan daude eta komunikabideetako elkarrizketak, literatura-saioak eta hitzaldiak non-nahi entzun eta azaltzen dira; hortaz, URRUZUNOTAR ospetsuak albora utzita, ezezagunetara jo dugu hartutako lana hobeto beteko dugulakoan.

Has gaitezen, bada, azken horien adibide gutxi batzuk ematen, euren hautabideak, aterabideak edota lanbideak aipatuz literaturaren bidezidorrek noraino garamatzaten aztertzeko:

Ibai Agirre: beste bi literatura-lehiaketa gehiagotan ere irabazle, ikasleak EGA azterketarako prestatzen ditu Karmele Iturriotz euskaltegian. Ikasturteko kontratua egiten diote eta ez daki aurten ere berriztuko ote dioten. Sarrionaindia eta Atxaga bereziki maite dituela azpimarratzen dute ikasleek. Poesia-irakurle amorratua izanik, gauero poesia erraz bat edo bi irakurtzen dizkio Saioari, bere alabari.

Onintze Gonzalez: familiaren liburu-denda oinordetzan hartu ondoren, benetan saiatzen ari da Lezamako alde zaharreko azkenak zabalik jarrai dezan. Denda biziberritzeko asmoz jarri ditu kuxin koloretsu handiak sortu berri duen

gazte-literaturaren txokoan. Txoriherriko aldizkarian umorezko zutabea idazten du hilero.

Urtzi Oregi: kazetari fina eta bidaiari amorratua. Gaur egun Filipinetan dago. Handik bere hurrengo bidaia-kronika ekartzea espero du eta bere azken liburua, Zinbaweren ingurukoa, bezain arrakastatsua izatea. Irri irratian ostiralero hartzen du parte bere bidaietako pasadizoak kontatuz eta noizbehinka Harri telebistan ere bai.

Iratxe Sarasola: ofizio askotako emakumea, betiere literatura eta ilustrazioaren inguruko lanak badira ere. Fanzinetan kolaboratzaile, eleberri grafiko autobiografikoa sortzea du amets eta jo eta ke dihardu horretan. Txitxi-burruntzi euskal diseinu-enpresa xelebrearen erredakzio taldean ere egiten du lan. Aurtengo Sanferminetako “zuri zer doako” leloa Iratxerena dugu. Durangoko azokako antolaketa-lanetan ere ematen ditu urtero hainbat ordu urritik aurrera. Gainera bi seme-alaba ditu. Harrigarria da emakume batzuk erakusten duten kontziliaziorako ahalmena, gero!

Ikusten denez, aipatu adibideak bizibide askotarikoak izanik ere Euskal literatura-sisteman sartu dira, bakoitzak bere ekarpena ezarriz.

Alabaina, Iraitz Alduntzin, Maddi Garcia, Josu Irastortza, Beñat Larrazabal, Josune Mendieta eta Nagore Ugaldek, batzuk aipatzearren, aspaldian hartu zituzten literaturarekin zerikusirik ez duten beste bide batzuk eta orain terapeuta, garbitzaile, taxilari, argazkilari, zerbitzari eta abokatu dira, hurrenez hurren.

Ane Artetxe, Miren Borda, Jon Galarraga, Nekane Goñi eta beste anitz, ofizialki, langabezian daude.

Badira gaur egun Euskal Herrian bizi ez direnak ere, besteak beste: Aitor Bastida, Idoia Bazterra, Leire Cruz …

Bestalde, lagun franko dira ikerketan jarraitzeko denbora falta dela eta, aztertu gabe geratu direnak.

Eta hemendik aurrera aurtengo irabazle zaretenon izen eta ibilbideak ere aurkituko ditut urazpiko altxorren artean. Zuen lanak ikusita berriro sortzen zait buruz behera uretara salto egiteko gogo bizia; baina kontrola nadin, hurrengoan eskafandrarekin nahiago dut eta.

Josune Muñoz
(Bilbo, 2010-06-20)

# PROSA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

# Itsasoa Berlinen

Amaia Iturriotz Etxaniz
Urretxu-Zumarraga ikastola
Urretxu

*2010eko apirilaren 4a*

*Kristala gardena dela aipatu zidaten behinola, autobus honetako leihoak, ordea, ez dira gardenak. Ez didate beraiez gaindi ezer ikusten uzten, Berlin, soilik Berlin. Beno, agian horretan datza gardentasuna, hiria erakustea, baina nik ez ditut edifizio arranditsuak begitandu nahi, ez-eta auto-ilara funtsik gabeak. Alexarderplatz enparantza da topatu nahi dudana, erdigunean duen munduko ordularia eta albo batean gailentzen zaion eraikin zatarra, eraitsi egingo nukeela esaten nizun hori. Eta zuk orduan bakean dagoena bakean uzteko egiten zenidan burla. Eta nik amaren antza zenuela horrelakoetan. Eta berriz zuk. Eta berriz nik. Horixe da autobuseko leihoek ezkuta ez diezadaten desio dudana, maitasunez arnasten genuen aire kutsatua, eskutik helduta uxatzen genituen usoak: duela hiru urteko Berlin.*

*Oroitzapenak gorpuzteko ahalegin hutsalean begiak gero eta gehiago zabaltzen zaizkit betaurreko lausotuen atzean. Ez dut hala izan dadin nahi, ordea; askotan pentsatzen baitut gure begiak handitzen diren heinean egiten garela heldu gu. Begi handiak behar dira maitasunari*

*bisaia ikusteko, jabetzeko minaren koloreaz edo heriotza nola janzten den, bakeroekin edo gonarekin. Benetan ari naiz. Elenari begiratu besterik ez dago, nola lo dagoen nire magalean bi kanikatxo betazalez estalita eta nola kanikek argi egiten duten noizbehinka, autobusak ezusteko balantzaren bat egiten duenean. Hain ditu txikiak begiak. Nik ere txikiagoak nituen Berlin lehenengoz arnastu nuenean.*

*Asteartez izan zen, enpresari men eginez hartu genuen biok lur Alemaniako hiri ezezagun honetan. Hiri edo, nolabait esatearren. Munstro erraldoi bat iruditu zitzaigun hasieran, etxe-orratzak ez baitira kariesez jositako aho ikaragarri bateko hagin kamutsak besterik. Haginengatik, horregatik esaten zidan amak etxean geratzeko, hobeto nengoela Beasaingo haurraren ahoan, artean haginik atera ez zitzaion hartan. Eta nik lana lana dela, zurekin nindoala eta beste mila arrazoi bera lasaitzeko asmoz, baina ez nintzen munstroak haurrak baino gehiago erakartzen ninduela aitortzen ausartu. Gaitz erdi, gaur egun leporatu egingo bailidake, hala esan izan banio. Edonola ere, ez dakit okerrago ez ote den, amak egozten ez didana neronek egozten baitiot neure buruari. Kanpotik erasaten gaituztenean arrazoizko ezkutu bat sortu ohi dugu itxuraz behintzat,, zerbait gaizki egin izanaren damu oro arazten dugularik. Erasaten ez gaituztenean, ostera, geu gara geure buruari pozoietan bustitako geziak jaurtitzen dizkiogunak eraiki gabeko ezkutu horrez gaindi. Bai, okerrago da. Amari Berlinek Beasainek baino gehiago erakartzen ninduela esan izan banio, agian ez nintzateke munstroak irentsi gintuenaren hain segur izanen.*

*Munstroa. Bere azkenetako hagin bat hartu genuen etxetzat, metroz, dena den, hogei minutura gehienez egongo*

*zen hiriaren erdigunetik. Erdigunea, aitzitik, ez genuen gehiegitan zapaltzen; ustez, enpresa bertan ez zegoelako, baina ongi genekien euren burua erdigunetzat daukatenek ez dutela beste baten beharrik. Izan ere, heliozentrismoa bera ere pikutara bota genuen Berlin konkistatu genuen egunean bertan. Gure inguruan biratzen zuen guztiak eta zail da azaltzen zer plazer sortzen duen erdiguneak non diren norberak erabakitzeak. Kafetegira jaisten ginenetan, han zuen erdia ziutateak; lanera abiatzen ginenetan, zuk erraz eta nik hanka puntetan eusten nion metroko barran; oheratzen ginenetan, menturaz bion sabelen artean irristatzen zen izara bihurrian zegoen zentroa. Erdiguneak, noski, bat baino gehiago baitira.*

*Egun, aldiz, oldozten dut, guk atari berean jarraituagatik, ez ote ziratekeen kaleak tokiz mugituko, ezer gertatu izan ez balitz. Ez ote zatekeen heliozentrismoa berriz onartua izango zu bizirik bazeunde. Esan nahi dut beldur moduko bat sartzen zaidala idealizatuta gomutatzen dudan amodio-harremana akaso egun ahulagoa izan zitekeela pentsatzean. Orain badakit badela beldurrari inbidiaz bizi denik.*

*Autobusari, berriz, ez diot inongo bekaitzik. Gehiago esango nuke, errukia diot. Izan ere, nork dauzka bada begiak autobusak baino handiagoak? Bi metro zabal diren kristalezko leihoekin aski ez eta bidaiari gehienok geure begiak ematen dizkiogu, bere kautxuzko gurpil urratuen malkoez gain, geure miseriak ere nozi ditzan. Koitadua bera. Kabroia ni, ibilgailuari oparitu dizkiodalako hainbeste gorroto ditudan begi-nini biak. Berak, kalte egiten ari nintzaionaz konturatu gabe, eskerrak eman dizkit, guk behinola atzerrian lanpostu hobea eskaini zigulako nagusiari eman genizkion gisan.*

2006ko azaroaren 17a

Pisura saltoka sartzeaz bat sofaren gainera jaurti zituen poltsa, bufanda eta eskularruak. Saltoka artean, zapatak banan-banan erantzi zituen korridorearen hasieran, ezkerrekoa eskuineko zapataren laguntzaz, eskuinekoa ezkerreko galtzerdiari esker. Beroki potoloegi bat ziplo erori zen zapata bien gainera, kumeak babestu nahi dituen arranoa bezala, hego eta guzti. Logela handienaren parean, ordea, gelditu egin zen, metroan aditutako azken abestia tarareatzeari utzi zion, etxea isiltasun erabatekora zigortu zuelarik, nahi gabe. Jertsea, galtzak zein kamiseta ohe gainera bota zituen orduan, hurrenez hurren, eta azken prenda ohe gainean pausatu zenetz ziurtatzeko segundo erdirik hartu gabe jauzika jarraitu zuen. Galtzerdiak goraino jaso zituen kendu aurretik, Pipi Kaltzaluzeren bihurrikeria norbere larruan sentitzea gauza handia delako. Bat eta bi, pasilloaren azken zatian tertulian geratu ziren; galtzerdiak, izan ere, bizirik daude.

Saltoak gero eta laburragoak bihurtu ziren, oin hutsek ahal zen gutxien laztandu nahi zutelako bainugelako baldosa hotza. Bularretako batek egin zuen hegan konketaren azpira, ezkutatu asmoz bezala, kuleroengandik edo. Supituki bi oin zolak baldosa horixka batekin ezkondu ziren, berari fidel, mugatzen zuten lau marretatik irten gabe. Ezkontzako dantzaldian metroko kantu famatu hura entzun zitekeen oraindik, harik eta kuleroak zango biak laztanduz jaitsi ziren arte, suhiltzaileak barra luze horietatik bajatzen diren gisan. Oin batek ostiko emanez bidali zituen konketapera, ezkontza zapuztu izana mendekatzeko apika. Bularretakoak hasperen egin zuen orduan, ez zuen egoera tentso hura jasateko batere gogorik, kuleroek ez baitzioten

barkatzen galtzontziloekin liatu izana. Bitartean, oin biek bainuontzia konkistatu zuten enegarren aldiz, haurrek sehaska gaineko panpinatxoak, tiobibo baten gisan mugitzen direnak, egunero deskubritzen dituzten eran. Bat-batean euria hasi zuen zeruaren zatitxo batetik eta oinek garrantzia galdu zuten, ur hura dastatzen zuten azkenak beraiek ziren aldetik. Ibaiak irristatu ziren Mariaren azalean, Berlinen itsasorik ez zegoenez, estoldetan desagertzeko gero.

Eskuez agindu zion zeru zatiari atertzeko, hala egin zuen. Oin puntetan kontuz atera zen bainuontzitik, euforiaren euforiaz, asteazkenero gisan, zoruan eskuoihal txiki bat jartzea ahaztu baitzuen. Toallarekin gorputz osoa sikatu ostean alderantzizko bideari ekin zion, metroko abestiaren zenbait estrofa ordena okerrean kantatzeraino. Kuleroak eta bularretakoa jaso zituen lehenengo, hizketan zirauten galtzerdiak ondoren, kamiseta, galtzak, jertsea. Denak ere garbigailura eraman zituen pertxa ibiltaria bailitzan. Oinek goxo sumatzen zuten zoruko egurra eta azalak goxo airea. Horregatik, etxean zehar biluzik paseatzen zen une hura sakratua zen Mariarentzat, mundu osoa hauteman zezakeela iruditzen zitzaion. Uste izaten zuen beheko solairuko atsoaren arnasak ferekatzen ziola oin-zola, hiru kale haragoko arrosen usaina heltzen zitzaiola sudurzuloetara, Municheko haizeak dantzarazten ziola adatsa… Munduak larrua zeharkatzen zion istant hartan itauntzen zion bere buruari zergatik sentitzen ote zen inoiz baino jantziago biluzik zegoenetan.

Hala ere, askatasunak gehienez hogeita hamar minutu iraun ditzakeelako edo, zapatak eta berokia hartuta logelara zuzendu zen Maria. Biloxkaz jositako pijama urdina atera zuen tiraderatik, hogeita bi urte bete zituenean amo-

nak oparitu zion hura. Ohe izkinan jesarririk jantzi zituen bi zangoak aurrena, besoak eta enborra ondoren. Kulerorik gabe, bularretakorik gabe, askatasun osoa hogeita hamar minutu sakratuetan itotzea pena zatekeelako. Ondoan, ilea lehortu zuen karibeko haize beroarekin, lehorgailuaren laguntzaz.

Behin egin nahi zituen guztiak eginda, egin behar zituenen ordua iritsi zen. Horregatik, mantala lasai antzean lotuta ekin zion afaria prestatzeari. Oinutsik artean, basokada bat arroz bota zuen lapikora; ura isuri zuen gero, arroza halako hiru. Hurrengo lana bi baratxuri ale txikitzea izan zuen, izatez, aurretiko zeregina zena. Izan ere, oinutsik jarraitzen zuen aldetik, ekintzak aldrebes egitearena ere ez zuen atzean utzi erabat.

Kanpotik begira legokeenarentzat film mutu bat baizik ez zatekeen sukalde zuri hura, pijama urdina ez balitz, zuri-beltzean konta zitekeena hortxe-hortxe. Oin zuri bi baldosa zuritan. Deblauki pantaila hautsi zen, ordea, sarrerako atea kolpez zabaldu zenean. Atzera begiratu zuen Mariak, baina sukaldetik ez zezakeen ez sarrera, ez pasilloa ikus. Bi zapata beltz sartu ziren etxean. Lapurren buruestalkia edo *femme fatale*-n ezpain ondoko orina bezala. Beltzak. Pauso hotsek inbaditu zuten korridorea. Nabarmena zen zoruko egurraren karranka erritmikoa. Zehatza, sendoa. Mariak atzera so jarraitzen zuen, begiak zabalik. Ezkerreko zapata beltzak lehentxeago berokia egona zen tokia zapaldu zuen, zerbaiten susmoa baleuka bezala. Ezkerreko atea zeharkatu eta sukaldera sartu ziren orduan. Zapata beltz bi baldosa zuritan, filma inoiz baino zuri-beltzago. Xabierrek musu eman zion ezpain biluzietan eta baratxuriei begira jarri zen berriz Maria.

– Zer moduz?- galde egin zion Mariak goxo.

– Uff, asteazkenetako bilera hauek gero eta luzeagoak egiten zaizkit! –neskarengandik ez zuen erantzunik jaso eta hala hobe, berak etxean egindako festak inbidia emango baitziokeen –Zu ondo ibili al zara?

– Bai, bai, dutxatxo bat hartu eta arroza egiten hasi naiz –emakumeek ba omen dute egia nahierara moldatzeko ahalmen hori –Tomatearekin jango dugu, ala?

Baiezko ozen baten oihartzunak hartu zuen pasillo osoa, Xabier logelara zihoalako aldatzera, pijama urdina janztera beharbada, baina ziur ez zela amonak oparitutakoa. Horrelakoetan antzematen zen ordurako bi hilabete zeramatzatela Berlinen, baratxuria pentsatu gabe ezkerreko armairuko bigarren apaletik hartzen zutenetan, zuzenean azpi-azpiko tiraderara jotzen zutenetan pijamaren bila.

*Autobus honetatik labirintoa dirudi Berlinek, munstroaren haginen artean doana. Egia esan, beste labirinto bat gogorarazten dit, eskaiolatu ohi zitzaizkigun izarek sortzen zutena, hain zuzen. Zuria. Oroitzen dut nola ez genuen nahi izaten bide bakar batek ere irteerara ematea. Horregatik, ukabilez eusten genien mihiseen muturrei irteera posibleren bat genekusanean, ixteko. Izan ere, ba al da bada ezer hoberik maitasunaren bideetan galtzea baino?*

*Zer diren labirintoak! Nahiz eta denek preso hartu, batzuetatik askatu nahi dugu, besteetatik ez. Irrikaz nago Berlindik askatu nahiko dudanetz jakiteko. Duela bizpahiru urte ez nuen nahi, baina indarrez bota ninduen hiria berak, irteerak ixteko bi esku falta zitzaizkidalako.*

2007ko apirilaren 22a

Larrua jo ostean denbora luzez egon zitezkeen besarkatuta. Igande hartan ere elkarren bihotz-taupada azeleratuak sentitzen zituzten bularraldean. Taup-taup, taup-taup. Orduan, larruak larru izateari utzi zion konpartitutako taupaden indarraz olatu bilakatzeko. Olatuok goxo laztandu zituen Berlingo haize freskoak, harik eta elkarrengan disolbatu ziren arte. Nork esan zuen Berlinek itsasorik ez zuela?

*Orain Berlinek itsasorik balu, ez nengoke berari so autobuseko leihotik. Ez nioke urruneko itsasontziei begiratzeko esango Elenari, ez-eta arrainak bizi direnik bertan. Ez nintzateke labarrean eseriko olatuen joan-etorriaz gozatzeko. Areago, orain Berlinek itsasorik balu, bere uretan murgilduta geundeke hirurok. Zuk esango zenioke txikiari urruneko itsasontziei begiratzeko eta nik, aldiz, bihotzak dabiltzala bertan igeri. Olatuenez barik, geure joan-etorriez gozatuko genuke etxetik bertatik, labarreraino joan gabe. Orain Berlinek itsasorik balu (bazuen), ez nizuke hau guztia kontatuko.*

2007ko ekainaren 5a

*Hägeles Antiqua* jatetxeko mahaira zeuden eserita atera berri zizkieten ravioliez gozatzen, egun hartan bazutelako zer ospaturik. Mokadu bakoitzaren ostean barre ñimiño batek ihes egiten zien, ia sistematikoki eta edozein gairi buruz hasten zirela ere, beti toki berean bukatzen zuten. Izan ere, goizaldean Mariaren okaden zioa zehaztu zieten Kopenick klinikan, haurdun zegoela, alegia.

Sardexkari atsedenik eman barik atzera so jarri ziren amesti, hasierako munstroa egunean-egunean hil zutelako, ia konturatu gabe. Lehen negua oroitu zuten aurrena, nola kosta zitzaien iluntasunera ohitzea, nola ikasi zuten eguzkia maitatzen eskularruak adina. Euskal Herriko lagunak bisitan etorri zirenekoa gomutatu zuten gero, zenbat garagardo edan zuten hangoa baino askoz hobea zen aitzakiaz. *Käsekuchen* zerbitzatu zieten deserta gisa, Alemanian ohikoa zen merenge zein gazta pastela. Hala ere, ez zioten gogoetari sokarik eten, euren bizitzetako azken bi urteen errepaso zehatza egin nahian edo, etapa bat ixterakoan egiten den moduan.

Bapo jan ostean, *Anna Koschke*-n hartu zuten kafea, gerora oroitzapen bihurtuko ziren bizipenei kafeak duen erromantizismo puntu hoti oparitu nahi zietelako. Momentua baliatuz, Xabierrek kafez busti zituen ezpainak Mariari maite zuela esateko eta osteko musuan zigilatu zuten maitasuna enegarren aldiz.

Atoan iritsi ziren *Alexanderplatz*-era, egun argiz artean. Estu-estua zen eta puntan esfera handi bat zuen dorreak harridura eragin zien, aurrekoan baino gutxiago eta hurrengoan baino gehiago. *Weltzeituhr*, aldiz, munduko ordularia, irmo zekusaten plazaren erdian, munduko hiri nagusiak zein ordutan bizi ziren zehazten zuela. Xabierrek Lesaka irakurri Oslo nahiz Ankararen alboan; New Orleansen LE, Kinshasaren SA, Dakarren KA. Mariak, berriz, Beasain; Beiruten BE, Casablancaren ASA eta Tallinen IN.

Alboko eraikinari begira jarri ziren gero.

– Ze itsusia den! Eraitsi egingo nuke –adierazi zuen Mariak ozen, *Park Inn* hotelaren oinetatik.

– Jesus! Utziozu bakean bakean dagoenari –burla egin zion Xabierrek ohikoa zuen txantxa doinuaz.

– Amaren antza duzu horrelakoetan! –ihardetsi zion neskak lepotik goxo eusten ziola.

– Ea gure haurrak baduen zurea! –aipatu gisan, mintzaldi orok umea zuen patu eta bere izena munduko ordularian bilatu ez bazuten, artean zein izen jarriko zioten ez zekitelako izan zen.

*Elenak hitz egiten du ametsetan, baina ez zaio ezer ulertzen. Gauetan luze egon naiteke bere alboan etzanda loak hartzen duen arte. Behin ametsetan hasten denean, bestalde, gustatu egiten zait aho txiki horretatik irteten diren soinuak hitz bihurtzea. "Mannn" esaten du eta "Berlin" entzuten dut nik, "gebbb" esaten du eta "Xabier" datorkit belarrira… Hala, berak kontatzen dizkidan ipuinak nire ahotik entzuten ditu gauero. Gaur ere betiko ipuin-kontaketan gabiltza, etxeko ohean aritu beharrean, Berlingo autobus batean. Dena dela, nik uste dut Berlin gustatuko zaiola, edozein umeri* Liliput *edo* Sekula inoizko lurraldea *ezagutzea gustatuko litzaiokeen bezala. Ipuinetako hiria.*

2007ko abuztuaren 14a

– Kafesnea izotzarekin, bi kaña, melokotoi zuku bat eta zerbeza limoiarekin.

Hala eskatu zion Xabierrek zerbitzariari, Maria ikusi orduko poza nahiz sorpresa ezkondu zitzaizkionari. Mariak bi musurekin agurtu zuen eskolan lagun izandako

Iñaki eta denei esaten zien gauza bera errepikatu zion berari ere, bariazio txikiren batekin; Berlinen urtebete baino gehiago zeramala ingeniari gisa lanean, hiri handia zela, hotz egiten zuela neguan…

Izan ere, horixe zekarren abuztua Beasainen pasatzeak, ingurukoak besarkatu nahian bertaratu eta denei esplikazio azalekoak eman beharra irribarre unatuz apaindurik. Baina merezi zuen. Eta merezi zuelako erabaki zuten taberna hartako terrazan esango zietela.

Mikel eta Eli, Mariaren gurasoak, seme-alaben haurtzaroko bihurrikeriak gogoratzen gustura zihardutenean, Mariak parrez parrez begiratu zion ezkerretara zeukan ahizpari. Xabierrek ezpainak garagardoz busti zituela konturatu zenean, ostera, isildu egin zen, bai baitzekien garrantzitsu samarra zen zerbait bota aurretik baizik ez zituela ezpainak hezetzen. Orduantxe zabaldu zuten lau haizetara erabaki zutela.

Bai, Elena izango zen, Mariak inbidia zion ikaskide ilehoria bezala. Xabierren soak lizun ferekatzen zuen telebista-aurkezle alemaniarra bezala. Baina horiek, beren izenari uko egin beharko zioten zazpi hilabete barru. Eta askok pentsa lezake haur munduratu berri batek nola hil ote zitzakeen Elena guztiak. Bada, irribarrez zuzenduko zitzaien emaginaren bata urdinak ospitaleko hormetako pintura urdin oro hilko zuen modu berean. Eta akaso Maria ez zen inoren inbidiatan izango zazpi hilabete barru. Beharbada, telebista-aurkezlearekin igogailuan harrapatuta geratzen zen eszena erotikoari uko egingo zion Xabierrek. Beharbada.

Ez zuten hori guztia kontatu, noski, Elena izango zela bakarrik.

*Elenaren ipuina bukatutakoan, errepideari jarri natzaio adi. Badirudi autobusaren argiek erakusten digutela nora goazen, aurrean zer dugun, eta behin hori jakinda, lasai jarraitzen diogu bideari. Ez gara ohartzen autobus batean eserita goazela, garamatzatela, hau da, gu ez garela gure bizitzaren gidari.*

*Galdera da txoferra nor den. Guztia ongi badoa, ez dugu erantzun beharrik izaten, merituak geure gain hartzea aski erraza baita. Era berean, mundua gainera datorkigunean ez dugu ihardesterik nahi, erantzuna topatuz gero, zer egiteko gai garen jakin nahi ez dugulako.*

*Bai, badakit hau entzun ostean ez duzula ni autobus honetan egoteko arrazoia ulertzen. Berdin du. Esadazu arren galdera ikurrak nola isiltzen diren, baina ez iezadazu erantzun.*

2007ko urriaren 19a

Errepidearen erdi-erdian zegoen Maria taxiren batek noiz hartuko zain, euritan eta aterkirik gabe. Albotik pasatzen zen auto bakoitzak apur bat gehiago zapaltzen zion bihotza. Izan ere, telefono dei nardagarriaren eraginez bularretik salto egin zion honek eta errepidera jausi zen, ziplo.

*Ein ernster Unfall. Ein ernster Unfall. Ein ernster Unfall. Ein ernster Unfall. Ein ernster Unfall.*

Munduak ez zuen besterik esaten neskaren belarrietara. Etxe-orratz gupidagabeek *ein ernster Unfall*. Bihotza hauts bihurtzea plazer gisa zekusaten kotxeek *ein ernster Unfall*. Espaloi bietatik presaka zebiltzan berlindarrek *ein*

*ernster Unfall*. Zerua izango zen ziurrenik errukia izan zion bakarra, berarekin batera ari zelako negarrez.

*Ein ernster Unfall. Ein ernster Unfall. Ein ernster Unfall. Ein ernster Unfall. Ein ernster Unfall.*

Istripu larria. Mundua behin eta berriz errepikatzen ari zitzaizkion hitzak hamar minutu lehenago artikulatu zizkion mediku batek. Horregatik, ginekologoaren kontsulta tokatzen zitzaion ostiral hura urgentziatan eman behar izan zuen.

Ospitaleko harrera-lekura bihotza arrastaka zeramala sartu zen. Ohatilak, paperak, batak, sueroak eta jendea, jende asko. Erizain batek lagundu zion amaierarik bako korridoreetan zehar gelara iristen. Kristalaz bestaldean ikusi zuen Xabier, tuboz josita. Orduan, ahots sendo batek erasan zuen atzetik, auto-istripuaren larritasuna kontuan hartuta, ezer gutxi egin ahal izan zutela zioena, bazihoala, alegia.

Hurrengo hiru orduetan zendu zen Xabier, pixkanaka-pixkanaka eta derrepente, Mariaren begien aurrean baino, sabel haziaren aurrean. *Piiiiiiiiiiii…*

*Bihotz erail bat nekez egin zitekeenez sabel lodi baten kargu, urriaren 24an zapaldu nuen azkenekoz Berlín-Schönefeld aireportua. Bi urte eta erdi joan zaizkit ordutik, Beasainen gure alabaren alboan gozatu ditudanak, sabela izan zelako azkenean bihotza berpiztu zuena.*

*Hala ere, Berlin gomuta soila izateak min eman izan dit beti, zu lehena, oraina nahiz geroa zarelako oroitzapena barik. Orain bai, ulertzen duzu zergatik itzuli naizen, Elena magalean eta zure urtebetetze egunez.*

*Erdigunean gelditu da autobusa. Hala esan du gidariak,* im Stadtzentrum, *beraz, zu ez zara oso urrun ibiliko. Elena goxo-goxo esnatu dut eta autobusetik jaitsi gara biok. Esku batean daramat arrastaka doan maleta, behinola bihotza ibili nuen moduan, bestetik, aldiz, Elenari heltzen diot. Bazter guztietara begira dabil bera, behelainoak nahi beste deskubritzen uzten ez dion arren. Niri, halaber, korapilo moduko bat egin zait sabelean, behe-lainoa dagoenetan hiriak zerbait ezkutatzen didala iruditzen zait-eta. Honela, nahiko urduri hasi dugu ostaturanzko bidea. Gainera, Elena negarrez hasi da bat-batean, ez omen zaiolako behe-lainoa gustatzen. Malkoak maitekor sikatu ondoren, berriz heldu diot eskutik aurrera jarrai genezan. Kale bat zeharkatu dugu, gero bi, eta bera malkotan.*

*Orduantxe ulertu dut behe-lainoa zer den. Haatik, taxi bat gelditu dut Elenaren harridurarako.*

*– Ama, nora goaz?*

*– Behe-lainorik ez dagoen toki batera, maitea.*

*Txoferrak* Alexanderplatz*-en utzi gaituenean korrika hasi naiz, maleta eta Elena eskutik neramatzala ere ahantzita. Munduko ordulariaren parean gelditu naiz supituki, irribarrez, eta lehenengoz begiratu diot alabari betaurrekoak lausotu gabe, behe-lainorik gabe.*

*– Elena, hona askotan etortzen zen aita.*

*– Aita. –hitz honekin zigilatu du zuri buruz kontatu diodan ipuin bakoitza.*

*– Bai, aita. Kairoren AI, Istanbulen TA.*

# Areago pago uluak baino

Irati Seijo Diez
Gernika institutua
Gernika-Lumo

Egun iluna zen. Eguzki izpiak ere hodeien artean galtzen diren horietako eguna. Lepotik zintzilik berunezko zama bagenu lez oker okerka ibiltzen garen egun horietakoa zen. Irribarrerik alaienak ere garaitzen direnetakoa. Betileak pisutsu bihurtu eta eurok eraginda begiak zarratuta sumatu ohi ditugun egun ilun horietakoa zen, *Haitzpe* mendi magalean zabaltzen den basoan. Egunaren argitasunak dakartzan txorien txorrotxioak ere hor zehar galduta zeuden egun hits hartan.

Herria artean lo zegoen, basoaren hegal batean, Haitzperen altzoan. Haize finak laztantzen zituen erreka alboko zuhaitzak eta hostoak ferekatu negu sasoi hartan.

Ustez lo sakonean zegoen herri honek bazekien ez zuela lozorro hartan jarraitu behar. Edo bestela esanda, herri honek bazekien jaiki egin behar zuela. Bazekien egun hartakoak eragina izango zuela. Lei izara eta aire fin guztien azpitik bazekien esnatu beharra zeukala bizirik iraun nahi bazuen. Jakin behar zukeen bederen. Jakin behar zukeen ametsen mundua atzean utzi behar zuela eta baita letaginak zorroztu behar zituela. Bizitzeko, letaginak

zorroztu eta belarriak tentetzeko premia zuen, lemari eutsi behar zion. Iparrorratzari begira, aurrera joateko bidean mantenduko zuen lemari eutsi. Teilatuko haize-orratza hara- hona ibili zen egun hartan. Egun hartan eta aurrerantzean ere. Haizearen norabidean aldaketa izango zen egun hartan. Izango zen. Izan zen.

Neguan teilatu zuriz jantzi eta udan arranoen hegaldiei so bizi zen mendiaren aterpeko herrixka honi, iparraldean, han urruneko zerumugan, itsasoa ageri zitzaion. Bata bestearen ondoan pilatutako baserri erako etxeek osatzen zituzten karrikak eta ertz batetik abiadan zihoan errekako urak hornitzen etxeak.

Aberatsa zen, aberatsa oso. Herri honek aspalditik dakien eta zekien lez. Ezjakintasunean bizi zen halere, ezjakintasunean edo itsu-itsuan. Oilo arren kukurrukuak goizero esnatu eta begiak irekiarazi arren, gauzak ikusteko gogorik ez zuen nonbait. Haurren antzera eskutxoak begien aurrean jartzen zituen, begiak itxita, eskua begiaren kontra eta begia eskuaren kontra. Ez zen ezertaz jabetzen, era horretan ez. Bazekien aberastasunak eramango zuela galbidera baina ez zuen jakin nahi. Aberats izateak inguruko herriak gorrotatzera bultzatuko zuen. Herri honek herritarrak maite bazituen ere, aberastasunak zituen erailko, etzanaraziko.

Lanbro hezeak teilatuak bustitzen zituen egun itzal hartan, ilargia ostertzean barna aspaldi gordea zen. Leiho zaharren kirrinkak, herrixka egun bat gehiagoz esnatu zela iragartzen zuen, egun bat gehiago bizi zela. Baina ilargia zerumugan, lurraren magalean aspaldi gorde zen arren, basoak lo zirauen inguruak bezalaxe. Sugelandarak lurpean eta txantxangorriak habian gordeta babestu ziren

mutu. Azeri eta azkonarrek pauso arinez bilatzen zuten babeslekua, mozoloak gau luzearen ondoren, lotaratuta amets egiten zuen bitartean. Hilda zegoen ingurua, zendua basoa. Hildakoaren mozorroa zeraman soinean.

Behatzazal garratzak ziren haiek. Errekaren ur emaria mantsotu ez ezik behelainoa ere ziztatu zutenak. Uluen soinuak, belarriak laztu eta, bihotzetan barneratu ziren hauek izoztuz. Otsoak ziren. Ilargi betez mendi tontorrean marruka begira egon ohi ziren otsoak. Basoko zuhaitzen pareko sentitzen ziren otsoak. Kate eta heziz hornituta adurra zeriela zapaldu zuten harresirik gabeko Haitzpe mendi magaleko herri hau. Egun erretako zigarroaren soberakina zapaldu ohi dugun harrotasun berberaz. Sarrailarik gabeko ateak bota zituzten eta ilun esnatu zen eguna areago belztu zuten. Euri zaparradak begirada nahasten zuen eta putzuak sortu. Ume errugabeen hilobi bihurtuko ziren putzuak, hauen gorpuak zerraldo lurraren esku geratzean. Leiho zaharren kirri-karra hotsa entzuten zen goizean baino indar handiagoz. Ekaitzik handienak zabalik dagoen leihoa hormaren kontra bultzatzen duenean entzuten den indar berberaz. Oraingoan, ordea, ez zen ekaitza leihoak astintzen zituena, oraingoan leihoak zatitan banatzen ziren, lurrean sakabanatzen ziren milaka zati txikitan. Eta zorua koloreetako perlaz janzten zen bitartean. Kristalezko koloretako perlaz. Lokatz kolorekoak batzuk, odol kolorekoak besteak, asko ez zen perla izatera iristen eta aititaren baten gorpua kristal txikiz betetzen zen.

Elurra ari zuen, elurra mara-mara, neguko iluntze hartan. Lainoa joana zen. Artizarra ñirñirka ordurako. Egun osoa habian kumeen zaintzaile egondako papargorriak eguneko lehenengo hegaldia egitea erabaki zuen, eta suge-

landarak ere gotorlekutik kanpo zuen burua. Iluntasunak argiztatu zuen Haitzpe mendipeko pagadia. Zuri koloreko tapaki batek estalia zuen herria. Herria eta ingurua, basoa eta mendi tontorra ere bai. Ilargia, inoiz baino beteago, herriratu zen zeruko milaka argirekin batera. Arranoak hegan hasi ziren iluntzeko freskotasuna dastatu nahirik edo. Mendi gailurrean ez zen uhuririk aditzen. Etxeak hornitzen zituen errekak hizketan ziharduen harri eta oraldi artean. Basoaren sakontasunean makila hotsa entzuten zen mozolo oihu etengabeek lagunduta. Bizia zegoenaren seinale. Basoaren bihotzetik, zuhaitz baxu eta garaien artetik, basoaren sabeleko zuhaitz hostodun eta biluzi horien artetik, hostoen zulotxo guztietatik, elurrezko manta lodi batez berotutako herria ikus zitekeen. Mendeetan bizi izandako herria. Haitzpe mendiaren magalean hazitako herria. Zuhaitz garai eta baxuetako hostoen zuloetatik, zeruertzean itsasoak dir-dir egiten zion herri txikia ageri zen. Herriko teilatuak ageri ziren hostoen arteko zuloetan. Teilatuak eta etxeen leihoak. Eta argi txiki bat, han urrunean, herrian. Tximinia kea zeriola ikus zitekeen basoaren bihotzetik, basoaren sabeletik, hostoen artetik.

Idazten nenbilen. Idazten eta irakurtzen ganbarako teilatupean. Herriaren talaian. Tarteka beheko logelara egiten nuen bisita. Han zen Kima. Leihoaren ondotik gelaren erdira zabaltzen zen ohe txikian erdi lo, gelaren txikitasunean. Sitsik txikerrenak ere miresten zuen haren loa, neuk miresten nuen antzera. Bazkal osteko lokuluxka egin zezan oheratu zuen aitak. Amarekin batera joan zen gero. Mutu amarekin batera, aldeteko asmoa zutela esan gabe.

Atearen karraskaren atzetik irteten ziren eta etxea atzean utzi. Etxea eta etxekoak. Ordu pare batean edo

egun batzuetan berriro ez bueltatzeko. Ohituta nengoen. Ohituta *umezurtzaldi* haietaz eta ohituta gurasoen desagerpen haietaz. Hala jaio nintzen eta hala bizi. Amamak aldiz hortzak estutu eta behera begiratu ohi zuen, oinen parean jarriz begirada, zoruaren parean. Lurraren indarrak itxiarazi egiten zizkion. Begiak itxiarazten zizkion egun eguzkitsu batean ur tanta ñimiñoena sikatu ohi den tarte laburrean. Lipar batez begiak ixten zituen barruko lurrikara azaleratu nahirik edo. Urteen iraganak ere ez zuen amama ohituko. Amamarentzat ez zen ohitura, oinazea zen amamarentzat, barneko urrakada.

Kima ondo zela jakinda ganbarako eskailerak igo nituen. Asko ziren eta egurrezkoak denak. Amamak sasoi hartan ezin zituen igo eta aitita ere eskas samar moldatzen zen. Askotan, zenbatu egiten nituen goialdeko eskailera maila zaharrak. Berrogei. Berrogei ziren. Berrogei eta bat gehiago, koska bat baitzegoen. Aspaldi aititak gehitua. Bigarren solairuko egurrezko zoruan zegoen koska eta sarbide ematen zion gorako bideari. Han ematen nituen arratsak eta goizak.

Leihorik gabeko zuloetatik haizea sartu eta dena nahasten zuen. Lasto, artaburu eta idazpaperak barreiatzen zizkidan maiz. Idazlanak lapurtu eta kalean barrena mendian gora eramaten zituen hegaz hegoak balituzte legez, inoiz ez bueltatzeko asmoz. Kaieraren orrialdeak aldarazi.

Gustuko nuen txoko hura. Herriko teilatuen parean eta gure baserriaren sabaipean. Gazteak ozen mintzatzen aditzen nituen teilapetik. Umeak hara eta hona korrika oiloen lumen atzetik, hauek zirikatzen. Aitzurrak ere aditzen nituen, atxurrak eta aizkorak ere bai. Baratzean lanean zebil-

tzan atxurrak harrien kontra jotzerakoan entzuten nituen. Otsoen uluen ikaraz zebilen norbait ere aditu izan nuen. Mintzakideak lasaitzen zuen eta besoa sorbalden gainean pausatzen. Noizbait garaituko genituela. Aurrerantz jarraitzen zuten gero, karrikan aurrerantz.

Urteak ziren borroka etengabea geneukala. Urteak arrotzak herriratzen zirela. Herria erasotzen zutela eta askotan baserriak suntsitu. Batean, uztak zapaltzen zituzten amorruz. Ura lapurtu bestean. Eta maiz herritarrak erre. Erre edo preso eraman, kate astunetan amarratuta. Horrelakoa zen, horrelakoa gure herria.

Beheko logelara egin nuen bisita berriro, artean lo zegoen Kima. Arto irin usaina usaindu nuen korridoreko egur xafla arteko zulotxoetatik. Gora zetorren arto irin usaina egur tarteetatik. Amama zen behean ogia egiten. Idazteaz nekatu nintzenez beherako bidea hartu nuen. Aitita ere han zen, egurrezko aulkiko kuxin bigunaren gainean,ezkaratz handian artilea ehotzen, biztuta zegoen txaparen beropean. Tarteka, sutan zegoen lapiko handira belarren bat edo koloredun ur apur bat botatzen zuen, eta artilea ehotzen jarraitu. Hauek entzutea maite nuen. Haien ahotsa eta haien mugimenduaren zaratei so egotea nuen gustuko. Zaharrak ziren, etxeko zaharrak, ez, ordea, baserria bezain zahar. Argia apurka-apurka itzaltzen zihoakien, egunetik egunera dirdira gutxiago zuten begietan. Eskuetan tximurrak zituzten eta buruko ilea urdina. Kontu kontari aritzen nintzen haiekin, txokotzat zuten ezkaratzean, etxeko ezkaratz handian. Txaparen berotasunean eta egunaren argitasunean. Une asko bizitakoak ziren, gogorrak eta latzak baina goxo eta politak ere bai. Arrotza zen haien izua, arrotza haien ikara. Hauek sortutako oinaze

eta zauriak sendatzeko sendagaiak prestatzen zituzten. Baina otsoen beldur ziren, arrotzen beldur, eta ikara hartan bizi ziren. Otsoen ikaraz bizi ziren. Arrotzen pausoak entzutearekin batera eskuak kateatzen zituzten bata bestearen lepoan, eta begiak zarratzen zituzten bihotz taupadak trostan zituztela.

Otsoak herrira etorri ziren lehen aldiaz mintzatu zitzaidan behin aitona bere egurrezko aulkian jarrita. Negua omen zen eta egun iluna gainera. Behelaino hezeak estaltzen omen zuen herria. Behelaino heze artetik agertu ei ziren, lainoa urratuz. Ilun esnatu zen herria ilun lotaratu omen zen. Malkoek busti zuten haren masaila. Malko finetatik hasi eta lodiek busti zuten haren aurpegia, egun hura narratzen zuen bitartean, begiak gorrituta. Katez beteta etorri ziren otsoak eta euria ari zuen. Zaparradarik gogorrenak ere ez zituen gelditu. Negarrik sakonenak ere ez zituen errukitu. Egun hartako txapeldun, heriotza izan zela esan zidan aitonak. Ume jaioberriak putzuetan itota, zuhaitzik zaharrenak ere ez zukeen egun hartan biziraungo. Hala esan zuen aititak burumakur. Uztak suntsitu zituztela, etxeak zapaldu, ura kutsatu eta iturriak agortu. Herritarrak bortxatu eta herria zapaldu zuten. Oinatz ezezagunek zituzten karrikak markatu, oinatz ezezagunek zituzten etxe sarrerak basaztu. Gero elurra hasi omen zuen eta elur azpian geratu zen herria, elur azpian egon zen egunetan herria. Herri eta herritarrak, hilotz eta gorputz epelak egun luze eta ilunetan, hilabeteetan elur azpian. Hau esanda, burua altxatu zuen aititak, begiak xukatu eta zuzen begiratu ninduen, garrantzi bereziko zerbait esatera balihoa lez. Esango zuen. Hala hasi zen. Baina bizirik darraigu, zutik eta bizirik. Zutik eta bizirik darraigu etenik gabeko borroka honetan, zutik eta bizirik garaipenaren esperoan.

Borrokatzen ikasi dugu, ezpata goratzen, haiek bezala, maltzurrak izaten ikasi dugu. Gorrotoa zer den ikusi dugu. Gorrotatzen erakutsi digute. Guda bilakatu da biziaren zentzua eta oinazea. Herri zapalduaren oinazea bihurtu da eguneroko fruitu. Hori esan zidan burua tente eta harro. Ama sartu zen orduan eta begia kliskatuta kiñu egin zion eta aitak lepoa igurtzi, esku epelekin lepoa igurtzi. Gero, ilea urdin eta eskuetan tximurrak zituela lixiba egitera joan zen, hurrengo gauean Kima eta biok ohe garbian lo egin genezan.

Ogi beroa utzi zuen amamak mahai gainean laukidun mahai-zapian. Aititak artilea ehotzeari utzi zion, eta lapiko handian irakiten zegoen belar ura irabiatzen hasi zen egurrezko koilara handiaz. Prest zegoen, olio tanta batzuk gehitu eta irabiatzen jarraitu zuen. Kima esnatzera igo nintzen, lo nahikoa egin zuela zioen amamak eta esnatzeko, esnatzeko gauean lo egin nahi bagenu. Gora altxatu nuen neure burua, eskaileretan gora bigarren solairura. Korridorean aurkitu nuen, oinutsik eta ipurdi bistan niri begira, begiak handituta oraindik. Lo egiteko erabili ohi zuen zapitxoa arrastaka zekarrela alboratu zitzaidan. Ilea laztandu nion eta besoetan hartu. Ipurdi leun beroak gorputzaren pisua neure besoen gainean uzten zuen. Pasilloan barrena, gelarako bidean, burua sorbaldan pausatuta zuela, berriro lo hartuko balu lez. Ohean eseri nuen, oraindik epel mantentzen ziren izara zurien gainean. Praka eta artilezko galtzerdi lodiak jantzi nizkion behatzak hotzitu ez zitezen, ostean leihora hurbildu ginen. Kalean zeuden umeak jolasean, korrika eta kantuan. Haizea zebilen, haize freskoa eta basoko zuhaitzak dantzarazten zituela ikus zitekeen. Eguzkiak hodei ertzean tarteka kuku egiten zuen. Aitita eta amamarengana jaitsi ginenean, aita eta ama fal-

tan zirela konturatu zen Kima baina ez zuen txintik esan, ogia ikustearekin batera ahaztu baitzuen kontua. Salda beroa zuen amamak prestatuta, salda beroa eta artirinez egindako ogia. Ogi egin berria. Aititak ere eginda zuen ordurako belar ura. Poteetan sartzen zebilen Kima saldari putz egiten hasi zenean. Sarritan jaten genituen salda eta ogia arrats partean. Afaldu baino ordu batzuk arinago, negu aldean batez ere. Mahaian eserita, laurok elkarrekin, txaparen berotasunean, alde batean aititak belar urez betetako poteak zabalik kea zeriela. Herritarren artean banatzen zuen zauriak sendatzeko balio omen zuen ura. Makila eskuetan zuela basoan murgiltzen zen belarren bila, askotan amama lagun zuela. Ezkaratzean eskegitzen zituen batzuk, liburu arten sikatu beste batzuk,… eta salda eta ukendu desberdinak egiteko erabiltzen zituen. Herria osatzeko salda eta ukendu desberdinak. Isilik geunden, bakoitza bere katilua eskuetan, putz egiten aitita, kea kendu nahirik edo. Atea entzun zen zabaltzen, ama sartu zen aita atzetik, azken honek bultzadaz itxiz. Irribarre egin zien amamak, pozik zegoen pozik haiek ikustean. Seirok geunden mahaian oraingoan, seirok katilukada salda eta artogi zerra genuela. Seirok salda beroaren epeltasunean, familiaren berotasunean, uluak entzun genituenean. Oihartzun isil batzuk entzuten ziren herri inguruan. Uluen oihartzun isilak. Geroago, garrasi bortitzak entzuten genituen. Haize boladaren doinu lasaia ere isilarazi egiten zituzten garrasi bortitzek. Garrasi arrotz eta sakonak. Ulertezinak. Orroak pausu bihurtu ziren eta pausuak esku. Esku eta oin, hatz eta behatz. Denak ere ezezagun. Soka eta kate ondoren eta gar azkenik. Alde egin zuten, alde egin zuten amak eta aitak. Familiaren berotasunetik saldaren epeltasunetik. Babestu behar gintuztenek egin zuten alde. Otsoen uluak ikaratuta amamak eta aititek eskuak korapilatuta zituzten

bitartean. Alde egin zuten eta ez dira bueltatu, alde egin zuten otso taldearen beatzazaletatik, alde hainbat herritarrekin. Ez dira bueltatu, ez dakigu bueltatuko diren. Herria defendatu behar omen dute, herria defendatzea omen da haien betebehar. Herria defendatzea. Borrokatzea, kateak hartu eta etsaia kateatzea. Alde egin behar zutela harrapa ez zitzaten, ihes egin behar zutela herria defendatzeko, otsoek hozka ez egiteko.

Borrokatu beharra zutela hala zioen aititak, borrokatu beharra zegoela aske izan gintezen. Honela joan ziren aita eta ama familiaren epeltasunetik eta saldaren berotasunetik. Honela joan ziren babestu behar gintuzten ama eta aita.

Kima lurrean etzanda dago, nekatuta. Estualdia izan eta gero, tristurak barrua jan eta gero. Estalki handi bat jarri dio amamak lepotik eta lurraren hotzetik isolatu nahi gaituen zapiaren gainean haren eskuinaldean belaunikatu naiz. Buruaren parean. Noizbait amaren barnean egon zeneko forma berreskuratu du. Sorbalda bat lurraren kontra, gorputza berotuko ez dion lur gogor eta hezearen kontra. Burua nire izterren gainean jarrita besotik heldu nau. Hizketan hasi naiz, amama guri so den bitartean, begiek isladarik ez duten bitartean. Ipuin asko kontatzen zizkidan amak hemen zenean. Hamaika ipuin kontatu zituen, berton gure alboan zenean. Kolorezko izara goxoek behatzak berotzen zizkigun bitartean kontatzen zizkidan ipuinak amak, asmatutakoak edo noizbait irakurritakoak. Ohe alboko kandelaren argipean, besoak lepoa inguratzen zidan. Harrigarriak ziren batzuk tristeak zenbait. Atsegin nuen egunaren amaierako istant hura. Eguzkia ere lotaratuta goian, ilargi amandreak munduaren teilatuan lo egiteko kuma zuria prestatzen zuen.

Bazen bereziki gogoko nuen istorio bat. Amak behin eta berriro kontatu izan didana. Berriro haren ahots samurrak kontatuko balu! Amaren eskuak ukitu eta laztantzeko aukera banu!

Malko batek ukitu du nire azala, Kimaren burukoa den izterreko azala. Eskuak haren begietara eraman eta sikatu egin ditut, ahalegina egin dut.

Sua egiteko erabiltzen dugun ikatzaren kolorekoa zen eme baten istorioa, oheratzerakoan kontatzen zidana. Ilargiaren antzera bakarrik bizi zen eme batena. Bakardadea betegarri eta atsegin dela esaten dute, norberak aukeratua denean eta norberak nahi duenean. Jarraitu du amonak ufada artean. Bakardadea, ostera, ez zen azken bi hauen aukera, hala esaten zuen baxu-baxu amak.

Hilabeteak dira alde egin zutela, hileak amak eta aitak utzi gintuztela. Hamaika eraso izan dira ordutik hona. Hustuz joan da herria azkenaldi honetan. Herria ere bakardadearen lagun da azkenaldi honetan.

Egoerak bultzatuta, bakardadea apurtu nahian edo lagunmin egin ziren eme beltzarana eta iletargia. Gauero elkartzen ziren solas egiteko. Nekatutakoan, emeak ilargiaren azpian egiten zuen lo, ilargiaren argitasunak estaltzen zuen haren gorputza eta loa zaindu. Gauaren jagoleak halere bazekien bere azpian lotan zegoena ez zela zoriontsu.

Bortitza izan zen azken erasoa. Gogorra. Herria benetan akatu zuen erasoa izan zen. Bakarrik geratu ginen. Ihesean joan ginen. Alde egin genuen, uluak entzun orduko, leize honetan babesteko. Denboraren poderioz, babesleku bihurtu dugun leize honetan babesteko. Herria husten ikusi

genuen, mendiaren begi honetatik. Herritarrak kate luzeetan preso zeramatzaten eta haurrak negarrez ziren, korrika zebiltzan amen besoetan. Bakarrik geratu ginen, geratzen ziren auzokide apurrak hilda. Eta gu begira, begira leize honetatik. Haitzperen sabelean bakarrik. Aspaldiko menderen batean hasi eta hezitako herria hutsik geratu zen.

Gau izartsu batean ilargiak emeari zer gertatzen zitzaion egin zion galde. Gaueko amandrearentzat harritzekoa zen erantzuna. Arra behar zuen emeak, eguzkia nagusi zen bitartean, inoren laguntasunik gabe gauaren esperoan egon ez zedin. Ulergarria izan zen amandrearentzat, ulergarria oso. Eta lagunduko ziola, lagunduko ziola eta arra ekarriko ziola. Hori esan zion ilargiak emeari. Ekarriko ziola lagun bat, egunez ez ezik gauez ere alboan izango zuen ar bat ekarriko ziola eta bien loaren zaindari izango zela. Ametsen gidari izango. Hori esan zuen ilargiak. Trukean aldiz, eskari txikia egin zion.

Ipuinaren zati honek beti harritu izan nau, lehenengoz entzun nuenetik harritu izan nau. Hori amak ondo zekien eta konta nezan eskatzen zidan, gelako epeltasunean irribarre batekin. Jarrai nezan ipuina nik, banekiela ondo. Banekiela ipuinak nola jarraitzen zuen.

Ilargiak, emeak eta arrak egindako lehen kumea berarena izango zela esan zuen. Eta onartu emeak, lehenengo umea berarena izango ez zela onartu. Denbora gutxira, ikatzaren koloreko ar bat ezagutu zuen eta kumea ere egin zuten. Lasai jaio zena, munduko denbora guztia bere eginda. Aita kezkatuta zebilen. Kumea zuria zen argia bezain zuria, egun eguzkitsuetan urdintasuna apurtuz agertzen diren hodeien kolorekoa. Kumearen aita bera ez

zela leporatuta emea mendira eraman eta akatu egin zuen, inungo arrazoirik gabe akatu zuen.

Ipuina asmatu zenean ere ez omen zen akatzeko arrazoirik behar. Gaur ere ez. Nahiko arrazoi da defendatzea, etxea defendatzea, seme alabak defendatzea akatua izan zaitezen.

Amaren gorpuaren besapean utzi zuen kumea eta korrika alde egin urrutira, beste lekuren batera, ezin eramandako zama gainean zeramala. Kokotean kolpatzen.

Gaua iragan zen eta eguzkia bueltatu. Amak mendiaren besoetan jarraitzen zuen arren, kumea desagertua zen, beste munduren batera eramana. Beste bizitza batera, bizitzeko jaio zen bizitzara. Amaren sehaskan oheratua zen. Ilargi amandreak prest zuen sehaskan. Horregatik hilgora edo hilbera denean ilagirkumea negarrez egoten dela esaten da eta ilargiak sehaskan kulunkatzen du goxo goxo, lo egin dezan, amaren besartean lokartzen nintzenean bezala. Bekokian muxua ematen zidan ondoren, puzkada batez kandela itzali eta ohetik irteten zen ohearen kanpoko hotzak gorputza freskatzen ziolarik. Masaila igurtzita lo nengoenaren ustean atetik irteten zen.

Hamar urte dauzkat eta Ekhi deitzen naiz. Kima daukat ahizpa, lau urteak beteta dituen sorgintxoa. Aitita amamen baserria dugu bizileku. Etxeko zein kanpokoentzat ateak zabalik dituen baserria.

Herriko azken bizilagunak gara, hala esaten dit amonak lotaratzean. Hirurok elkarren ondoan etzutean, lurretik isolatzen gaitun zapiaren gainean etzatean. Asko maite du-

gun herrixka da gurea, asko maite duguna. Baina geu gara azkenak, geu gara herriaren hondar.

Leizeak egin du topo gurekin, teilatu bilakatu da guretzat, babesleku. Orduak eta orduak daramatzagu hemen, akaso egunak ere bai.

Gurasoek herritar askorekin batera korrika alde egin zuten otsoen uluak entzun bezain laster. Oraindik ere aditzen ditugu otsoak urteetan aditu izan ditugun bezala, horregatik gaude hemen. Haitzaren ahoan gaude, Haitzperen zainetan. Ezkutuan. Herriaren gainean aske hegan egiten duten arranoak ekaitz gogorrean ezkutatzen diren antzera. Tximistetatik salbu, trumoietatik urrun. Denboraren poderioz sortu dugun babeslekuan ezkutuan, mendiaren zulorik sakonenean.

Herritarrak preso eraman dituzte beste leku batzuetara. Leku urrun eta ilunetara. Defendatzeko aukerarik gabe. Borrokatzeko tresnak besoetatik tenkadaka kenduta.

Aitona orain dela lau hilabete lokartu zen eta lo daudenentzako logela den leizean oheratu genuen. Oso borrokalariak omen ginen, hala esaten zuen aitonak jatorduetan. Borrokalariak ginela oso. Eta harro geundela, oso harro gainera, hala zioen behinik behin. Bizirautea bihurtu zaigu borroka, baina harrotasuna dugu galdu.

Orain dela lau hilabete lokartu zen aitona eta lo daudenentzako logela den leizean oheratu genuen. Musua eman zion amamak bekokian eta hari imitatuz Kimak eta biok ere musua eman genion. Leize handia da, ur jauzi txikia dauka barruan eta honen kantu etengabeak goxotzen eta epeltzen du zuloaren iluntasun eta hotza. Noizbait

lokartu zirenak daude hemen oheratuta. Denak batera. Bata bestearen ondoan jarrita.

Gainerakook baserrietan bizi gara. Beno, besteok baserrietan bizi ginen. Hala zen. Gaur preso garamatzate herritik urrun. Gaur akatu egiten gaituzte herrian bertan. Otsoek. Lepoan kolpatuz lurrera erori arte. Lokartuak ere ez dira leizean oheratzen, piztien eskuetan hiltzen dira. Bitartean herria hustuz joan da. Gurasoek ihes egin zuten beste askorekin batera eta gainontzekoak lokartu egin dira, lokartu eta preso eraman.

Azkenak gara gu. Egun batean, harrapatuko gaituztenerarte ezkutatzen jarraitzen dugu eta jarraituko dugu.

Larreak belar luze eta gaiztoz pilatzen ari dira. Artoa gero eta urriagoa da eta kaleak hutsik. Ixilik egon ohi gara egun luzean zehar. Otso uluei adi. Inork esateko ezer ez balu lez. Eta denbora aurrera eta herria gero eta lokartuago, gero eta lo sakonagoan murgilduta.

Umeok ez dugu jolasten. Aspaldi galdu zen jolasa. Ezkutatzea bihurtu da eguneroko jolas eta ogi. Uluak aditu orduko amamaren begirada galdu egiten da. Kima besoetan hartzen du. Korrika baserritik alde genuenean bezala, urteetan gure aterpea izan den etxetik, korrika atzera begiratu gabe. Gauaren iluntasunetik eta neguko hotzetik babestu gaituen aterpetik. Baina oraindik ere haren so gaude esku eta oinak epeltzen ez dizkigun arren begirada digu goxotzen.

Bitartean ezkutalekuan bilatu dugu babesa, hirurok elkarrekin. Hirurok ixilik inork esateko ezer ez balu lez. Begirada aurrean dugun herrian galduta.

Honela, bada, pixkanaka-pixkanaka agortuz goaz. Honela, bada, esaten dit amamak herriko azken bizilagunak garela. Ohiturak galtzen ari diren azken bizilagunak garela. Elikagaiak galtzen ari diren azken bizilagunak garela.

Eta zuri, irakurle, narrazio hau utzi dizut. Horregatik idazten dut hemen. Testigantza izan dezazun. Narrazio hau utzi dizut, hemen izan garenaren testigantza har dezazun. Jakitun izan zaitezen, izan ginela eta geundela. Zuk irakurle, zarena zarela, jakin dezazun sustraiak non dituzun. Zuk irakurle jakin dezazun irakurtzea lortu baduzu hilik ez garenaren seinale dela, bizirik darraigunaren seinale. Zuk irakurle, irakurtzea eta ulertzea lortu duzun narrazio hau, hilik ez naizenaren seinale dela, bizirik darraidanaren seinale eta borrokan darraidanaren seinale. Horregatik idazten dut hemen, irakurle, ondokoari esan ez diezaiozun "ez da sinestu behar; ez direla ez da esan behar"

Kima esnatu da eta begiak igurtziz begira geratu zait. Jauzi batez jaiki da. "Goazen etxera" esan du "iluntzen ari du". "Zatoz nire albora, zatoz". Beso artean hartu eta etzan egin dut, amamaren eta bion erdian etzan. Bizkarra nire bularraren kontra jarri eta haren ipur masail hotza nire sabelaren kontra. Eskua luzatu eta besoa oratu diot, leuna eta estua. Burua altxatu dut bere begiradaren noraeza ikusteko asmoz. Lotan da, udaberriarekin ametsetan nonbait, leizearen garraztasunean. Besoa luzatu dut Kimaren gainetik eta amama heldu. Musua eman dit eskuan, ezpain morez eman dit musua eskuan.

Lokartu egin da amama. Kimak sakon arnasten du. Nekatuta gaude. Hezetasun honetan nekatuta. Indarra galtzen goaz. Amama itzaliz doa eta Kimaren aurpegia gero

eta zurbilagoa da. Orduak baineran, ur berotan, egon izan bagina lez tximurtuta ditugu eskuak eta oinak. Tantek bustitzen dute etzaten garen zapia eta gero eta sakonagoa da gure loa. Ikara ematen dit gutako bat lotan geratzeak. Ikara berriro ez esnatzeak. Horregatik laztantzen ditut amama eta Kimaren masailak; berotu daitezen, beroa gal ez dezaten. Leizearen hezetasunak tanta bihur ez dezan haien azala. Lo geratu dira, baserriaren errautsei oraindik kea dariela. Lo geratu dira bizitzaz nekatuta. Geldi egoteaz nekatuta.

Lozorroak hartu nau, eta lokartu egin naiz. Loaren izarak estali gaitu hirurok, noizbait oilarrak esnatuko gaituen arte, denbora luzez bustita izandako esku eta oin hotzekin loak gidatu gaitu ametsen mundura. Noizbait esnatuko garen arte. Noizbati, akaso esnatuko garen arte.

Mendiaren sabelean, lur hotzetik isolatu nahi zituen zapiaren gainean, elkarren ondoan, ezpain morez apainduta bata bestea besarkatuz, zeuden lo. Mendeak eta mendeak zain egon denaren tristura nabari zitzaiela aurpegian.

# Piratak eta piratak daude

Nerea Eizagirre Telleria
Zumaia institutua
Zumaia

Olentzerok opari ekarritako DVDa ikusten bukatu berri dut. Asko gustatu zait, baina ez ikaragarri, eta hori arraroa da. Marrazki bizidunak biziki atsegin baititut, ia-ia amonaren etxeko txokolate beroa adina. Marrazki bizidunak ikaragarri gogoko ditut. Baina piratak ez, eta pirata larregi agertzen zen pelikulan. Piratak dira, bada, gure etxeko porru-saldaren gisakoak, gorrotagarriak.

Izan ere, egun argitan, partxea begian, bogan dabiltzan beste itsasontzietara jauzi egin eta besteen dirua lapurtzen dute. Inor oldartzen bazaie, gainera, gupidabako gatibu hartu, eta marrazoen bazkaltzeko ordua iristen denean itsasora jaurtitzen dute. Gaua, berriz, rona eskuetan, hankapaloek markatutako *konk-konk* erritmoan igarotzen omen dute, kantuan, festan. Amonak beti errepikatzen dit ez dela besteen errukiaren mende, ezta besteen kontura ere bizi behar. Piratak, berriz, itsas hondoan amaitzen duten gizagaixoen bizkarretik bizi dira. Zorriak dira piratak, trabuko handia eskutan duten zorri alenak. Akaso piratek ez dute amonarik izango.

Ikusi berri dudan pelikulan hamaika agertzen zen. Baina bat, *Garfio* delakoa, munduko porru-salda guztiak aldi berean irenstea baino nazkagarriagoa iruditu zait. Ez diot berehalakoan nire dortoka berriari *Garfio* izena jarriko. Berak, bere zilarrezko garfioa altxatu, eta denak amenka jartzen zituen, gure andereño Arantxak “ixo!” esaten duenean bezalaxe. Ditxosozko kapitainak zilar puska erakusten zuen bakoitzean, bazirudien txotxongiloak mugiarazten dituzten hari-muturren jabe egiten zela. Gure andereño Arantxa bezalakoxea zen *Garfio*, “autorit…” ez dakit zer. Baina zilar gehiago zuen *Garfiok*, andereñoak baino askozaz gehiago.

Osterantzean, gustatu, asko gustatu zait pelikula, piraten pasarteak kenduta betiere. Ikaragarri gustatu zait berdez jantzitako mutiko pinpirina, *Peter Pan* delakoa. Eguna eta gaua bere laguntxoekin olgetan igarotzen zuen *Nunca jamás*eko herrialde bitxian. Gurasoei esan diet *Benidorrera* joan ordez, hara joan nahi dudala oporretan. Bai, aurreko urtean ere esan nien *Porrabenturan* zorabiatu nahi nuela, baina oraindik ez dut hango lurrik zapaldu. Horrelakoak dira gurasoak, aspergarri hutsak. Horrexegatik ez dut sekula santan guraso izan nahi. Ez dut zahartu nahi. Orain arte uste nuen ezinezkoa zela, baina *Peter Panek*, mutikotxo pinpirin horrek, erakutsi dit oker nenbilena. *Peter* hori ezagutu beharra daukat. Betierean zortzi urte izate hori probatu beharra daukat. Bere alde txar bat badauka, ordea. Ziur asko *Petertxok* ez baitu urtemugarik ospatuko. Koitadua *Peter,* urtebetetze eguneko txokolatezko tarta barik! Ai, ahaztua nuen! *Peter Panek* gainera, hegan egiten daki. Esango nuke, hegan egiten jakiteak mila txokolatezko tarta aldi berean jatea baino gehiago merezi duela. Eta *Peterrek* hegan egiten daki, hankarik lurrean jarri gabe eskuekin

haizea orrazten. Pentsa zeinen paregabea den orlegizko mutikoa, gure amonak ere ez baitaki hegan egiten. Eta gure amonak dena daki, den-dena. Beno, hegan egiten izan ezik. Eta ez zahartzen ere ez daki. Horrexegatik diot *Peter Pan* ezagutu beharra daukadala. Inoizko, betiereko, adinbako izaten irakats diezadan. Eta bide batez, hegan egiten.

Orain, telebistari begira nago. Iluntzero bezala, gurasoek hartu dituzte telebista mugiarazten duten hari-muturrak, eta 1a zanpatuta, *teleberri* aspergarri, luuuzee hori jarri dute, egunero gisan. Bla, bla, bla, ari da aurkezlea. Ni berriz, hasperenka, ni ernegatuta, “adinik ez duen pirata” aditu dudan arte. Horrelakorik aditu bezain pronto ordea, *ttak* luzatu dut belarria. Orduan hasi dira *Alakrama* ez dakit zer gora, *Sonalia* badakit zer behera. Ulertu dudanaren arabera, pirata beltz gaizto batzuek arrantzale zuri on batzuk gatibu hartu omen dituzte. Malapartatuak halakoak! Esaten dut, bada, nik, nahiago dudala mila kilo porru-salda jan, pirata horietako batekin topatu baino. Baina, “adinik ez duen pirata” horrena ez dut ondo ulertu.

*Mister Beanen* antza duen eta telebista barruan bizi den gizon hori hasi da hizketan gero, eta harro esan du adinbako den pirata horren adina jakin arte ez dutela hura askatuko. Hau nahaspila! Adinik ez badu, *Peter Panen* lagun horietako bat izan behar du nahitaez, *Nunca Jamás*-eko gaztetxoren bat. Bestalde, *Mister Beanen* antza duen horrek, eta teleberriko aurkezleak, bi-biek argi esan dute pirata dela. Baina hori ez da posible. *Peter Pan* eta bere lagunak ez dira piratak. Eta *Nunca Jamas*ekoak ez diren gainontzeko guztiek, berriz, ez dakite adinik ez izaten. *Mister Beanen* antzekoa isildu egin da. Teleberriko aurkezleak, berriz, “terrori…” ez dakit zertaz hitz egiten jarraitu du.

Biharamun arratsaldea iritsi da. Amonarekin sukaldean eserita, txorizo-ogitartekoa eskuetan dudala esan diot zerbait garrantzitsua, oso-oso garrantzitsua galdetu behar diodala. Amonak zeharka begiratu nau, beldurtu xamar. Bezperako istorio guztiak kontatu dizkiot. Hasi naiz *Mister Beanen* biki aspergarriaren erretolika kontatzen, ikusitako *Peter Panen* pelikula, eta bestelakorik. Baina batik bat, “adinbako pirata” horrez hitz egin diot. Malkoa isuri ez isurian aitortu diot amonari nik *Peter Pan* bezalakoa izan nahi dudala, adinbakoa, betiereko ez-heldua. Baina bestetik, esan diot gorroto ditudala piratak, porru-salda baino askoz ere gehiago. Amonak badaki zeinen amorragarri zaizkidan porru-saldak, eta hori aditzean, esango nuke amona larritu egin dela, hasperen sakon bat egin baitu. Nik, gero eta etsiago, esan diot jada ez dudala ezer ulertzen. Baina nik, *Peter Pan* gisan, adinbako izan nahi dudala. Baina nik, gorroto ditudala piratak.

Mundua hitzetik hitzera are azkarrago amiltzen ari zaidan honetan, amonak bere magalean tokitxoa egin dit. Lehendabizi, esan dit *Peter Pan* DVDan ikusi izanagatik, ipuina dela, txikitan orri artean irakurtzen zidan hura bezalakoxea. Eta ipuina dioenak, “fantasi…” ez dakit zer dio amonaren arabera. Gero esan dit ipuinetan pertsonaia gaiztoak eta zintzoak agertzen direla maiz. Esan dit, izatez, onak ez direla horren onak, eta txarrak, berriz, ez horren txarrak. Idazleak berak ematen omen dio bakoitzari izena, eta berak nahi dituen gisan margotzen omen ditu irakurleen begietan. Hobeto ulertzeko, amonak esan dit txotxongiloak mugiarazten dituzten hari-muturrak idazleen eskuetan egon ohi direla. Uneoro pertsonaiek egiten dutena eta guri irudikarazten digutena, idazlearen irudimenaren ondorio baino ez omen da. Amonari galdetu diot ea idaz-

leak andereño Arantxa bezalakoak ote diren, pertsonaiei "ixo!" esan eta hauek brastakoan isiltzen ote diren.

Hitz eta pitz jarraitu du amonak, eta hala jarraituko luke, *Mr. Beanen* antza duen horrek aipatzen zuen "adinbako" pirata horretaz galdetu izan ez banio. Amona hasperenka hasi da orduan, hori gaitza omen da ulertzen, eta zahartzen naizenean *Mr. Beani* buruz eta "politi…" ez dakit zeri buruz hitz egingo didala zin egin dit. Baina oraindik gazteegia eta inozoegia omen naiz gurasoen kontuak ulertu ahal izateko.

Ogitartekoa amaitu ostean kalean olgetan aritu naiz lagunekin. Sekulakoa izan da. Gaur, lehenengo aldiz hegan egin dut. Bai, dilin-dalanean nenbilen, eta zerua ukitzeraino bultzatuko ninduela esan dit nire lagunik minenak. Halaxe egin du. Orduan airean atera naiz zabutik, zerua ukitu dut, beno, ia-ia ukitu dut, eta gero hegan egin dut. Une laburra izan da, baina hegan egin dut. Lurreratzea apur bat hobetu beharra daukat, zartako handi samarra hartu baitut lurraren kontra. Baina, hegan egiten nuen lehenengo aldia izateko, ez dut horren txarto egin, eta lasai, hobetuko baitut amaierako lurreratzea. Horrela jarraituz gero, *Peter Pan* ezagutzerako bera bezalaxe jakingo dut hegan egiten.

Gero etxera etorri naiz. Aitak eta amak larrituta agindu didate astoarena berriro ez dezadan egin. Izatekotan, txoriarena izango dela ihardetsi diet nik, eta lasai egoteko, berehalakoan hobetuko baitut lurreratzea. Amaren alboan eseri naiz aitak buruko zauria sendatzen zidan bitartean. Egunkaria irakurtzen ari zen ama, eta orriak pasatzen ari zen horretan *Mr. Bean* eta "adinbako pirata" ikusi ditut

tartean. Etsi samar egunkaria zarratu duenean, amari galdetu diot ea orri horiek zer kontatzen ote duten. “Ipuinak, txiki, ipuinak”.

Ekilikua! Orduantxe jabetu naiz albisteak gurasoentzat idatziriko ipuinak direnaz. Egunkariak eta telebistako albistegiak idazten dituzten horiek idazleak bezalakoak izango dira. Beraiek mugituko dituzte txotxongiloak mugiarazten dituzten hari-muturrak, eta horrela, pertsonaiei nahi dieten izena jarri. Esaterako, itsasoan beste itsasontzietara diruaren peskizan jauzi egiten duten gizaki beltzei pirata deitzen diete. Pirata beltzon herrialdeak ustiatzen, lapurtzen dituzten gizaki zuriei, aldiz, negozio-gizon. Noski, lapurrak eta lapurrak daude, piratak eta piratak. Donutsak bezalaxe. Batetik, donetesak ditugu, donutsak direnak, bai, baina donuts nimiñotxoak, sasidonutsak. Eta bestetik, donutsak daude, benetakoak, handi-handiak, estalkirik zuriena jarri izanagatik donuts potolo izaten jarraitzen dutenak.

Denok dakigu, 8 urteko guztiok bai bederen, piratak goitik behera dotore janzten direla. Horrexegatik diot piratak eta piratak daudela. Donutsak eta donutsak dauden bezalaxe. Izan ere, zarpail-zarpail jantzitako “pirata adinbakoa” eta *Alakrama*ko bere laguntxo beltz horiek guztiak, asko jota, asko-asko jota, sasipirata izango dira. Aldiz, gurasoentzako ipuinetan hainbestetan agertzen diren trajez jantzitako gizaki, gizonezkoak batik bat, horiek guztiak argi dago piratak direna, benetako pirata. Bai, *Mr. Beanen* antza duen beste hori, eta “G8”ko bere kuadrila hori guztia bezala. Dotore-dotoreak, gure amonak esandakoaren arabera galtzontziloak ere urrezkoak ei dituzte. Eta urrezko galtzontziloak dituztenak, piratak nahitaez.

Nabarmena da egunkariak asmatzen dituzten idazleek izenik zuriena jartzen dietela donuts potoloenei, irakurleei nahi dietena irudikarazteko, baina, hala ere, katamalorik zuriena jantziagatik, piratak ezin ezkuta dezake bere pirata izaera. Piratak beti pirata.

Azkenean, arrazoia zuen amonak, betiko lez. Hark esan bezala, ipuinetan, eta gurasoentzako ipuinetan, zintzoak diruditenak ez baitira horren zintzoak, eta gaizto antzerakoak, berriz, ez dira hain gaiztoak. Izan ere, gure amonak dena daki. Beno, dena ez. Ez daki hegan egiten. Eta hegan egitea da kamioia bete gominola etxe parean aurkitzea baino hobea. Zorionez, gaur arratsaldean ikasi dut hegan egiten nik. Oraindik teknika apurtxo bat hobetzea falta bazait ere, lurreratzea apalxeago egiten ikasi bezain pronto hegan egiten irakatsiko diot amonari. Eta gero, biok hegan joango garen batean, “politik…” ez dakit zeren kontu hori azal diezadan erregutuko diot. Azken batean, ipuinak ulertzen baldin badakit, “politk…” horren kontu hori guztia ulertzea ez baita horren gaitza izango.

# Moonlight sonata

Beñat Irastorza Ugalde
Jakintza ikastola
Ordizia

*Adagio sostenuto*

*Pianissimo e molto legato*

Azken berrogei urteotan egin duen bezala, bazkalostean bere langelara joan da. Hirurogei urte baditu, gutxienez, begien aurrean duzun gizonak. Ile zuria du, herrena eskuin hankan, eta begi berde sarkorrak; bizitzak urraturiko egun, ordu eta minutu bakoitzak zuhurragoa egin izan balu bezala. Argia piztu du ezker eskuin dardaratiaz; eta gelara sartu da, inertziaz, ibai baten korronteari men eginez aurrera egiten duen beirazko botila baten antzera, larrialdi mezu bat daraman botila huts baten antzera.

Bere betiko aulkian eseri da beste behin, eta dena bere lekuan dela ziurtatu du: Ezkerrean ditu jada idatzitako orriak, eta eskuman beste aldean adina orri, zuriak, ordea. Erdian orri bakar bat, urratua, erabilia, zarratatua izatera itxaroten. Honen oinetara, bere Mont Blanc bolaluma; orain berrogei urte lehen nobela idazteko erabili zuen berbera.

Bai, Claude idazlea da.

*Tema Principale*

*Marcato il canto*

Olgak bizkarra eman zion bere lankideari, eta gela utzi zuen, kafea eskuan; ahal bezain dotore ibiliz. Laugarren aldia zen lankide hark berarekin afaltzeko proposamena egin ziola; eta baita Olgak ezezko fier bat erantzun ziola. Baina ez pentsa gizon hura kazetariari gustatzen ez zitzaionik, ez. Atsegin zuen tipo hura, baina are gehiago atsegin zuen bere proposamen lotsatiak entzun, ezezkoa eman eta, berriz ere, beste eskaera herabe bati itxarotea. Garrantzizko sentiarazten zuen.

*Pianissimo e ritardando*

Besaulkiaren bizkarrean bota du bere pisua, atzerantz zabukatuz. Hori egiten du zer idatzi ez dakien bakoitzean -baina gaur ordea badaki-. Atzera egin du so, hogei urte zituen garai hartara, eta bere hastapena birgogoratzen saiatu da. Paretan eskegita duen egunkari ebakinari begiratu dio.

> *Hogei urte bete berri dituen Claude Kohls idazle bonndarraren (Alemania) lehen liburua, "Malko ilunetan", izan da ale gehiena saltzea lortu duen liburua, marka historikoak hautsiz. Idazleak gainbehera jasaten ari diren nobela beltzen aldeko apustua egin du, bere burua krimen batean murgilduta aurkitzen duen detektibe baten istorioa idatiz.*

Nobela hura gogoratu du; eta ondoren idatzitako guztien oso antzeko dela esan dio bere buruari, berriz ere. Antzekoegia, bere iritziz. Baina *Bastian detektibeak* badu

zerbait irakurleari izugarri erakargarria gertatzen zaiona. Eta horretaz baliatu da azken berrogei urteotan Claude. Eta, zergatik ez? Jendeari nahi duena eman dio, eta berak diru ugari irabazi du. Eta funtsean hori da beste edozein lanen helburua.

Baina ez, Claude ez da ez ekonomista ez legegizona. Ez da irakaslea eta ezta metereologista ere. Claude idazlea da, eta ez dio jendeari nahi duena eman behar. Berak nahi duena idatzi behar du, barren-barrenetik datorkiona.

Horregatik iritsi da gaur eguna. Egun handia.

*A tempo*

Bere idazmahaian eseri zen. Eskua txukultzen ari zitzaion kafea mahaigainean utzi zuen, madarikazioka. Orduan ikusi zuen egunkariko nagusia bereganantz hurreratzen. Aurpegiera iluna zekarren benetan.

– Olga, izugarria da gertatu dena. Biharko egunkari azalerako honakoa idatz diezazun nahi dut…

Kazetariak kontu handiz entzun zuen gizon hark zioena, ahoa bete hortz.

– Emadazu ordu erdi bat, Roberts jauna.

*Pianissimo ma crescendo*

Tintaz bete du bere estilografikoa. Gero tinta potea gorde eta luma eskuaz inguratu du idazle ezkertiak. Ezker

eskuaz idazten duenez, oso keinu arraroa egin behar du lumaz idatziko badu. Baina horrek ez dio axola.

Wallace J. Bastian detektibearen hirurogeita hamabigarren pasadizoa izango da hau, eta azkena gainera. Bada garaia saga honi amaiera eman eta proiektu berri bati eusteko. Claudek bere literatura aldatu nahi du. Baina jakingo ote du?

Eskuin eskuaz ondoan duen leihoa zabaldu du une batez, eta Beethovenen jaioterriari begiratu dio. Segundo batzuez hiriaren musika ikusezina –eta entzunezina– aditzen utzi die bere belarriei. Gero mahaira eseri da, atzera.

Ezkerretara duen orri piloari begiratu dio memoria egiteko. Ia amaitua du nobela, baina zirraragarriena artean iristear dago. Eskuaz luma hartu du, eta orri zuriari eraso egin dio ausardiaz.

24

*EZUSTEKOAK*

*Orduan bere alaba bahitu berri zuen von Wortock doktore maltzurrak maskara zuri hura kendu zuen. Eta Bastian detektibeak ikaraz ezagutu zuen herriko medikua, morgueko burua, "hiltzaile misteriotsu hark" erraildako gorpuak aztertzen zituena. Urte horietan guztietan hilketa-aztarnekin nahi zuen bezala jolasten ibili zen.*

…

*Ritardando*

Olga bere burua ispilu horren aurrean negarrez aurkitu izanaz harritu zen. Ezusteko hark benetan hautsi zuen besteekiko azaltzen zuen betertz hotz hura. Gaztaro gogor

baten ondoren defentsa-mekanismo ugari barneratu zituen kazetariak, eta *apathia* estoiko bat zen horietako bat. Baina pertsona erreal bat zen, azken finean, sentimenduz josia. Ez zen harritzekoa negar egin izana.

Gero nagusiari ordu erdi barru artikulua amaitua izango zuela hitz eman ziola oroitu zuen. Komunetik irten zen, aurpegia mahukaz estaliz, inork negar egin zuela ikus ez zezan.

*A tempo ma diminuendo*

Idatzi berri zituen hiru orrialdeak gainbegiratu ditu eta eskuartean zerabilen eskema aditu du ondoren. Urte ugari igaro dira lehen nobelatik eta tarteka erantzunik gabe utzitako galdera eta korapilo guztiak argitu behar zituen. Horrela egin duela ziurtatzean, unea iritsi dela ohartu da.

*Orduan, doktoreak pistola bat atera zuen poltsikotik eta paretaren kontra inongo irtenbiderik gabe aurkitzen zen detektibea destatu zuen.*
*–Agur, Bastian -esan zuen Wortockek.*
*Eta orduan, irribarretsu tiro egin zuen.*

Claudek burua altxatu du, bat batean. Tiroa bere gelan entzun denaren sentipena du. Are gehiago, tiroak min eman diola zin egingo luke.

Eskua bularrera eraman du alarauka, eta gero begirada bat bota dio. Bertan ikusi du bala batek zizelkaturiko zuloa, arnasa hartzea astuntzen diona. Orduan, hainbestetan idatzi duen bezala, likido bat ateratzen hasi dela ikusi zuen. Oraingo honetan urdina da, ordea. Libre duen eskuaz ukitu egin du eta gero mingainaz dastatu.

Tinta da.

Oinazez, aulkitik altxatu da, telefonora iritsi nahian; baina erdibidean lurrera erori da. Bere gorputza minaren hari fin baina etengaitzek mugitzen duten txotxongiloa bihurtu da, eta lurretik dabil, geldo, baina arrastaka.

Uzkurtu egin da, bat-batean. Ezin dio minari eutsi. Idazmahairantz so egin du eta lurrean zehar utzi duen orban urdina aditu du. Inoiz ez zuen hainbeste tinta batera ikusi. Orduan, odolhusten -edo, beharbada, "tintahusten"-ari dela konturatu da; eta zerraldo geratu da lurrean, ahal bezain energia gutxiena gastatzeko, bizitzari azken laztana emateko, entzuten ari zaren moonlight sonataren *diminuendo e ritardando*arekin bat eginaz.

Apurka-apurka, bere gorputza eta bere izatea tinta soil bilakatzen diren artean.

*Molto ritardando*

Artikulua amaitu eta nagusiari bidali zion.

*Claude Kohls*en idazlumak ez du gehiago idatziko *Olga Kohls*

Bart hil da, bere etxean zela, artean identifikatu gabeko arma batengandik tiro bat jaso ondoren. Adituek diotenez, ez da bala horrek utzi dizkion bezalako arrastoak utz ditzakeen armarik ezagutzen. Gainera, gorpua tintazko putzu batean omen zegoen. *(Artikuluaren jarraipena 57.or.)*

Gero, malkoak xukatu eta ahizpari deitu zion.

– Zera, Hannah, notizi txar bat dut zuri emateko… zera… aita… hasi zen negarrari eutsiz.

– Bai, badakit.

– Nola jakin duzu?

– Aitaren bolaluma azaldu da nire idazmahaiaren gainean, odolez kargatuta. Eta jakin egin dut, nolabait. Musika jarri eta negarrez eman dut goiz osoa.

– Zer entzun duzu? –galdetu zion ahizpa zaharrenak, jazoera lazgarriari pisua kendu nahian edo.

– Beethovenen *Moonlight sonata*.

# Athlas bezala

Aitor Lizardi Ituarte
Mutriku institutua
Mutriku

# I

Margo berde hileko muskerra zerorren aitzineko garezurrean barna dabil, gora eta behera, sudurretik sartu eta buruko zulotik jalgitzen, belarriko zulotik barnatu eta, burezurrak berba egiten hasteko ahoa ireki duenean, ahotik ateratzen. Begi-zuloak hutsak izanagatik, dirdai berezi bezain ilun bat igortzen dute, begi-zuloen barren barrenean aho bat bailegoen, zeuri barre eta barreka. Entzun egin zenezake. Isilduko ahal da, nardagarria…

Batel tipi baina sendo batean dago hezurdura, marinelen jantzi azulak soinean, *jin zaitez nirekin* begietan zeniezaiokeela endelega, eta zuhaur, bere aitzinean, lur sendo eta arrailduan, berriro bidaia bera egiteko asmoz, ostera betiko burezur muskerdunarekin solasean, betiko grina zainart bera soin barneko gordelekurik ezkutu eta ilunenean. Pentsamendu horiek guziak zeure burutik ihes egin ostean, poliziak gibeletik jarraiki dituzten gaizkileak bailiren, izeki da iretargi gorria gauero legez, gaueko landa

zabaletan dautzan belar unatuen oinen azpian gordetzen den mundu guzia argituaz.

Dotore zaude gaur, traje elegante aratz hori soinean daramazula; nehoiz ez zaitut hain dotore ikusi, zer dela eta? Gaur ikusiren al duzu, bada, azkenik, horrenbeste denboraz aiduru izan zatzaizkiona? Gaur ikusiren al duzu, bada, nagusia, jada lagun duzun hezurdura hozkil xarmant horren ugazaba? Dotoreegi zaude gaur, gauza onerako…

Musua, eskuak… soin guzia garbirik daukazu. Nola? Hain garrantzitsua al da ba gaurko zita hau, antzina izan guziak baino garrantzizkoagoa? Hagitz ontsa zaindu zara, zinez, baina oraindik zeure aurpegi zurbilegian jarraitzen dute betazpi beltz horiek, eta bertan jarraituren dutela dirudi gainera, ez dira nehorat joanen…

*Jin zaitez nirekin* berresan dizu, begi barneko barre horiek iraungi barik, eta zuhaur, betiko bidaia egiteko asmoaz, iretargi mortuak argitzen duen eremu zabal horretako ugazabarengana jotzeko gogoz, jada segur ahantzia izanen duzun mesedea eskatzeko azkenik, batel nano horretara igan zara, zeu gidatuko zaituen hezurduraren albora. Baina egunerokoa da bidaia, egunero gidatzen zaitu eskeleto ahats horrek, baina nehoiz ez zara ugazabarengana iristen, nehoiz ez…

Veneziako gondolaria bailitzan dabil, arraun bakarra eskuetan, hezurdura negargarria, batela ibai horretan barna eroaten. Zuk, bitartean, lurralde arrotz baina ezagunegi horri so degiozu, hormei, sabaiari, lurrazpiko kobazulo infinitu bat dirudien eskualde maltzur horri guziari, eta suaren eskuak horma zein sabai guziak ferekatzen dituela dirudi, dena gorria, sutsu ikusten baita, baina ez, ez dago nehon

su zuzirik. Gorria igartzen da airea ere, apur bat berdea ere bai, ibaira erori den sugandila berde hura lurruntzean airean geratu baita bere gorpua, airean eternitate osoan, baina gorria gehienbat, beroak ekarria balitz bezala. Bai, bero ikaragarria sumatzen duzu, ez dezakezu arnasa ontsa har…

Ez zara ongi sentitzen, ezta? Denei pasatzen zaie horixe bera, normala, baita zeuri ere eguna joan eguna jin… ez ezazu ezetzik esan, aise erakusten baituzu zeure burua batelean luze botata duzula, ibaiari so, bero ikaragarriaz lurruntzen ari den ibai gorriari. Odola daroala dakusazu, noski, zer zeroala uste zenuen bada? Norena ote da? Berdin dio, gehiago erakartzen zaituzte beroak odolean duten eraginek, sortzen dituen burbuilek. Plot! burbuila bat sortu eta han doa, sabai gogor malkarreraino, barnean zerbait izkiriaturik dutelarik; zeuretzako izanen da ausaz “ez” hitza, behin eta berriz, burbuila guzien barruan, zeure aitzinetik pasatzen baitira…

Guti falta zaizu ibilbidearen amaierara iristeko, odoljausi ikaragarria jaitsi eta aurrean izango duzu etxea, gora eta behera dabilen hura, uzkurtuz eta laxatuz, gelditu barik. Baina zertan ari da hezurdura, odola daroan ubidera salto egin eta batela zulatzen, begi zuloetako barrearekin agur esanez? Eskutik heldu diozu baina hauts bilakatu eta ihes egin du. Horixe egiten du hautsak, ihes egin. Bakarrik geratu zara eremu ezezagun horren erdian, bero, odol eta eskeleto beldurgarriaren aurrean eta, jada behean zeundela uste bazenuen, orain beherago zoaz, odoljausian behera, beherago oraindik, mundu guziaren pisua gainean daramazula, Atlas bera baitzina, baina indar inarrik barik; munduak zapaldu zaitu jada…

## II

Soina izerditan, bihotzaren erredoble gero eta bortitzagoaz, begiak lauso eta eskuak ahats haikatu haiz, salto batez, maindireen petik. Gauero-gauero amets bera. Horregatik zuan eskualde hura arrotza bezain ezaguna!… Isiltasuna… Auzokoak hire bihotzeko rock kontzertuko lokala hosgabetzeko kexuka ari dituk, eurek zarata handiagoa igortzen dutela konturatu gabe…

Etzin haiz ostera ere heure ohean, japoniarra ez haizen arren horixe baita hirea. Baina ezin hazake loak berriro har, karrika bazterrean datzan farolaren argiak bete-betean joten hauelako izanen da apika, goiko pisukoari bainerako txorrota hestea ahantzi zaiolako ostera ere ausaz, edo garunak, heure estatu diktatorial partikular horretako buruzagiak, berriz aitzineko ametsa ez egiteko loa galarazten dialako agian. Edo denaren batura maltzurra. Edo munduaren konspirazioa gaur ere lau oren baino gehiago lo egin ez ditzaan.

Hiri hilak iruditu zaizkian arren, ordubete ere ez duk pasatu esnatu haizenetik eguzkiaren lehen errainuek musua busti diaten arte. Galtzontziloak jantzi eta ohetik jaiki haiz berriro, lehen bezala, egunero bezala, sekulako loguraz, heure bihotzaren mezua aurpegiaren keinuaz azaleratuz, itsaso amaigabeak bere magalean daraman mezudun botila bezala.

“Zergatik egin huen? Zergatik joan hintzen? Zergatik joan hintzen?” daukak buruan, baina ez eman buelta gehiago horri, joan egin zuan eta kito, bukatu zuan haren denbora, biziak aurrera jarraitzen dik. Baina hihaurrek ez, agidanez.

Beti berdin. Esnatzen haizen bakoitzean berdin egiten duk: tumorez beteriko pentsamendu horiek ukan eta, lasaitzeko, etxean barna batera eta bestera ibili, pentsamenduek itsatsi diaten minbizia kentzeko asmoz, kimioak falta zaizkianez komuneko altzariaren barrenean gorderik duana ateraz. Jada ahantzi egin al zaik atzokoa? “Gehiago ez, gehiago ez…” esan huen, bai, segur nagok gogoan duana, baina zergatik ez huen orduan komunetik behera bota? Gaur berriro hartzeko asmoa huen, ezta? Hautsa komuneko tapa gainean jarri eta ttak, dena barrura… eskuaz alfonbra estutu duk, betazalak hertsitu dituk, garun diktadore horren eta bere tumorezko pentsamenduen aurkako beste atentatu bat eginez, elkarrekin auskan beti ere…

Haatik, gaur zerbait gaizki zoak, zerbaitek ez dik ontsa egin. Sabela orro bizian duk, bart bihotzean izaniko rock kontzertukoek sabelean segituko bailuten euren amaigabeko parranda. Komuneko tapa ireki duk, gainean zen guzia lurrean barna barreiatuz, eta komuneko uretara oka egin duk, saskar. Amaitzean, istant batez herorren okari so geratu hatzaio eta heure iduria erakusten duela igarri duk. Azken finean, ura eta oka hain ezberdinak ez direla pentsatu duk, biek islatzen ditek, azken batean, aitzinean jartzen zaien pertsona, urak, baina, soina erakusten dik, okak, ostera, begiak islatzen ditiztek. Eta orain hire begietan haragi tatoak ageri dituk, bart edaniko garagardoa, ile horail luzeegi eta madarikatu bat (argi zagok hori hor aurretik zegoena) eta, batez ere, marroia, marroi kolorea.

## III

Gaurko eki indarge eta ahalke horrek igorririko errainuek ez ditek kemenik hire aurpegira iritsi eta laztantzeko. Idorturik daukak, ondorioz, musua, baita beste hainbat

gauza ere segur, kalean barna habilela, esperantza tipi pixka bat idoro nahian, esperantza zuri apur bat. Txina heure buru barruan duala iruditzen zaik, hainbeste txinatar batera mintzoka, burua lehertu behar baitiate. Gabardina narras bat soinean, haren azpian deus ez duala jantzi ezkutatzearren, betaurreko beltzak, zeri soka ari hatzaion jakin ez dezaten eta, onar ezak, heure begipe ilun triste horiek nehork ikus ez ditzan. Txapela ere badaramak.

Goiztiar itzarri ei duk tranbia, heure albotik baita pasatu. Barnera begiratu duk *zeren bila habil? ez duk nehor aurkituren*, bartko zaparradaren anpulu lodiak daroatzaten beira izerditu horiek zeharkatuz begiez, eta eserleku guzietan neska bera ageri dela konturatu haiz. “Hets ezak ahoa, eta kontzentra hadi” diotsak garunak, aginduz beti ere. Aitzineko anderearen poltsari soka ari hatzaio, diruduna baita, holakorik gutitan ediren baituk eta, horrela, ausaz bihar ez baituk hau egin beharrik izanen. “Barkatu” berba bakarra, “Ez da ezer” ihardetsi bakarra; ez duk konturatu eta gurutzatu duk izkina jada. Ez zaik hire gibeletik segika etorri, inozo hura. Poltsa zabaldu eta ehun bat euro. Nahikoa, gehiago espero bahuen ere. Berdin ziok, gaurko bedaio baduk eta.

Pauso arinean habil, ia itoka, nehori begietara begiratu barik, ikus ez hazaten, baina alferrik, denak hihaurri begira zihardutek, denak heuri buruz mintzoka, munduaren erdigunea baihintz. Baina berdin ziok, eki indargearen izpiak gainean dituan teilatu zabal horietatik pasa ez daitezkeen karrika hertsi batera aldatu baihaiz, nehor ez dagoen batera, bueno bai, heu, bi deusgabe eta behialako lagun hura, bere izena ahantzi zaian hura. Hobeto esanik, ez, ez zegok nehor karrika estu horretan. “Betikoa” hik, “Hartzak” berak, heure musua bezain ahots idorrarekin, “Agurtu ere

ez? Noiz galdu hintzen, noiz bilakatu hintzen lehen ez hintzena?" garunak, "Ixo" hik, "Zer? Hemen daukak eskatua. Agur" heure konkordun lagunak, desertu mortuenetan ibilia zela kontatu eta orain, benetan, sinetsi egiten dioan hark; "Ona izatea espero diat!" hik, "Hala duk, eta orain laga bakean, hi lako aunitz ditiat zain eta" hire lagunak, eskularru zulatudun eta begi marroidunak. "Agur" mortu batekin agurtu duk, heure garun nardagarri horren aginduz, behiala hintzena izatera iritsiko haizen esperantzak baitituk bihotzean. Edo aspalditik erabili ez duan hitz exotikoa burura etorri zaialako izanen duk. Segur.

## IV

Komun aitzinean belauniko, sudurra ekinean, esku ahatsak izerditzen ari zaizkik. Eskuez alfonbra estutu, begiak hertsitu… Betikoa.

Beira sendoa zeharkatzen duen farol-argiaren maindirepean hatza, behegain sendo gogorraren gainean, argiaren eta lurraren artean erdibiturik eta atrapaturik. Hetsi dituk begiak, gaueroko ametsa errepikatzeko, biharamuna gaurkoaren berdina izango den itxaropenez. Bakarrik egonen haizela garuneko azken irudia, loak heu bortizki harrapatu aurretik.

## V

Harpe sutsu gori bero berean zaude orain ere, suaren eta odolaren erdian, lur arraildu horren gainean eta betiko eskeleto maltzur eta traidore beraren aitzinean. Noren antza duen galdegin diozu zeure buruari eta laguna etorri zaizu burura lehenik, beste milaka pertsona ostean, artean izango da ausaz. Edo hurbilago oraindik.

*Erdu nirekin* errepikatzen dute bere begiek behin eta berriz, baina, mirari batez ausaz, gogoan duzu azkeneko ametsean egin zizuna traidore zikin horrek eta, zeure jantzi elegante eta garbiez, aurrean duzun izaki etoi horri ebatsiriko barrea ezpainetan, bultza egin eta erail egin duzu hauts zurizko eskeleto nardagarria, bere partikula guziak odol gori irakinean lurrunduz deuseztatzen direlarik.

Pertsona bakarra justu-justu sartzen dela konturatu zara batel nano horren gainera igan zarenean eta azken amets erreal hartan biok nola kabitu zineten pentsatzen diharduzu inoiz ikusi beso kementsu eta indartsuenekin argiaren abiaduran odolezko ibaia zeharkatzen ari zarela Abiadura horretan odoljausi izugarria salto egin eta errekaren beste aldera iristea lortu duzu. Zinez beldurgarria izan da jauzia, baina ez duzu beldur inarrik sentitu, zeure begi iraungiek esaten didate. Zure begiek deusa besterik ez dute erakusten.

Ugazabaren palaziora sartzean, ostera, azalean izkiriaturik ageri zaizu ikara, uzkurtzen eta laxatzen ari baita, palazio eskerga hori legez. Askorik pentsatu gabe sartu zara barrura azkenean, eta nehor dagoenetz egiaztatu aurretik, sabaiari eta hormei begira geratu zatzaizkie. Dena biribila da, kanpotik ikus zenezakeen, baina ez zenezakeen nehola ere ikus barneko zuritasuna. Munduaren beste aldera salto egin duzula dirudi. Sabaia, hormak , baita lurra ere, dena zuria eta idorra, hauts zuri kapa lodi lehor batek hartua, konkistatua.

Aitzinera so egin duzu. Figura bat besterik ez dezakezu ikus. Hurreratu egin zatzaizkio, gero eta aurrerago zoaz, nor den jakiteko irrika eskergaz; zure begiek antzinatik ez

dute hain grinatsu dirdaitzen. Bihotzaren taupadek palazio idor horrenekin bat egin dute, gero eta bizkorrago, gero eta azkarrago… Iritsi eta, azkenik, heldu egin diozu, buelta emateko, atzera begira baitago –soina izerditan, eskuak ahats…–.

Han, zuhaurren aitzinean, behiala laga zintuen neska. Hauts zurizkoa. Panpina dirudi, ez daiteke higi. Edo ez da mugitzen, bederen. Soinean zenuen izerdi guzia begietara erbesteratu dela dirudi, negar anpulu triste baina xarmant eta gogotsu horiek musu guzia busti baitizute, baita aspalditik idorturik zenituen begipe ilun horiek ere. Behinola bilakatu da jada azken aldiz negar malkoak jario zenituen eguna. Malkoak isurtzean arima, tantaka-tantaka, isurtzen dela esaten da, eta barrua zein kanpoa garbi diezazkizuke horrek. Baina ez. Lehen bezala jarraitzen duzu.

Zure lehengo neskaren iduriari muxu oldartsua eman diozu, azkena, agur esateko, nehoiz ez duzula ahantziren esateko. Zure malkoak bion gorputzean barrena dabiltza, dena bustitzen, deus ez garbitzen. Muxua ematen ari zatzaizkiola, baina, gorputza aldatu egin zaio: adarrak atera zaizkio, baita buztana ere. Deabruaren iduria duzu aitzinean, lipar bat lehenago muxu eman diozun deabrua. Baina lasai, desegin egin baita, eta bere soina osatzen zuten hauts partikulak airean sakabanatu baitira, irteerako zoko guziak estaliz.

Orain hauts zuri idor eta gogorrak estaliriko palazio biribil batean zautza, negarrez, malkoek hautsa bigundu eta irteten lagako dizutela pentsatuz. Baina badakizu ezetz. Handik ez duzu nehoiz irtenen, bihotzak esaten dizu.

# Jaxintoren gorpua

Nerea Eizagirre Telleria
Zumaia institutua
Zumaia

Hiri handiko eraikin jendetsu bateko eskaileretan behera daroate Jaxintoren gorpua larrialdi zerbitzuetakoek. Txaleko distiratsua soinean duen erizain batek oinen aldetik eusten du esku-ohe hotza, beste erizainak, berriz, beste muturretik, buruaren aldetik. Bi erizainek kontu handiz eusten diote esku-oheari, portzelanazko panpinen bat garraiatzen ariko bailiran. Baina, izatez, ez luke garrantzi handiegirik izango eskaileretan behera lehenengo doan erizainak eskurik askatu eta Jaxintorenak izan ziren oin horiei lurrera jausten lagako balie. Edota, atzetik doan erizainaren axolagabekeriaren ondorioz, Jaxintorena zen buru hark lurra gogorki kolpatuko balu ere. Ez lioke axolako erizain biek gorpuaren zamaz zeharo nazkatuta, esku-ohetik askatu eta Jaxinto zena lurrera amiltzen utziko balute. Ez lioke axolako, gorpuek, gorputzek ez bezala, ez dutelako ezer sentitzen.

Halere, erizain biei ez zaie halako astakeriarik egitea otu, eta horrela, zintzo-zintzo ari dira jasaten gorpu hotzaren zama. Beherako bidean diren honetan, aldian-aldian auzo kuxkuxeroenen begirik hurreratzen zaie, txaleko

distiratsuek eta gorpuek berezko duten morboak erakarriak guztiak. Zirkoaren aurrean, harridurazko keinua egiten dute bizilagunek lehendabizi, segidan, asmakizunetara jolasteari ekiteko. Norena ote da esku-ohe gaineko gorpua? Baina asmakizunak ez du ahalegin handiegirik eskatzen, gorpua ezkutatzeko jarria duten estalki metalikoaren ertz batetik ile urdinduek egiten baitute ihes. Eta ile urdinduak pista handia dira.

Kostata, baina iritsi dira azkenean erizainak eta gorpua eraikin jendetsuaren ezkaratzeraino. Zimeltzear dauden loreen artetik bidea ireki dute, eta kale ertzean dauden beste hamaika begi kontakatiluren artetik igaro dira, azkenean, anbulantziaraino iritsi diren arte. Behin bi erizainak anbulantzia barruan daudelarik, kontu handiz askatu dituzte eskuak, eta gorpu hotzari anbulantziako ohe beroan eman diote atseden. Segidan, erizain batek estalkia apurtxo bat atondu du, eta gero, bi-biak kanpora irten dira. Inguru-mariotan dabiltzan suhiltzaile eta udaltzainei adio egin, eta erizain biak anbulantziaren aurrealdean sartu dira, bata bolantean, bestea alboan. Giltzari eragin, eta han abiatu dira ospitalerantz, Jaxinto zenaren azken hondarrak atzealdean daramatzatelarik.

– Hamalaugarren pisuko agurea zunan, ezta?

– Bai, elkarren segidan bizi gaitun… e… gintunan, bera D-n eta gu E-n.

– Ze trazakoa zunan?

– Ez ninan larregi ezagutzen, baina berezi samarra… gau eta egun bere ditxosozko lore horiekin-eta… gure semea jaiotzean ate joka azaldu zitzaigunan lore-sorta es-

kuan… gero alaba jaiotzean berdin… beti ditxosozko lore sortak oparitzen!

– Orduan bazenuten harremanik agurearekin!

– Baita zera ere! Esan ez dinat ba… tankera txarra sumatzen genionan. Hark lore-sortarik ekarri, eta guk zakarretara zuzenean, badakin, badaezpada ere… haren loreak eta diosal eztiak ez ditun, e… zitunan parte onekoak… Seme-alabei behin baino gehiagotan errepikatu izan zienat harengandik urruntzeko, bereziki alabari… Auskalo zer ibiliko zunan agure zerriaren buruan! –ikuskizuna bukatu berritan jende gehienak bere norabidea hartu du, atarian txortxorka gelditu diren atso biak izan ezik –eta bla, bla, bla, bla…

Hiri handi honetan, gainontzeko hiri handietan bezalaxe, inork gutxik jotzen du auzoaren etxeko aterik. Baina Jaxinto bestelakoa zen, hiriko Mariaxun, Exekiel eta Pepita guztien pastakoa. Horrexegatik, tartean-tartean, bere etxe bakartiko atea igarotzen zuen, bizilagunenekoa jotzeko, kox-kox. Han azaltzen zitzaien, lore-sorta eskuan eta margaritazko irria ezpainetan eusten zituelarik. Bueltan, berriz, “Gugandik zer nahi duzu?”, “Agure zoroa, ez hurbildu gure etxera gehiago!” eta gisakoak aditu behar izaten zituen bere belarri pare zaharkituak. Hiri handian garesti baitaude esker onak, biziki garesti. Baina Jaxintori, egia esan, ez zitzaizkion gehiegi axola bueltan jasotzen zituen mutur beltzak, azken batean, zoriona oparitzen saiatzeak alaitzen baitzion eguna.

Halere, irriak musu truk banatzeak baino ere gehiago, loreek egiten zuten zoriontsu. Jaxintorentzat loreak ziren, nola esan, sustraientzat lurra bezalakoxeak, ezinbestekoak.

Hatsik hartzen jarraituko bazuen gertu behar zituen loreak Jaxintok. Izan ere, urte mordoxkatan bere ogi izan ziren tulipak, arrosak eta lirioak. Bai, makina bat urte eman zituen Jaxinto zenak hiri handiko parke eta lorategiak kolorez janzten. Eta erretiroa hartu ostean, ogiak ogi izateari utzi bazion ere, Jaxintorentzat loreek ezinbesteko izaten jarraitu zuten, ogia bera baino nahitaezkoago.

Egunero-egunero egiten zien bisita bere kuttunei. Goizeko zortzietako kanpaiekin batera jaiki ostean, gosaltzen zuen, atontzen zen, eta gainontzeko goiz guztia lilitxoei oparitzen zien. Lehendabizi, etxe barruko pare bat gardeniari ematen zien edaten. Segidan, leporaino zegoen balkoi txikiegira jotzen zuen, eta banan-banan, kontu handiz, loretxo guztien egarriak asetzen zituen. Gero, igogailu estuan behera, eraikineko ezkaratzeraino jaisten zen. Hor, lagunik zorigaiztokoenak kontsolatu behar izaten zituen. Bati erretzaile axolagaberen batek botatako zigarrokina lorontzitik kendu, beste bati ume bihurriren batek mugitutako lurrak berdindu. Bebarruko lilitxo guztiak kontsolatu ostean, han igotzen zen berriz igogailu estuan. Hala, hosto artean, petaloz petalo, aisa igarotzen zitzaion goiza gure Jaxintori.

Bapo bazkaldu ondorenean, telebista kontakatilua pizten zuen, etxeko isiltasuna arrakalatzeko. Baina telebistako kontu purtzilak bostak bitarteko epea goxatzeko baino ez zitzaizkion. Egunero-egunero, arratsaldeko bostetan zita jarria izaten baitzuen agureak. Bai, garbitzen zituen ordezko hortzak leunkiro, orrazten zituen buru gaineko elurrak astiro, eta hala, prestu-prestu, bostak bost gutxiagotan, txistu hotsa ezpainetan zuelarik, igogailuan behera abiatzen zen. Igogailuan gizakiren batekin topa-

tzen bazen, gure Jaxinto beti hasiko zitzaien eguraldiaren misteriorik edo bestelako konturik kontatzen. Sarri, igogailuko kontutxoen trantze horretan, ordea, hiri handiko gizakien gizatasun ezak alaitasuna mingosten zion. Baina beno, igogailuko desengainuak atzean lagata, bebarruko lore leialei adio esan ostean, han abiatzen zen kalean barna eguneroko zitarantz.

– Eta nork eman din, bada, abisu?

– Ba… kale amaierako loradendako nagusiak. Lehen bost eta erdiak aldera sumatu dinat agurearen etxean ate joka eta agureari oihuka… Haren erantzunen faltan, larrialditakoei deituko zienan…

– Zer zunan, ba, bere senidea edo halakoren bat?

– Ez. Uste dinat agureak ez zuela ahaiderik hirian –eta bla, bla, bla, bla…

Jaxinto zena, bostak eta bi minuturako, kale amaierako loradendan izaten zen arratsaldero. Beti izaten zuen ilea ondo orraztua, eta kolonia usain apur bat, maiteñoarekin lehenengo zita edukiko bailukeen. Norbaitek pentsa lezake loradendako saltzaileren batentzat zela kolonia usaina. Baina ez, Jaxintoren ile apain eta kolonia guztiak arrosa eta tulipentzat, geranio eta krabelinentzat izaten ziren.

Jaxinto sartzen zen loradendan, agurtzen zituen saltzaileak, eta gero, bere eguneroko tertuliarekin hasten zen. Tulipa gorriei ea zer moduz zebiltzan galdetzen zien, edo arrosa arrosei bi aurpegirik izan ez zezaten gomendatu, “ala eder ala maltzur, baina biak aldi berean ez!”. Margarita koitaduei, berriz, laztan egiten zien, erruki zituelako.

Jaxintok ezagun zuen bitxilore guztien patua, gizaki duda-mudati baten eskutan petaloak banan-banan galtzea. Eta horrek tristura handia ematen zion Jaxintori. Baina beno, margaritak eta tulipak, lirioak eta daliak, denak maite zituen antzerako. Lore guztientzat zuen laztan eta eztizko hitzik gure Jaxintok. Eta bere patxadan, lili guztiekin kalakatxoa amaitu ostean, orduan hurbiltzen zen loradendako nagusiarengana. Kale amaierako dendatxo hartan loreekin berriketan denbora dezente ematen bazuen ere, Jaxintok arratsaldero izaten zuen tartetxorik loradendako nagusiarekin konpartitzeko.

Loradendako nagusia jatorra da, ez dirudi hiri handikoa denik. Lasai hitz egiten du, eta aldian-aldian, irririk ihesten zaio. Haurtxoei patxoak ematen dizkie ama fidagaitzen haserrerako, eta aitona-amonei, berriz, irteeran atea eusten die. Hiri handian desagertzear dagoen espeziekoa da, pertsona da. Dendara hurbiltzen zaizkion gehienek atsegin dute. Jaxintok ere atsegin zuen. Egia esateko, loradendara ez zen loreengatik bakarrik joaten. Hiri handian gizakiekin zuen hartu-eman bakarra zen Jaxintorentzat loradendako irri zabalarekin zuena. Bere pertsona-izaera mantentzen laguntzen zion nagusiak. Jaxintorentzat ukendua zen loradenda hura.

Baina orain, gogoa eta gorputzak naturak eraman dizkion honetan, Jaxintok jada ez du ukenduen beharrik, bakardadeak sortzen zion hutsunerik ere, jada ez delako existitzen. Orain, ordea, bestelako hutsunerik sortu da loradendan. Loreak hizketa leialen falta sumatzen hasi baitira, eta nagusiak ere, ai ene, zer edo zer badu barrenean, han joan baita Jaxintoren etxerantz pauso herabean, bere onetik irtenda.

Jada bazeramatzan pare bat aste eguneroko bisitari leialena ikusi barik. Eguna joan eta eguna etorri, eta loradendan ondo orraztutako ile urdin berritsurik ez nabaritzeak biziki larritzen zuen nagusia. Barrena kirioek hartua, gogoa okerrenean pentsatzen igaro ditu azken bi asteok. Gaur arte. Gaurko bostak eta erdietan, tripako minek loradendako nagusia, azkenean, Jaxintoren ateraino gidatu duten arte.

– Noiz ikusi huen azkenekoz?

– Ez zakinat, aspaldian ez ninan sumatu… Gainera, pentsatzen jarrita, azken bi asteotan bere etxetik kirats jasangaitza sumatzen zunan… eee… sardina ustelduen tankerakoa. Senarra joatekotan ibili dun, agurea Diogenesen sindromeak jota-edo egongo zen susmoz…

– Eta agureak zer erantzuten zinan?

– Ez, ez zunan hurbildu azkenean… badakin, auskalo zer aurkitzearen beldur… -eta bla, bla, bla, bla…

Sardina ustelduei kirats jasangaitza darie. Hirietako etxeetan, ordea, apenas usteltzen den arrainik, enbase barruko plastikozko arrainek ez dute-eta iraungitzen ikasi oraindino. Baina tamalez, hiri handietan, gero eta usuago sumatzen da sardina ustelduen antzerako usainik. Euren zilborrei begira bizi diren hiri handiko gizakiek gero eta gutxiago sumatzen baitute aitona-amona zimurtuen faltarik. Hiri handiak, bakardadearekin bazkaldu eta bakardadearekin oheratzen diren ile urdinduek utzitako hutsunerik apenas igartzen duen, gero eta gutxiago. Horrexegatik, gero eta gehiagotan usaintzen da hiri handiko eraikinetan sardina ustelen tankerako usainik.

Jaxinto zena orain ospitalearen behe-beheko solairuan dago, gorpu hotzak metalezko estalkien pean ezkutaturik egoten diren gela horretan. Medikuek ikusi dute, usaindu dute, eta zabaldu dizkiote tripak. Horrelakoetan ohiko diren azterketak egin ostean, berriz ere organo bakoitza bere tokian jarri, eta amaieran, paparretik sabelera bitarteko azala josi diote. Medikuak txostena betetzen bukatu du. “Gizajoak 17 egun eta 6 ordu zeramatzan hilik”.

# Ametsen gurpilean

Irati Oregi Belaustegi
Zumaia institutua
Zumaia

Ireki dira gortinak, gortina tertziopelozko gorriak. Gizon txikia irten da aldarera, metro ingurukoa. Txalo zaparrada. Poliki-poliki, ikusleen inguruko argia tonalitatea galduz joan da, gizonaren gaineko foku horiak bere buru ilegabea ia ispilu bilakatuz. Gaurkoan, hiruna hitz soilik: "Gauez zoriontsu garelako". Eta hasi da emanaldia. Eztanda baten soinua entzutearekin batera koloretako papertxoak irten dira leku guztietatik. Suge kiribildu txikiak erori dira sabaitik behera.

Bat, bi, eta hiru, gaur horixe besterik ez. Sarrera dohain.

Ikusleei intriga nabari zaie begietan, euforikoki zanpatzen dituzte eskuak sorbaldak aurrera eta atzera mugituz aulkietan. Robotak dira, metalezkoak, hotzak. Berunezkoak dituzte aurpegiak, masailak gogorrak eta baraila heltzen dioten torlojuak herdoilduak. Begitzat bi ping-pongeko bola zuri lehor, hezetasunik gabeak, sentimendurik gabeak.

Aldareko gizon txikiaren ondoan bi metrodun emakumea jarri da, honen txikitasuna harik eta nabarmenagoa eginez. 80 kilo izter banatan eta hiru pertsona ezkutatzeko

moduko sorbaldak ditu. Bazkaltzeko zakukada bat babarrun jaten du egunero, Bantuar tribu goseti bat asetzeko adina. Ile morea du, kizkurtua. Kopeta azpian duen arrano sudur zuzenak itzal egiten dio irribarre umekoiari, lotsatiari.

Lehen begiratuan bere itxurari ez doakion mugimendu fin batez eskuak zabalean jaso, eta behatz punta ttipiez bere gona orlegi eta arrosaren bi muturrak heldu ditu leunki, apur bat jaso eta erreberentzia egiteko ikusleei.

Denak hasi dira txistuka pozez, txalo egiteari utzi gabe. Emakumeak ahora eraman du eskua, jostari. Irten berri zaion irribarrea nolabait ezkutatu nahian, lotsagorriturik.

Robotek barre egiten dute, algaraka. Badoaz ordea, pixkanaka lasaituz, eta txaloka jarraitzen duten arren aulkietan geldirik mantentzen dira sikiera. Begiak ez dituzte oholtza gainetik kentzen, iltzatua dute begirada bertara.

“Esnatu laztana, irten da eguzkia. Emakumea, umearen gelako pertsianak igotzera joan da emeki. Eskuak, sokaren gainean jarri, eta besoek ahalbidetu dioten indar guztiaz tira du. Egun berriko eguzki printzek, bete betean eman diote begietan, eta gatzitutako keinu batez burua okertu du sorbalda gainera. Umearen esnatze marmarrak entzutearekin batera honen ohearen puntan eseri da, eskuak bere hanken gainean jarriz, ohi bezala.

Izatez emakume gaztea den arren, ondo iltzatuak ditu urteen joan etorriak gorputzean. Aurpegian nabari zaio begirik hertsi gabeko gauen nekea. Ile beltza du, mehea, leuna. Biltzeko inolako kakorik gabe erabiltzen du, begi parera bi ile xerlo erortzen zaizkiolarik. Aurpegia zuria du, argala, zargaldua”.

Musika martxan jarri da, tronpeta doinuak entzun daitezke giroari erritmo biziagoa eta umore pixka bat emanez. Oholtzaren eskuinaldetik sartu dira malabaretan bi gizontxo burusoil! Tripi-tipiti-piti-pipiiiri, tripi-tipiti-piti-pipiiiri… Onak dira benetan! Oso txikiak eta ahulak dirudite, baina energia biziz datoz. Gorputz estuak dituzte biek, izugarrizko zama duen buru triangeluarra dutelarik lepo gainean. Aurpegi eta masailezur txikiak, gorputz hauskorrak. Haur aguretuak dirudite! Heldu izatera behartutako umeak. Izugarrizko abileziaz darabiltzate koloretako bolak eskuartean.

Elkarren parean jarri eta sekulako trikimailuak egiten hasi dira kolore eta tamaina ezberdinetako diabolo bihurriekin.

"Tira txiki, esnatzeko ordua duzu. Taupadatxoak eman dizkio hanketan, emeki. Oheko neskak ez die estimuluei erantzuten, erdi lo jarraitzen du. Neska gogorra da, eta badakizu. Askotan, zurrunegi jokatzen duela iruditzen zaizu bere adineko batentzat, ez du sekula malkorik isurtzen. Bihotzeko zauriek denbora behar dute ixteko…"

Euren txandarekin amaitzean, bi metroko neskatoaren ondoan kokatu dira eta disimulu handiz ikusleengana zuzendu dute begirada. Eserleku guztiak banan-banan begiratu dituzte, baina ez dute euren antzekorik ikustea lortu. Pena da ba!, hurrengoan izango da.

"Eskolatik etxerantz zihoan, ohiko bidetik arratsaldero bezala. Amari eskutik gogor heltzen zion bere ondotik igarotzen ziren beste umeei zeharka begiratzen zielarik.

Zabuan kulunkatzen ziharduten batzuk. Hankekin gorantz egiten zuten indar, aurrera eta atzera; aurrera eta

atzera; euren esku txikiak din-dan-aren sokari tinko eusten ahalegintzen ziren bitartean. Beste asko korrika zebiltzan alde batetik bestera, batak bestea harrapatu nahian… Gero, ziur aski, dantzako eskolara joango ziren, mundu guztiko doinu ezberdinez gogatzera, eguneko presioak askatzeko… Baina bera ez, ez zen joango (…) berak atseden hartu beharra zuen (…)"

Danbor soinu artegak entzun daitezke esker nahiz eskuin. Badator, badatoz! Amak baten ordez, bi emakume batera erditu izanagatik bi beso eta bi buru dituzten neskatoak. Erditik lotuak, lagunik onenak izatera behartuak, derrigortuak. Koitaduak…? Bakoitzak hamalauna hizkuntza ederki ikasiak!, badakizue, bi burmuin bat baino hobeto direla.

"Egun euritsua zen, urez kargaturik zeuden lainoak. Bustia zegoen errepidea, kurba bakoitzeko aitak tinko eutsi behar ziolarik gidatzeko gurpilari. Nire eskolarteko antzerkitik irten berriak ginen, etxerantz bidean. Mundiala izan zen gure emanaldia, ikasturteko denok Irlandako doinuez egin genuen dantza, eta bikain atera zitzaigun afera. Gidatzeari utzi gabe, aitak burua atzerantz jiratu zuen.

– Oso ondo egin duzue denok, asko gustatu zait emanaldia. Ziur nago, handitan dantzari bikaina izango zarela laztana. Ni zure jarraitzaile sutsua izango naiz, ez dut zure emanaldi bat bera ere galduko.

Hau esan eta ezkerreko begia kliskatu zidan, jostari. Irribarre txikia irten zitzaidan, beti jakin ohi baitzuen zer esan ni pozik jartzeko (…) Gau hartan gure bizitzak guztiz aldatu ziren. Haiek izan ziren aitaren ahotik irteten entzun nituen azken hitzak…"

Bat-batean, behe lainoa egin da oholtza guztiaren jaun eta jabe. Lanbro moduko ke zuriak estali du antzezlekua eta gurpil-aulki batean eseritako neskatxo baten silueta ahula hauteman ahal izan da hodei artetik. Aurpegi tristea du, buru ondoratua. Ikusle guztiak isildu dira supituan, barre egiteari utzi diote, txalo egiteari utzi diote, mugitzeari utzi diote…

Neskatoa, dagoen lekuan gelditu da txintik ere egin gabe, izotz puska bat bezala. Burua jaso du apur bat, ikusleengana zuzenduz begirada. Eta orduan ikusi du. Irrifar jostari batez, ikusleei begira begia kliskatu du. Barruan, ezkutaturik zuen lore ederra hasi zaio irekitzen, loratzen!, eta zorion haize ufadak harrotu dizkio zainak, berotu odola. Barrea marraztu zaio ezpainetan eta begiak umeltzea eragotzi ezinik, besoekin indarra eginaz, aulkitik jaiki da. Eskusoinu eta biolin doinuak egin dira denaren jabe. Bi hanken gainean gelditu da gorputza arinki aurrerantz kurbaturik, eta muskuluak martxan jarri nahian, pare bat pauso egin ditu aurrerantz. Ez du berotze handirik behar izan ordea, musikari jarraituz, errusiar triska bat hasi da dantzatzen. Ikusleak animatuz joan dira, txaloka hasi dira berriz, eta soinu gehiago egiteko, musikaren erritmoarekin bat bi hankak lurrean zanpatzen hasi dira… Itzuli da ilusioa neskaren bihotzera.

“Begiak ireki ditu azkenik, ahal bezala, eskua kopeta gainean jarriz, zeruko errege berriaren aurka itzala egiteko. Bere gelan ama dagoela ohartu da, ondoan duela. Bertan eserita, berari begira zenbat denbora daraman jakin nahiko luke. Noiztik dagoen berak begiak irekitzeko zain hankak igurzten soilik, badakielarik berak ere, istripuaz geroztik ez duela gerritik berako sentimenduen noziorik izan.

Egun on esan nahi arren, ez zaio deus irten eztarri lehorretik gora. Inkoherentzia eta ikararen arteko nahasketa kuttu bat nabari zaio begi ninietan.

Albo baterantz okertu du burua, eta betiko lekuan, paretaren kontra ikusi du gurpil-aulkia. Amari laguntzarik eskatu gabe altxatu du bizkarra, eta eserita geratu da ohean. "(…) Bai, egin dezakezu. Edozertarako gauza zara… ez izutu, ahulak bakarrik beldurtzen dira. Eutsi goiari, ez eman amore (…) beti izango naiz zure jarraitzaile sutsu…". Bizitzan lehenengo aldiz, bere begietan islatutako grinak beldurtu egin du ama, eta ezin izan du ezer egin ohetik behera erori denean. Lurrean etzanda gelditu da, buruz behera.

Aurkezleak bibote beltz motza hazkatu du sei behatzeko esku ñimiñoaz, muturra pixka bat kizkurtuz txerri txiki baten modura, harriduraz. Aulkiak beteak daude, baina begiratu bat eman ondoren norbait falta dela antzeman du. Kieto dena!… Foookuak itzaliiiiiii!

– Dantzari bikaina izaten jarraitzen duzu.

Negar malko bat irristatu zaio masailetik behera.

# Oroitzapenen ziega

Uxue Agirre Madariaga
Aranzadi ikastola
Bergara

*Pipi-pipi, pipi-pipi, pipi-pipi…* Iratzargailuaren zarata gogaikarriak esnatu du gaur ere. Gorroto ditu horrelako egunak, programatutakoak, eguneko une bakoitzean distraituta mantentzen dutenak. Begiak itxi eta klik batez *off* egiteko astirik uzten ez diotenak, haizearen txistu hotsa entzuteko edo hodeien forma asmatzeko soilik bada ere. Amorratu egiten du beti erne, beti adi, beti *on* egon beharrak. Begiak ireki ditu, poliki, astiro, errealitatera pixka bat hurbilduz aldiro, eta ezkerreko hanka atera du izarapetik. Gero eskuinekoa. Ohetik altxatu eta aharrausi egin du, automatikoki, ez baita logura, jada ez. Komunean sartu eta bainuontzira hurbildu da, ez dago ilerik hustubidean. Ura berotzen jarri du, gero sukaldera joan da itsumustuka, kafe-makina piztu eta kafea egiten jarri du. Ez zaio kafea gustatzen baina gogoko du etxean haren usaina izatea eta ateratzen duen soinua. Komunera itzuli, ispiluari bizkarra eman eta biluztu egin da, ispiluaren beldur da, bere islaren beldur. Ohartzen da, badaki bere bizitza kartzela bat dela, baina ez da gauza, ez dauka errealitateari aurpegia emateko adorerik, ispilura begiratzeko ausardiarik. Dutxara sartu da, lehenengo ezkerreko hanka, gero eskuinekoa. Eta ur azpian

sartu du burua, arnasa sakon hartu ostean. Bizkor dutxatu da, ez du denborarik galtzeko eta, dagoeneko birritan iritsi da berandu lanera. Dutxatik irten eta baldosa hotzaren kontaktuak izutu egin du, goizero izutzen du, goizero pentsatzen du baduela ohitzeko garaia, ohituegia egotekoa. Salto batean lehortu eta jantzi da eta sukalderako bidea hartu du, gosaldu asmoz. Irratia piztu du eta kafe egin berria atera du katilu batera, baina berandu baino lehen itzali du berriz aparailua. Amonak beretzako propio egindako San Blas opil zati bat jan du. Gero, sagar gorri bat aukeratu du frutaren ontzitik eta poltsan sartu du, giltzak eta eguzkitako betaurrekoekin batera. Atea giltzaz itxi eta kalera atera da. Lehenengo ezkerreko hanka, gero eskuinekoa.

Kalera irtetearekin batera libre sentituko zela espero zuen baina ez da hala izan. Denbora luzea darama hutsean ontziratutako jaki bat bezala, estu, deseroso, lotuta. Norbait behar du askatzeko, norbaitek hartu behar ditu guraizeak eta ertz batetik airea sartzen utzi. Arnastu beharra dauka, itota dago. Huts egin dio kaleak ere, beti legez. Begirada lurrean iltzatu eta lanerako bidea hartu du. Ez du gogoko hiriari begiratzea, hotza da, Bilbo hotza da, nortasunik gabekoa. Hiri guztian zehar daude baldosa berdinak lurrean, txiklez beteta, baina bat bera ere ez apurtuta. Bere herriko galtzada-harriak etortzen zaizkio burura, haietan egindako beltzune eta zauriak. Eta galtzada-harri haietako bakoitzak gordetzen dituen ipuin, abentura eta sekretu guztiak gogoratu ditu. Malkoak eta irriak. Etengabe zapaltzen dituen baldosek istoriorik izango ote duten pentsatu du, eta berehala ondorioztatu du ezetz. Bilbo hotza baita, nortasunik gabekoa.

Taberna batean sartu da tabakoa erosteko eta harritu egin du bere buruak, izan ere irribarre egin du. Eguneko lehena, baita azkenaldikoa ere, denbora asko zeraman

bere aurpegiak espresio hori trazatu gabe. Bitxia egin zaio, baina gustura sentitu da, azkenaldian lehen aldiz sentitu da gustura. Kanta batek eginarazi dio irri, *gure hitzak, esan berriz esan, ez daitezela ahaztu ez daitezela gal, elur gainean, txori hanka arinek utzitako arrasto sail ederra bezalaxe…egun ederra duzue gaurko, beraz, aprobetxa ezazue! Abesti honekin agurtzen zaituztegu.* Kili-kili egin dio belarrian Mikel Laboaren ahots fin eztiak, maisuetan maisuenaren melodiak. Eta hitz ederrek sorgindu egin dute, umetan amak ohera joan baino lehen gauero kanta hura abestean egiten zuen moduan. Laster ezabatu da irribarrea, ordea, gorroto baititu abestiak mozten dituzten esatariak. Hasperen batekin batera zabaldu du poltsa diru-zorroa ateratzeko eta berriz egin du hasperen tabakoaren prezioa ikusi duenean. Ducados paketea 3,10€, gero eta garestiago. Krisi ekonomikoa gainditzeko kontsumitu egin behar ei da, baina, hala ere, prezioak gorantz.

Ez du ezer ulertzen. Ez du goizero baldosa biluziak zapaltzen dituenean sentitzen duen hotza ulertzen, ez du ulertzen zergatik mintzen duen horrenbeste hustubideko hutsuneak, ez ditu hiriko baldosa perfektuak eta kantuak mozten dituzten esatariak ulertzen eta ez daki zergatik ez duen inork askatzen hutsean ontziratuta egotetik. Ozeano zabalean gutun bat daraman kristalezko botila sentitzen da, eta ez du ulertzen zergatik ez duen inork eskutitza irakurri nahi, zergatik ez duen inork salbatu nahi.

Berriz hasperen eginez irten da kalera, baldosak lehenengo ezkerreko hankaz zapalduz. Gero eskuinekoaz. Eta istant bat bera ere itxaron gabe zabaldu du tabako paketea. Zigarro bat hartu eta ahora eraman du, jarraian pizgailua zigarroaren muturrean jarri, biak eskuarekin inguratu eta su eman dio. Hobeto sentitu da, baina ez nahi bezain beste,

ilunpean jarraitzen du. Denbora asko darama ilunpean, eta ez dago ondo, baina ez du argirik ikusten, ezta argi printza txikienik ere.

Hamar pauso egin baino lehen geratu egin da kolpera. Erreakzionatzeko ordua duela esan dio bere buruari eta klik batez bere baitan bizi zen automata itzali du. Klik batez robot izateari utzi dio, sentitu egin du. Hutsean aireratutako jakia bizira itzuli da, askatu egin da, arnastu egin du. Begirada baldosa perfektuetatik altxatu du, lotsati, baina, aldi berean bere buruaz seguru eta munduari so egin dio. Ibiltzeari ekin dio berriz ere, lehenengo ezkerreko hankaz zapalduz, gero eskuinekoaz, norabide jakinik gabe. Eta Guggenheima ikusi du parez pare, bere zain balego bezala.

Urrunera ikusi du bila zebilena eta pausoa bizkortu du berehala. Bihotz taupadak arindu zaizkio, eta polita iruditu zaio egiten duten musika *pum-pum, pum-pum, pum-pum*. Lehenengo aldiz Izarok eskutik heldu eta itsasargira korrika eraman zuenean entzun zuen soinu berbera zen, bizia, alaia. Bera bezalakoxea. Bera orduan zen bezalakoxea. Poliki jaitsi ditu eskailera luzeak eta kristalezko atea zeharkatu du. Asteguna da eta ez dabil jende gehiegi, turista espainiar bat edo beste. Harrerako emakumeari sarrera bat eskatu dio, adeitsu, eta honek ordainetan purrustada batekin erantzun dio. Jarrera horrek ez du harritu eta aurrera jarraitu du, lepoan zeraman zapia esku batean eta txarteltxoa bestean.

Txikitatik gustatu izan zaio margotzea, formekin olgetan egitea, artea, baina aspaldian ahaztuta zeukan sentipen bitxi hori. Bere zilborrarentzako baino ez zituen begiak, bere itsutasunean itsututa.

Goiz guztia pasa du galeriatik galeriara, begiak zabalik, bihotza are gehiago. Eta bat-batean koadro baten aurrean aurkitu du bere burua, masailak bustita, malkoz ito beharrean. Ezpain ertz batera egin du ihes malkoetako batek eta erre egin dio bere ferekak, ur gaziak lez. Itsasoak. Itsasargiak. Izarok eskutik heldu eta korrika eramaten zuen itsasargi hark bezalaxe, koadrokoak bezalaxe. Hogei urte atzera egin du pintura ikusi bezain pronto, itsaso zakarrak eta hark ekarri duen kresalak eraman dute denboraren ardatzean atzeraka. Karramarroen ibilera xelebrea imitatuz bezala, baina beste modu batean, diferente.

Itsasargi zaharra izaten zen bien txokoa, bien gotorlekua, bien jauregia. Hamaika aldiz igotako eskailerak etorri zaizkio gogora, bere ilearen forma berdinekoak. Kizkurrak, espiral amaigabeak bezalakoak. Laurogeita hamahiru koska haiek igotako aldi bakoitza ekarri du berriz burura. Eta Izaroren begi urdinak. Eta bere begi berdeak. Itsasargia zen itsaso urdinak eta larre berdeak bat egiten zuten lekua, paradisua.

Itsasoko olatuen musika pausatua entzun du, belarrira xuxurlaka. Eta Izaroren ahotsa ere bai, *bota ezan lehenengo hanka nagia, bota ezan ezkerra, hartara errazagoa izango dun koskak igotzea!*. Beti egin izan dio men aholku hari, lehengo ezkerra eta gero eskuina. Baina bizitzak ezetz esan dio, ezin diola arau berdina jarri denari. Dena ez dela beltza edo zuria. Batzuetan, idor daudenean, larreak ez direla berdeak izaten, herdoilduta bezala egoten direla. Eta itsasoa haserre dagoenean beltza izaten dela.

Iturria itxi du, malko jarioa geldiaraziz. Jada erabiltzen ez diren telazko mukizapi batekin xukatu ditu ihesari eman dioten malkoak eta aurrez aurre begiratu dio

koadroko itsasargiari. Bi bider pentsatu gabe atzean utzi ditu koadroa, galeriak, harrerako emakume ipurterrea, kristalezko atea eta eskailera luzeak. Arin egin ditu Guggenheima eta bere etxea banatzen dituen metro urriak, baldosa perfektuz bordatutako bidea.

Heldu denean sukaldeko mahaian eseri da eta goizean goiz katilu batera ateratako kafeari so geratu da. Arraskatik behera bota du, autoko giltzak hartu eta garajera jaitsi da. Aitak erregalatu zion *seiscientos* zaharrean sartu eta herrirako bidea hartu du. Ez zaio errepidera ateratzea gustatzen, preso sentitzen da, gatibu, guztiak bide berdinari jarraituko baliote bezala. Konturatu orduko igarri ditu galtzada-harriak oin azpian eta autoa izkina batean utzi du berehala. Atea zabaldu eta ezkerreko hanka atera du, gero eskuinekoa, eta bertatik bertara sentitu ditu malkoak eta irriak. Gordetako ipuin, abentura eta sekretuak. Egindako beltzune eta zauriak.

Amen batean egin du herritik itsasargirako bidea eta urrunera ikusi du laguna. Urrunera entzun ditu Izaroren bihotz taupadak *pum-pum, pum-pum, pum-pum*, eta bereak *pum-pum, pum-pum pum-pum*. Larreak herdoil kolorea galdu du, malkotan busti da, malkotan berdetu da, eta itsasoa baretu egin da, moteldu, lasaitu. Besarkada batean urtu dira euren arteko hesiak, urtu dira gorroto eta ikusezinak, urtu penak, damuak. Askatu dira oroitzapenen ziegatik eta askatu besarkadatik. Esku bat hartu dio Izarok, doi-doi laztanduz, eta begietara begiratu dio, zuzenean. Denbora luzean inork egin ez zuen moduan.

– Begiak desberdin dauzkazu gaur, berdeagoak, biziagoak.

– Eta zureak urdindu egin direla dirudi.

Badakizu, muga hau ez dun ezer alde bat falta badun.

Gonbidapen beharrik gabe igo da Izaroren atzetik itsasargira, euren txokora, Izaroren etxera. Astiro igo du laurogeita hemeretzi mailetako bakoitza, zapaltzen duen bakoitzean bukatu dela sinistuko balu bezala, amaitu dela euren kondena. Aulki banatan eseri dira biak, eta itsasoari begira egon dira denbora luzez, mutu. Bazkaritan ostera hitz eta pitz jardun dute, azken urteetan elkarri esan ez zizkioten guztiak kontatzen. Bat-batean flash bat, irudi bat etorri zaio burura. Hustubidea. Hustubideko hutsunea. Hustubideko ileak. Bi bider pentsatu gabe mahaitik altxatu eta komunera joan da, urduri, jakin-minez, eta bainuontzira hurbildu da. Ileak. Hustubidean ileak daude. Eta sinistu egin du, benetan sinistu bukatu dela bere bakardadea.

Bukatu bezain pronto herritik buelta bat ematea pentsatu dute, txoko ezkutuetan galtzea, kresalaz bustitzea. Etxeko atea zabaldu eta espiral formako eskailera amaigabea ikusi du begien aurrean, eskailera kizkurra berari erronka botaz. Arnasa sakon hartu du, adorea xurgatuz bezala eta jaisteari ekin dio. Lehenengo eskuineko hanka, gero ezkerrekoa.

– Eskuinekoaz?

– Bai.

– Zerbait aldatu dun?

– Dena, Izaro, den-dena.

# Bakardadea helburu

Peio Ormazabal Villanueva
Arrigorriaga institutua
Arrigorriaga

Guardasolak babestuta, lantokia atzean utzi eta Bilboko kale zabaletan barrena zihoan Ane. Beroki luze batek babesten zuen neguko hotzaz. Marradun bufandak aurpegi erdia estaltzen zion, beste erdia euritarako txanoak. Kasualitatea izan zitekeen, baina oharkabean igarotzea nahiago zuen eta aurpegia estalirik izateak anonimo bihurtzen zuela sentitzen zuen. Bazirudien norabide zehatzik ez zuela, bere albotik igarotzen ziren beste ezezagun guzti horiek bezala, hala ere, bera egunero-egunero toki berera abiatzen zen. Kafetegi txikia zen, aparteko ezer gabea, beste kafetegi guztien antzekoa. Beirategi handi-handiak zituen kalera begira, bezeroa hiriko bizimodu zaratatsuaren ikusle bihurtzen duen horietakoa. Dena den Ane ez zen joaten kafea edatera, ezta leihoetatik ezkutuan besteen bizitzaren une laburrak zelatatzera ere, iraganarekin zuen hitzordua.

Kafetegiko barraren gainean zegoen erlojuaren arabera bostak laurden gutxi zirenean ireki zuen atea. Guardasola atearen parean utzi eta kristaletatik urrunen zegoen mahaira abiatu zen, ezkerreko eskuaz berokiko botoiak askatzen zituen bitartean. Azken botoia mahaira iritsi aurretik

askatu, berokia erantzi eta eskegitokian zintzilikatu zuen txano eta bufandarekin batera, bere aurpegia agerian utziz. Ile kizkurra belarrien inguruan kiribiltzen zitzaion sorbaldetarainoko bidean. Azal argia zuen, duela ez asko gazte izandakoa, zimur txikiz betea. Bere begirada sakonak sufritu zuela adierazten zuen. Anek bazekien, horregatik ahal zuen guztietan betaurreko ilunak janzten zituen, egun hartan, ordea, ez. Lainotsu zegoen eguna eta jendeak eguzkiko betaurrekoekin ikusiko balu zer pentsatuko lukeen kezkatzen zuen Ane. Ur tanta bat irristatu zitzaion kirruetan behera, belarriak inguratu eta lurra jo zuen. Hormara begira jesarri zen Ane, hiriari, munduari bizkarra emanez. Deserosoak iruditu zitzaizkion aulkiak, ez burdinazkoak zirelako, bertan eserita denbora gehiegi ematen zuelako baizik.

Handik gutxira ziztada txiki bat sentitu zuen barrenean, aspaldian hasitako bizioen oinazea. Poltsan bilatu eta *Ducados* paketetik azken aurreko zigarroa atera zuen. Zorigaiztoko zilindroaren mutur bat ezpainen artean umeltzen zuen bitartean besteari su eman zion. Kea indarrez arnastu eta barrena nola lasaitzen zitzaion nabaritu zuen. Gustuko zuen tabako beltzaren zapore nazkagarria. Behar zuen pozoi hura. Eztul gogorra egin zuen. Tabakoak hil egingo zuela pentsatu zuen.

Ahotik ihes egiten utzi zion keari eta ke artean galdu zitzaion begirada. Ane konturatu zen kea eta bizitza antzekoak direla. Kea milioika partikula txikiz eraturik omen dago, elkarren artean talka egin eta mugitzen diren partikulaz, hain zuzen. Higadura kaotiko horrek imajinatu ezinezko irudiak sortzen ditu, ederrak, beldurgarriak, xelebreak… Bizitza ere hori da, milioika pertsona gurutza-

tzean kasualitateak josten duen sarea, alaia, tristea, gogorra bezain eramangarria, zatika luzea eta bere osotasunean laburregia. Bizitza eta kea, biak desagertu egiten dira.

Jon ere kasualitatez ezagutu zuen Anek. Herri txiki bateko jaietan izan zen. Txosna bakarraren aurrean zebilen dantzan, goizaldeko ordu txikitan, Jonek sua eskatu zionean. Poltsikotik txiskeroa atera eta zigarroa piztu zion. Agurtzera zihoazen unean, kasualitatez, bien begiek topo egin zuten. Ez zen Jonen zigarroa memento hartan sutan zegoen gauza bakarra. Hitz ezberdinekin biek pentsatu zuten gauza bera. Biek sentitu zuten bestearen beharra. Agurrak gerorako utzi eta garagardo bana eskatu zioten letra handiz "EZ DUGU IZATERIK ASKE HAIEK GABE." zihoen pankartaren azpian eserita zegoen gazteari. Beste edozein unetan Anek "jairik jai ibilita ekarriko dituzue etxera" esango luke mespretxuz, baina egun hartan ez. Besarka nazazu, muxuka nazazu eta antzeko gauzak baino ez zitzaizkion burutik igarotzen. Nork nor. Zuk ni. Pentsatzen ari zenaz konturatu eta lotsatu egin zen. Ideien labirintoan aurrera egiten zuen heinean, garagardoa hustuz joan zen eta Jon gero eta hurbilago nabaritzen zuen. Edalontziak hustu zituztenerako beraien eskuek elkar aurkitu zuten eta apurka-apurka ezpainei bidea ireki zieten. Anek beste trago bat eskieni zion, ez zuen edateko gogorik, memento hura luzatzeko aitzakia baino ez zen. Jonek ezetz erantzun zion, nekatuta zegoela garagardoaren mikatzaz, nahiago zuela bere izerdi gazia edan, gozozalea zela. Nahiago izaten zuen tramite burokratikoa azkar amaitu. Gogor musukatu zuen Anek, urteetan sentitu izan zuen bakardadea irentsi nahian. Txosna-gunetik urrundu ziren, gauren babesaren bila. Kamiseta erantzi zion Jonek. Laster bularretakoak ere traba egiten zion jolasean

jarraitzeko, Aneri Jonen frakek ere bai. Jonen gorputzean behera irristatu zitzaizkion ezpainak. Bera ere nazkatu zen Jonen ahoaren garagardoaren mikatzaz. Arnasestuek esan zioten nora joan, noiz hasi eta noiz bukatu, sutan dauden bi gorputzek zifraturiko hizkuntzan. Urrun sumatzen zuten barealdira gerturatuz joan ziren, hurbilegi zegoen.

– Barkatu Ane -isiltasuna hautsi zuen kafetegiko zerbitzariak- gaur ere betikoa? -eta isiltasunarekin batera iragana ere hautsi egin zen Aneren garunean. Kafetegi hartan itxirik zegoela gogoratu zuen.

– Bai, bai noski- pauso laburrez urrundu zen mahaitik. Ane berriro ere bakarrik zegoen.

Hormako egurrek marrazten zuten irudietan pausatu zuen begirada. Egurra zuhaitz izan zeneko arrastoak ziren. Gogoratu zuen bera ere zoriontsu izan zela. Ez zen bien arteko sua gau bakarrean itzali. Jonek babestu egiten zuen, elkarrekin ondo sentitzen ziren, unibertsoaren erdigunea bilakatu ziren. Ordura arte perfektua zen guztia, inor ez zen bera urte horietan izan zena bezain zoriontsu izan. Akats bakarra egin zuen: Jonek betiko zela esan zionean sinistu egin zuen. Horregatik zegoen kafetegi horretan kafe hutsaren zain.

Kafe makinaren hotsak bakardadearen hotzetik atera zuen Ane, bazekien berehala kikara bero batek eta betikoa zioen egunkariak egingo ziotela konpainia. Ez zen erratu, erlojuaren orratz luzeak bira bat emateko denborarik ere ez zuen izan eta Aneren begiek “Detenidos tres peligrosos miembros de ETA en un McDonals” irakurri zuten egunkariaren azalean. Ez zuen irakurtzen jarraitzeko gogorik izan, ETAkoak MacDonals-ean harrapatu

izana gehiegi iruditzen zitzaion, guda galdurik zegoela iradokitzen zion. Egun hartan infusioarekin nahikoa izango zuen.

Kafearen zaporea ez zitzaion bereziki gustatzen, usaina, ordea, ezin hobea iruditzen zitzaion, ez zuen beste ezerekin zer ikusirik. Sudurzuloetan barrena sartu eta piztu egiten zizkion zentzumenak, bizirik zegoela esaten zion, oraindik ere sentitzeko gai zela. Kafea edateak berriz, hilik sentitzen zuen gorputzari bizitasuna ematen zion, baina horrek ez zuen laguntzen. Sentitzea zen garrantzitsuena.

Jonek utzi zuenean mina sentitu zuen, benetako mina. Ez zituen hitzak gogoratzen, irudiak ikusten zituen, zoriontasunak ihes egiten ziola esaten zioten irudi mutuak. Kafetegi horretan bertan izan zen, Jonek hara eraman zuen lehen eta azken aldian. Hitz eta argudio dotorez apainduta egon arren gauza bakarra entzun zuen Anek Jonen ahotik: agur. Negar tanta bakarrak egin zion irrist begietatik, handik denbora batera neguko egun euritsu batean kirruetatik irristatu zitzaion tantaren antzera, lurra jo zuen, desagertu egin zen. Negar tanta hori izan zen bere bizitzaren kapitulu politeneko amairako puntua, puntu eta apartea. Idazten jarraitu nahi zuen baina protagonista falta zitzaion, Jon falta zitzaion. Ez zuen onartu nahi, ezin zuen onartu. Isiltasuna izan zen beraien arteko elkarrizketa bakarra, aldizka kafe makinaren hotsak hautsia. Barraren gainean zegoen erlojuaren orratzen mugimenduagatik ez balitz, denbora izozturik zegoela pentsa zitekeen. Baina mugimendu txiki horrek iragan bihurtu zuen Jonekin idatzi zuen ipuina. Besarkada behartu batez agur esan zioten elkarri, esanahi zehatzik ez zuen besarkada hotz batez.

Erlojuaren joanak Aneren kafea ere hoztu egin zuen, egunero hozten zitzaion, ezer ezin baita betiko bero mantendu.

Saiatu zen, berriz ere, sua pizten, harremana berpizten, amaierako puntua ezabatzen. Alferrik. Kafetegia zen Jonek utzi zion bakarra. Elkar ezagutu zuten herri txiki horretako jaietara ere itzuli zen. Antzera zegoen dena. Orduan ohean zeudenak nerabeen kontraesanak alkoholetan itotzen hasiak ziren. Orduan gazte zirenak helduago, formalago zebiltzan. Orduan heldu zirenak etxeratuta zeuden, gorputzak ez baitu denetarako ematen. Lehen tragoa hartu zuten txosna ere berdin zegoen, baina pankartak "NON DAGO JON?" zioen. Jon falta zen.

Jon falta zen Aneren bizitzan.

Kafe hotza irentsi eta okada bat sentitu zuen, barruan zuena askatu beharra ekiditen bazekien, ordea. Prakako poltsikotik dirua atera, euroko txanpona mahai gainean utzi eta zutitu egin zen. Denbora gehiegi eman zuen aulkian eserita. Berokia jantzi eta txanoarekin estali zuen aurpegi erdia, marradun bufandarekin bestea. Anonimo bihurtuta prest zegoen hirian murgiltzeko. Kafetegiko barra gaineko erlojuak seiak eta sei zirela zioen, atea ireki eta hotzak izoztu egin zizkion hezurrak, aspaldi bihotza izoztu zitzaion bezala.

Egunero-egunero egiten zuen berdina, baina egun hartan guardasola kafetegiko atearen atzean ahaztu zuen, aspaldi, bizi beharra zuela ahaztu zuen bezala.

# PROSA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

# Azken egunsentia

Ane Garcia Lopez
Talaia institutua
Hondarribia

**Pum-pum**

**Bihotza** esku-ahurrean babesten omen da beldurra daukanean. Orduan, eskuak amoroski kulunkatzen du haurtxo txiki baten gisan eta kantatu egiten dio, izuak ihes egin arte. Amak esan zidan hori.

Amaz iadanik ez dut oroimen lauso pila bat besterik. Artoa xehetzen ikus dezaket, etxolako atean, nire anaia txikia bizkarrean, *doek* koloretsua buruan. Ilargiaren argitan ikus nezakeen haren irribarre lasaigarria. *Tokoloshe* etorriko zen beldur nintzenean.

Baina amaren irudia baino, haren kantua daukat buruan. Haren errezoa. Ahots puskatua. *NKosiri* jana eta ura eskatuz gauero. Esku latzak nire masailean.

**Pum-pum**

**Lurra,** ukabilaz irabazten omen da. Lantzaz defendatzen. Hori esaten du gure herriak. Gure arbasoek.

Nik diot oker daudela. Egunero eskertzen dizkiot *nKosiri* bi oinuts hauek. Lurra sentitzen uzten didate. Arnasten. Ez dut lurrik eduki nahi, horrek aita kendu zidan gudua eragozten badit. Lurrari eskaintzen diot guztia: etxola, abereak, ura… Horrek galdutako ama itzultzen badit.

“Nor da gizona lurrik gabe?” esan ohi zidan aitak.

“Ez dut ezer nirea nahi, arima baino”. Erantzun nahi nioke nik orain.

**Pum-pum**

**Sua** da amaren begiek adierazi zidaten azkena. Sua begietan. Sua zainetan. Garrek paper ahul eta hauskor baten eran kiskali zuten ama. Infernu bilakatu zuten herrixka. Lurra txiki geratu zen sugarren aurrean. Gu ezdeus bihurtu ginen.

Ez genuen ulertu eguzkiak azaldu zigun arte. Inork ez zuen oihurik egin lurraren seme-alaben izenean. Amorru mingarri bat jausi zen gure begietatik behera, lurra bustiz. Arantzak hazi ziren gure malkoak erori ziren lekuan.

**Pum-pum**

**Harriak** jaurti genizkien madarikatuei, bizitza honetan harri bat baino geratzen ez zaionaren amorruz.

Gure bihotz urratuak ukabilaz, lantzaz, oihuz, gorrotoz babestu eta defendatu genituen. Lurra bailiren. Eta momentu hartan galdu genuen bihotza edukitzeko eskubidea.

Gure esku beltzak odolez pintatu genituen. Seme-alabak hil genizkien madarikatuei. Lurraren izenean, gurasoen izenean, ilargiaren izenean.

Goizaldean. Guztia erre genuen. Ke artean galdutako amesgaiztoa zela sinetsi nahi izan genuen. Ezin. Errua gure larruan nabaritzen genuen, gora eta behera, armiarma pozointsua bailitzan. Heriotza errezatzeraino iritsi ginen.

*Har nazala haizeak libre*
*bere besoek estu*
*bihotz errukitsuek gozo.*

*Barka nazala ilargiak*
*bere marfila*
*gorriz pozointzeagatik*

*Bahi nazala lurrak erraietan.*
*Galdu bainuen burua,*
*galdu bainuen bihotza,*
*galdu bainuen arima.*

## Pum-pum

Lehoiari begietara begiratzen ari natzaio.

Haren begirada jakintsuak epaitzen nau. Katu begirada noblean islaturik, ezin neure burua errugabe sentitu.

Ilaje horixkaz laztantzen nau. Merezi ez dudan azken sentsazio leuna.

Bere hortz zorrotzez harrapatzen nau. **Ilun** dago.

**Pum-pum**

Zaratak esnatu nau izerditan. Lurra burrunbaka ari zaigu, ihes egin dezagun abisatzen.

Ez dugu lurraren errukirik merezi.

Eguzkia oraindik ez da atera lehen herrixka zenaren arrastoen gainetik.

Ezin konta ditzaket nire barruan dauzkadan sentimentu zorrotzak. Desio bakarra baitut.

*Har nazala haizeak libre*
*bere besoek estu*
bihotz errukitsuek gozo.

Badatoz.

Bihotza esku-ahurrean babesten omen da beldurra daukanean. Orduan, eskuak amoroski kulunkatzen du haurtxo txiki baten gisan eta kantatu egiten dio, izuak ihes egin arte. Amak esan zidan hori. Eta nik ahaztu egin nuen.

Ez dut ezer eskatzeko eskubiderik, baina mesedez, *nKosik* utz diezadala esku-ahurraz bihotza babesten, beldurrak eta erruak ihes egin arte. Azken **egunsentirarte.**

# Ipuin bat ordubetean

Goiuri Unanue Arrunbarrena
Orio ikastola
Orio

Ipuin bat ordubetean izkribatzeko beharrezkoa zaizu, ordenagailua piztu eta zure gorputza etengabe ari den moduan, martxan jartzea. Ordenagailua prestatzearekin batera zure kontzentrazioa nola aurkitu pentsatu behar zenuke… Neronek perfume goxodun kandela bat piztu eta idazmahaian jartzen dut –nire iritziz zuri ere ez litzaizuke gaizki etorriko– kontzentratzen laguntzeaz gain estresa eta antzekoez ahazten laguntzen baitu.

Baina horretaz gain, zure behar guztiak asetzea komeni zaizu datorren orduan ezerk premiazko denbora eragoz ez dezan. Patxada betez ekin diezaiokezu beharren asetzeari oraindik ez baita zure ordu horren erlojupekorik hasi –patxadaz baina geratu gabe, nahiz eta denbora izan egun guztia hartzeak ez baitu balio–.

Beraz, hartu, aulkitik zutitu eta hozkailura joan zaitezke –txokolate pixka bat ongi etor dakizuke eta– baina txokolate horrek beste zerbait eskatzen du… Ogi zati bat, agian… Ez pentsatu bi aldiz eta ogi zati hori har ezazu, gorputzari behar bezala erantzutea besterik ez

baitaukazu, honek ondoren eragozpenik jartzerik nahi ez baduzu. Gosea asetzearekin batera egarriaz ohartuko zara, eztarrian hazka egiten dizuten atzapar beldurgarriez; baso bete urekin desagerraraziko duzu. Baina bi segundo pentsatzen pasa ondoren, zera bururatuko zaizu: eta, ordu-erdi barru egarriari itzultzea bururatuz gero? Bada ezpada ere beste basokada bat ur hartzea eta zure gelako mahaiaren ezkerreko aldean dagoen apaltxoaren gainean ipintzeak ez lizuke kalterik egingo –lurrikara bat gertatu eta ura ordenagailu barrura sartu ezean noski!–.

Gelara bidean komunean geratzen bazara “Roca” jaunari bisitatxo bat egiten, abisatzen ez duten emergentzia horiek saihestuko zenituzke –izan ere ez da batere atsegina inspiraturik zauden momentu berean estutasunen batek atea jotzea–.

Behar guztiak ase, gelako atea itxi, inork eragoz ez diezazun, leihoa zabaldu, -kontuz kandelarekin, suak etxea hartzerik ez baduzu nahi behintzat- aire freskoa arnasteak garuna aska diezazun txorien kantuekin batera, aulkia aurreratu, ordenagailu ondoan dagoen iratzargailuaren alarma ordubete barrurako programatu eta besoa eskuinerantz luzatzearekin batera uki dezakezun aitonaren irrati zahar, baina miresgarria helduko duzu. Finko begiratu irratiari eta ipuinari hasiera emango diozu. Teklak dantzan jarraraziaz hasiko zara: *Ipuin bat ordubetean izkribatzeko beharrezkoa zaizu…*

Hasiera polita…

Maitasun osoz trata ezazu, aparatu hau izango baita datorren ordubetean izango duzun lagun minena. Izan ere, ipuin bat 60 minutuan idatzi ahal izateko, irratia piztu eta

bertatik dantzan irteten den hitz jarioaren lehenengo partaidea hartuko duzu maitasun osoarekin tratatuaz eta ordenagailuaren tekletan barneratuaz. Gauzak horrela, aitonaren irratiaren gurpilari “klak” urguriaz eskuinerantz eragin eta …“KONTZIENTZIA” hitza izan da lehenengoa, pantailaren gainaldean eseri eta zuri begira geratu dena. Jarraian bi eskuekin goxo-goxo heldu eta hatzen bitartez tekletan barrena sartu duzu. Bigarrenaren bila zoaz ostera. Oraingo honetan “MUGA” izan da lasterka bizian irten eta pantailaren ezker aldeko beheko erpinaren atzealdean, ezkutaketetan ari bailitz “M” hizkia, tarteka “U” bera ere ikusten dela, aurrera eta atzera dabilena. Honi begiaz keinu lasaigarri bat egingo diozu –kasu egidazu, esperientziaz diotsut, hizkiak goxo tratatuz gero emaitza hobeak izaten lagunduko baitizute–.

Lortu duzu! Jada badituzu bi hitzak eta hasiera horri segida eman ahal izateko esaldia ere. Eta hoberena, 60 minutu horietatik bost besterik ez direla pasatu da, horrek lasaitu behar zintuzke. Baina gehiegi luzatu gabe, idatz ezazu atera berri dituzun hitzek osatu duten esaldia, berak oporretara joatea erabaki aurretik…

“*Zugana heltzeko zeharkatu beharreko muga hark kontzientzian zulo beltz bat sortu zidan”* hori da arrazoia! Bonbilla bat piztu balitzaizu datozkizu esaldiak. Ez da seinale txarra, ezta gutxiago ere. Ekin iezaiozu beraz teklen dantzaldiari denbora aurrera doa eta, baina hala ere ez duzu ahaztu behar esaldiak ongi aukeratzea, hankasartzeren bat eginez gero ipuin guztia pikutara joateko arriskua izan baitezakezu. Beraz, ongi pentsatu, parentesia ireki eta aurrera:

*Lehenengo ikusi zintudan momentu hartatik jakin nuen niretzat egina zinela, edo hala uste nuen behintzat.*

*Banantzen gintuen muga hura latza izan arren eta nire barneko iluntasuna handitu arren oztopo guztiei aurre egitea besterik ez nuen desio* Lasai, pentsatzeko nahi adina denbora duzu oraindik. *Orduantxe izan zen, beldur guziak albo batera utziaz, kontzientzia lasaiaraziko zidan erreakzioa izan nuenen unea.* Bazoaz aurrera, hogei minutu igaro dira. Asperen egin eta gogoeta une bat har dezakezu tarte batez.

Bai, ongi zabiltza denboraz, "Edison" jaunaren asmakuntzak hor jarraitzen du eta energia guzia agortu aurretik kableei heldu eta aurrera jarraitzea komeni zaizu –aprobetxatu egin behar dira honelako momentuak, beti ez baita etortzen argitasun hori memoriara–. Ireki beraz parentesia berriz ere. *Zugana hurbildu nintzen eta izena galdetu nizun. Zuk, ene maite horrek, burua biratu eta zeru koloreko begi urdin horiek nire aurpegira zuzenduaz Lilian esan zenuen.* Horixe da behar duzuna, barnera zaitez istorioan, sartu zaitez pertsonaien azaletan, gera ezazu mundua, ahaztu zaitez guztiaz –ipuinaz ez ezik noski–. Jarraitu daramazun martxan.

*Memento horretan bertan sentitu nuen barrena dantzan. Tximeleta talde bat barruan banu bezala sentitzen nintzen, nire sabela astintzen ari ziren tximeletak banitu bezala. Ene bizi osoan, bizirik neramatzan 20 urte haietan ez nuen zure aurpegiaren parekorik ikusi. Ez eta zure gorputz lirainaren antzekorik ere.* Oso ongi; gauza bakarra esan diezazuket, animo! Dagoeneko ordu-erdia igaro da, baina halere beste horrenbeste geratzen zaizu zure helburua bete ahal izateko.

Begira ezazu urrunera, ia ezin ikus daitekeen puntu horretara, bertan nabari den mugimenduan finka ezazu begi-

rada. Konturatuko zara nola burrunba betean datozen hizki horiek. Zure hitzak eta hauekin ipuinaren osagarri izango diren esaldiak osatzen dituzten hizkiak. Presta zaitez besoak zabalik, bonbillak argi ahaltsuago bat isurtzen baitu. Jaso itzazu esaldiok eta ordenatuaz jarrai ezazu idazten.

*Ez nuen jakin erreakzionatzen, hitz barik geratu nintzen. Baina zuk, eskua luzatu eta gauza bera egin zenuen, izena galdetu zenidan. Nik, erdi totelka "Haira" erantzun nuen. Elkarri begira geratu ginen, pare bat segundoz ezer esan gabe*. 45 minutu, ordu laurdena besterik ez zaizu geratzen. Baina, halere, ordu laurden horretan gauza asko egin ditzakezu. Egin salto, buruz letra artera, murgildu zaitez ostera hizkiz osaturiko itsaso horretan barrena.

*Zure ezpain gorriak, azal zuria eta begi urdinen ertzetan zenituen bi urre koloreko ile xerlo haiek izan ziren segundo amaigabeak lapurtu zizkidatenak. Eternitate iruditu zitzaizkidan segundo horietako isiltasuna hautsi zenuen orduan, zugana heltzeko nuen muga zail hura samurtuaz*. Hortxe zabiltza, eutsiozu horri, jarrai ezazu hurrengo esaldiarekin. "*Haira, ze izen polita" eta nire begietara finko begira geratu zinen. Bi begiraden artean zegoen distantzia urritzen joan zen… Kontzientzian nuen iluntasun ikaragarri hura pixkanaka argi moduko zerbait bihurtzen zihoan. Senti nezakeena zera zen, nola esan, maitasuna. Bai, lehenengo bistan sortzen den edo gertatzen den bihotz-ziztada moduko bat. Zutaz maitemindu nintzen, hezurretaraino, hezur barneetaraino. Baina nola gerta zitekeen horrelakorik? Lehenengoz ikusi eta jada banekien zu barik ezingo nintzela bizi. Baina, eta zer egin nezakeen? Ez ginen ezagutzen, ez nekien ezer zure bizitzari buruz. Ez hori bakarrik, zer pentsatzen zenuen zuk nitaz? Agian ez zenituen emakumeak maite…*

Primeran ari zara, 50 minutu igaro dira, 10 besterik ez dira geratzen beraz. Baina seguru aski lehen urez bete duzun edalontzi hartaz oroituko zara. Ikusten ze baliagarri gertatu zaizun lehen egina? Pare bat nagi atera, ezkerreko besoa luzatu eta edalontziari tinko eutsi eta zurrutada batez erdia edan duzu. Egarria ito ostean jarraitzeko moduan zaude.

*Bi aldiz pentsatu aurretik ea nitaz zer sentitzen zenuen galdetzea erabaki nuen. Baina ahoa ireki orduko nire hitzak oztopatu zenituen zeureekin, zeure ahots lirain horren melodiaz mugitzen ziren hitzekin. "Haira, nongoa zara?" burua jaitsi eta Hendaiakoa nintzela erantzun nizun. Beste zerbait espero nuen agian… Jarraian gauza bera egin nuen, nongotarra zinen galdegin nizun eta Bilbokoa zinela esan zenidan.*

Beste hiru minutu igaro dira. Zazpi minutu besterik ez zaizkizu geratzen, etekin guztia atera beharreko urrezko zazpi minutu. Aurreko esaldien atzetik lasterka datozenei eman iezaiezu lekukoa orain.

*Bilbotarra beraz, baina nik ez nuen hori jakin nahi, nik zer sentitzen zenuen besterik ez nuen jakin nahi. Baina ez nintzen ausartzen galdetzera.*

Normala den bezala, hitzen artean trabatu zara. Argidun burbuila itzaltzen doakizu. Nola jarrai dezakezun ez zaizu bururatzen ezta? Lasai. Gal ezazu begirada ortzian zehar dabiltzan kaioetan, edalontzitik beste ur trago bat har ezazu. Horrek eraginik ez badu, kandelaren tontorrean haizearekin batera mugitzen den su ttikiari begiratu eta bertan kontzentratu, agian honek zerbait esan diezazuke.

Ez da zu kezkatzea nire helburua, baina pentsatuz eta pentsatuz igaro dira beste sei minutu eta bakarra geratzen zaizu. Beraz, hasperen sakon bat eginez amai ezazu ipuina.

*Eta orduan besoa luzatu eta zera esan zenidan: "Asko pozten naiz zu ezagutzeaz". Eta hitz horiekin agurtu nin-duzun*. 30 segundo geratzen dira baina egin dezakezu, mugi!

*Bizkarra eman zenidan, eta ezerezean desagertu zinen, amets bat bazina bezala. Begietatik malko bana jausi zi-tzaidan. Isiltasunean "laket zaitut" esan nuen. Baina alfe-rrik zen, zugana heltzeko zeharkatu beharreko muga hark kontzientzian zulo beltz bat sortu zidan.*

Listo, amaitu da! Ipuina bukatu duzu, zorionak! Eta orain, hiru, bi, bat… Pipipipi… Iratzargailuaren txirrinak jo du.

# Mundu deskafeinatua

Ana Barbadillo Silva
La Salle-San Jose institutua
Beasain

*Kafea mugitu. Beti erlojuaren orratzen kontrako norabidean egiten du, baina inoiz ez da konturatu. Egunkariaren orrialdeak pasa eta zenbait artikuluren titulu eta azpitituluak irakurtzen ditu, interes handirik jarri gabe. Kafe hurrupa bat hartu, eta ia konturatu gabe, koilara sartu eta likido beltza mugiarazten du berriro ere.*

*Orduan, edozein pertsonaren egun garrantzitsuenak etortzen zaizkio burura. Akordatzen hasitakoan xehetasun faltaz jositako istorio bihurtutakoak. Eta, batez ere, egun hori, bizitzako garrantzitsuena izan zitekeela jabetu gabe bizi izana. Aspaldiko oroitzapen neketsu bat bihurtutako egun hori.*

*"Begiak ireki nituen egun hori".*

***Tiktaktiktaktiktaktiktaktiktaktiktaktiktaktiktak…***

Afaria hotza zegoen, baina giroa are hotzagoa. Nire gainean zegoen erlojuaren Tik-taka bakarrik entzuten zen. Gauero bezala, erlojuaren hotsa gelditzeko eskatzen nuen oihuka, nire barrenean, azkenean buruko mina jarri arte.

Gauero bezala, beti ordu berean, denbora gelditzeko eskatzen nuen xuxurlaka, azken hau ezinezkoagoa zela jakinda.

Tik, tak.

Banekien igarotzen zen segundo bakoitzarengatik ihes egiteko aukera galtzen nuela.

Orduan bai, orduan denbora gelditu egiten zen. Edo gutxienez, geldiago igarotzen zela sentitzen nuen. Gauero bezala, ihes egin beharrean etxean gelditzen nintzen bakoitzean, atea irekitzen zenean entzuten zen soinu ikaragarri hura entzuten nuenean…orduan BAI. Orduan denbora gelditu egiten zen.

Erloju hura gorroto nuen.

Nire kontran zegoela nekien.

Ama ikusi nuen, ateari begira beldurrez. Bere begiek atea ez zen beste ezer ez zuten ikusten. Oihukatu nahi nuen, eta amari galdutako bere begiradaren dirdira bueltatu, baina egin nuen guztia koilara hartu eta zopa ahora eramatea izan zen.

Mugimendua errepikatu nuen beste lau aldiz. Bosgarrenean nindoala, igogailuaren hotsa entzun nuen. Ama dardarka hasi zen. Igogailu zahar hark bere soinu nazkagarria ez kantatzea eskatu nuen, begiak itxita. *Pii*. Han zegoen egunero entzun nuen soinua. Begiak berriro ireki nituen.

– Zoaz gora. Azkar. Eta ez haserrarazi zure aita -xuxurlatu zuen amak.

Ezetz esateko gogoei uko egin nien eta amak esandakoa bete nuen.

Altuegi zegoen telebista bat entzun nuen. Zentzurik gabeko esaldiak esaten zituen emakume baten ahotsa, eta berea baino altuagoa zen gizon batena ere. Begiak itxi nituen, eta telebista izateko eskatu nion besarkatzen ari nintzen panpinari, nire oihu egiteko gogoak bere ilean itoz.

Nire aita izan zenaren oihuetatik ihesi gauero sortzen nuen mundu batean ezkutatu nintzen, panpinaren kontra nire malkoak lehortzen.

Besteak baino altuago zen oihu batek eta puskatu zen zerbaiten hotsak konpasatu zuten lo hartu nuen unea.

…Argiak begiak busti zizkidan. Ezkutatzeko ahalegin batean burua maindireen azpian jarri eta besoekin babestu nuen burua. Iratzargailuak jotzeko hiru minutu besterik ez ziren gelditzen, baina beroaren babespean gelditzea erabaki nuen.

“Laztana, jaikitzeko ordua” Begiak ireki nituen mantso. Ohea egin gabe utzi, eta jantzi eta gero, gosaria hartu nuen.

Udazkeneko zuhaitzen negar malkoak ikusi nituen bai eskolako bidean, bai handik bueltan nentorrenean. Zuhaitzen malko marroiek beldur-sentimendu bat esnatu zuten nire barnean. Momentu horretan ulertu ez nuen beldurra. Eguna amaitzeko beldurra.

Gaueko itzal iluna agertzen ari zen nik lurrera txiklea bota eta giltza portaleko atean sartu nuen unean, eta jarraitzen ninduen itzalak nik eragindako ate-kolpea jasan zuen.

Igogailura sartzerakoan duela urte batzuk aitarekin izandako elkarrizketa etorri zitzaidan burura.

*– Aita, zuk Jainkoarengan sinesten al duzu? -galdetu izan nion, parkera jolastera atera ginen larunbat horietako batean. Nik nire zazpi urterekin ulertzen ez nuen isiltasun bat piztu zuen nire galderak, erantzuna ondo pentsatu izan beharko balu bezala.*

*– Bada, ez dut uste guk "Jainkoa"ri ematen diogun zentzua existitzen denik. Ez dut uste gure itxurako norbait existitzen denik, eta hala ere gu baino ahalmen gehiago dituena, eta guztia kontrola dezakeena. Horrek esan nahiko zukeen ekintza on guztiak bereak izango zirela, baita munduko gauza txarrak ere. Ez dut Jainko bat imajinatzen pobrezia, hainbat pertsona hiltzen dituen uholde eta lurrikarak baimentzen.*

*– Baina, uste dut badagoela zerbait. Ez da patua, ez da zortea. Baina mendian galdutako umeak salbatzea eragiten duen zerbait da. Hainbeste alkohol edan eta gero pertsonak etxera salbu iristea eragiten duen zerbait. Agian… hor dagoen eta senti dezakegun zerbait, baina hain ohituta gaude entzunezina dela… Ulertzen didazu?*

*Ezetz erantzun nion buruarekin, eta berak beste erantzun bat pentsatzen igaro zuen denbora apur bat. Nik, ordea, ez nuen nire begirada bere begietatik kendu.*

*– Etxe ondoan geltokia dago, ez? Eta ordu laurdenero igaro daiteke trena, eta zuk ez duzu nabarituko. Eta baliteke etorri berri den beste batek, leku berdinean egonda, soinu ikaragarria entzutea. Eta zergatik? –ez nuen erantzun- Ohituta zaudelako. Ez duzu nabaritzen dagoenean,*

*egunero entzun izan duzulako, zure bizitzaren parte delako, baina egun batean egongo ez balitz nabarituko zenuke eta harrituko zinateke. Hori da. Hori da…*

*– "Entzunezina" –erantzun nuen nik, nahiz eta oso ondo ulertu ez izan. Baina aitak nik hori erantzutea espero zuen, eta nik erantzuna eman nion bere aurpegian harrotasun dirdira hori ikusi ahal izateko.*

*– Hori da!*

Piiiiii. Jada entzunezina iruditzen zitzaidan soinu hori egin zuen igogailuak, nire betiko desesperazio geltokira iritsi nintzela adierazteko.

Banekien egun hori desberdina izango zela. Eta sentitu nuen desberdina zela bere eskua nire masailean ikustean. Begiak mindutako malkoz estalitakoan. Oihu egiteko gogoak eztarriko korapilo batean trabatuta gelditu eta ahoa irekita soinurik ateratzen ez zenean.

– Asko larritzen nauzu –zorroztasunez, hainbeste urtetako maitasuna desagertu zenean. –Zuregatik egiten dut. Zintzoa izan.

Begiak iluntasunean ireki nituen, dardarka. *Asko larritzen nauzu. Zuregatik egiten dut.* Niregatik egiten zuen. Eta hasieran sinesgarria zen. Hasieran amaren hitzak "*Ez haserretu zure aita. Zuregatik egiten du. Ondo hezi nahi zaitu*" aurrera jarraitzeko indarra ematen zidatenean. Aita *asko larritzen nuen* egoerak tarteka agertzen zirenean.

Indarra, eta esperantza, gutxika galtzen joan nintzen haserre ziezaioketen egoerak eguneroko kontua bihurtu zi-

renean; amak esaten zizkidan hitzak aldatu zirenean. Non gelditu ziren "*Zuregatik egiten du. Ondo hezi nahi zaitu*" hitzak? Non zeuden ezkutatuta?

"Aitaren benetako intentzioan" erantzun nion neure buruari gau hartan, aitak agindutako isiltasunean murgildurik.

Indarrez itxi nituen begiak ate parean itzal bat ikusi nuenean, komunerako bidean. Itzala bueltan berriro ikusi baino lehen loarazi nuen neure burua.

Begiak berriro ireki orduko jakin nuen egun hori ere desberdina izango zela. Berezia.

Baliteke amaren begiak inoiz baino bustiago egotea, edo bere aurpegia moreago. Izan zitekeen aspaldian niri eginiko zauri horrek inoiz baino min gehiago egin izatea. Baina nire ustez, amak agurtu ninduen unean irribarrea bere aurpegian berriro ikustea izan zen arrazoia.

Etxera bueltatutakoan ulertu nuen, ama logela batetik sartu-irtenean ikusi nuenean. Logelan sartzerakoan harritu egin nintzen, eta harridurak zenbait malko bihurrien isurketa eragin zuen, lurrean gure ihesbiderako lehen pausoa ikusi nuenean: bi maleta erdi betek agurtzen ninduten bere aho irekiarekin, irribarre egin nahi izango balute bezala, ama eta bion arropak ahal bezain azkar jateko itxaroten.

Nire arropak maletan sartzen hasi nintzen, hainbat amets orain egia bihurtuko zirela ikusiz, duela zenbait hilabete entzuten hasia nintzen soinu hori ez nuela entzuten jabetzean. Igogailuak egunero egiten zuen soinu hori, giltzak sarrailan sartzerakoan ateratako garrasia, logelarantz

zihoazenean bere zapata handien oihartzuna, beti helburu bakarrekin bere buruan.

Gure ihesbidea etetea. Maleten irribarre itxaropentsua ukabilkada batez desagerraraztea…

Begiak beste aldi batez ireki nituenean ohe batean nengoen. Zeruan nengoela pentsatuta irribarre triste bat egin nuen, guztia bukatuta zegoela ikusita. *"Aita, orain jakingo dut Jainkoa existitzen den ala ez"* Jakin-minak sortutako kilimak nabaritu nituen, tximeleta arrosen itxurakoak, sabelean jolasten, jira biran.

Eskuineko begia ezkerrekoa bezainbeste ezin nuela ireki konturatu nintzen, eta gorantz begiratuta, zeruaren zuria bakarrik ikus nezakeela.

Kostata, ezker aldera eraman nuen aurpegia. Gurutze gorri antzeko bat ikusi ahal izan nuen, inguru zurian. Eta kristalezko pareta bat.

Kristalezko paretaren atzean ama ikusteak irribarre txiki bat egiteko indarra eman zidan. Zuriz jantzitako emakume batekin hizketan ikusi nuen, zeruko aingeru batekin.

– Ireki itzazu begiak, mesedez -entzun nion aingeruari.

Sukaldeko erlojuaren abestia entzun nuen orduan.

***Tiktaktiktaktiktaktiktaktiktaktiktaktiktak…***

*Iluntasunean hainbeste denbora galduta egon ostean argia berriro ikustea pertsona batentzako onena dela esaten dute. Berriro sentitzeko gai zarela.*

*Esaten ez duten gauza bakarra dago. Hainbeste denbora iluntasunaren barnean egon ostean, itzultzen den argia hotza, gogorra, azkarregia eta itsutzeko gai dela. Eta segundo batean eragin dezakeen minak iluntasunaren, ez-sentitze horren babes goxora itzultzeko nahia pizten dizula. Ezjakintasun nahi horren babesera.*

*Baina, ez da berriro gertatuko. Ez zara berriro eroriko. Berriro itxaropena dago. Edo…*

"…ez. Berriro ez"

Txikitan sortutako munduan galtzeko beharra sentitu nuen berriro.

Tximeleta baten antzera sentitzen nintzen, egunetik egunera gogorragoa bihurtuz itxuran, bizitza zen alanbrezko loreetan pausatu ahal izateko. Baina kanpotik gogorra zirudien tximeleta, barrutik puskatzen ari zela sentitzen nuen, alanbre zati txikiek puskatzen ninduten, pixkanaka egunetik egunera indarrik gabe uzten ninduten zatitxoek.

"Bigarren aukerek ez dute ezertarako balio. Pertsonak ez dira inoiz aldatzen"

Baina, hala ere, zerbait egiteko gai ez nintzen. Ezin nuen aurrera begiratu, ezin nuen burua altxatu. Ezin nuen bere ukabilak ez ziren beste ezer ikusi. Aitaren mozorroa zeraman pertsona horren beldur nintzen. Edo agian, nire aitaren berdina zen batekin ezkondu nintzen. Nire aitarekin ezkondu nintzen.

– Erre egiten duzunean usaintzera behartuta nagoen ke usaina gorroto dut –esan zidan gogoratzeko gai ez naizen

egun batean. Zigarroa ahotik kendu eta bere hankarekin itzali zuen, lurrean zenbait hauts-marka utziz –Nirekin zaudenean ez erre. Mesedez.

Azkeneko hitza bultzaka atera zela iruditu bazitzaidan ere, baietz esan nion. Ez nuela berriro egingo. Eta hor amaitu zen guztia. Edo hori uste nuen.

Norbaiten menpe egotearen zaporea dastatu nuen berriro ere abenduko egun batean, lagun batzuek egiten zuten afari baten ostean, kotxera sartu berri nintzenean.

Bera gidariaren eserlekuan eseri zen, nik nire azkeneko kalada eman nion zigarroari. Giltza sartu gabe begiratzen ninduen. Zigarroa lurrera bota eta aurrera begiratu nuen, bere begirada niregandik aldentzen ez zela jakinda.

Bere eskuaren indarra sentitu nuen orduan nire masailean, bere oihuekin konpasatuta:

– Zenbat aldiz esan behar dizut ez erretzeko? Zer egin behar dut ikas dezazun?

– Bakarra izan da. Ez da berriro gertatuko.

– Eta nola fida naiteke zutaz? Zuregan konfiantza nuen, eta honela eskertzen didazu. Ez ditut berriro ere zure gezurrak sinetsiko.

– Barkatu. Ez da berriro gertatuko. Barkatu.

– Hori espero dut –besarkatu egin ninduen, eta ni bere besarkada hotzaren iluntasunean babestu nintzen hainbat astetan, hainbat gau bakartietan –Zure osasunak larritzen nau. Maite zaitut.

Eta nik hitz horiei heldu nien. Hitz horien aginduetan ezkutatu nintzen. Maitasunez mozorrotutako alanbrezko hitz horietan.

Bi hitz horietan aurkitzen nuen berak egiten zidanaren arrazoia. Maite ninduelako.

*– Eta betirako horrela izango da. Zu zainduko zaitut nire bizitza baino gehiago.*

Eta itxaropen faltsu horien irribarrearen atzean egon nintzen murgilduta, begiak itxirik, beste zentzumenak esaten zidatena sinetsi gabe.

Bihotzak oihukatzen zizkidan gezur esperantzagarri horiek sinesten.

Baina horrek ez zuen nire beldurra mantsotzen. Hain urrun zirudien iragan horren errepikapen faltsua zirudien, letra aldatuta zegoen melodia bereko konpasa.

*– Idazlea izan nahi duzu? Idazlea izan! Edonor izan daiteke idazle. Edonork idatz ditzake bere sentimenduak, edota esaldi bat modelatu nahi duen modura. Eta beti egongo da norbait zure lana gogoko izango duena. Beti. Inork ezin dizu esan ezin duzula egin zuk egin nahi duzun zerbait. Badaude hainbat estilo, aukeratu zurea eta idatzi! Begira, zenbat ipuin edo nobela erromantiko daude? Ba beti dago beste berri bat idazteko aukera, beste istorio berri bat idazteko aukera, besteengandik guztiz desberdina den beste bat, baina, barrualdean, berdin-berdina dena. Eta hori da onena! Sormen bukaezinaren dohaina. Berdina beste modu batean esateko edo egiteko dohaina.*

Egoeraren ilunak aitaren ahotsa gogorarazi zidan. “Beste istorio berri bat idazteko aukera…”, “…barrualdean, berdin-berdina da…”, “…berdina beste modu batean esateko edo egiteko dohaina”.

Lurretik altxatzen saiatu nintzen, minez oihukatzen ez zuen besoarekin. Lurrean ikusi nuen neure burua berriro, eta oholen kexa entzun nuen nire burua bigarren aldiz bere gainean ezarri nuenean.

Malko bakar bat ateratzeko ere ez nuen indarrik, eta beldurrak oihu egitea galarazten zidan.

Begiak itxi nituen, oraingoan gertatuko zela, beldurrez.

“Ez baduzu ezer egiten, hilko zaitu. Oraingoan bai, hilko zaitu. Eta ez da larrituko” Hala ere, lurrean etzanda jarraitu nuen.

Airearen falta sumatu nuen, eta birikak erretzen sentitu nituen. Eztulak altxatzeko indarra eman zidan, eta nire eskuen odola ikusi ahal izan nuen.

Begiak itxi nituen berriro. Eta bere ostikoa itxaron nuen, segundoak minutu bihurtzen ziren heinean.

-Noiz ikasi behar duzu? NOLA ikasi behar duzu?

Isiltasuna.

– Maite zaitut –isiltasuna.

– Zure osasunak larritzen nau, maitea. *Asko larritzen nauzu.*

Begiak indarrez ireki nituen.

*Erloju digitala begiratzen du. Orratzen tik-taka ez entzuteko erosi zuena. Kafea bukatu eta egunkaria irekita uzten du. Ez du sukaldea jasotzen eta irten baino lehenago bere logelako ispiluan begiratzen da berriro. Polita ikusten da, nahiz eta eskuineko begiaren ondoan eta ezpainaren azpian oraindik bere iraganaren marka eraman.*

*Bere bizitzako bi etapen memoria. Nahi izango balu ere, ahazteko gai izango ez dena. Baina ez du ahaztu nahi. Bere iraganaren parte da, eta bere etorkizuna baldintzatzen duena. Alanbrezko loreak baino indartsuago zela demostratu zuena.*

*Atea ixten du, barruan telefonoaren abesti monotonoa entzuten den bitartean. Eskailerak jaisten ditu, igogailuaren bide azkarrari bizkarra emanez.*

*Abesti alai bat kantatzen aurkitzen du bizilagunak, eta buruarekin agur lehor bat egiten dio.*

*Kalera ateratzen denean denda guztietako kristalen beste aldean dagoen arropa guztiak ikusten ditu, eta guztiekin imajinatzen da duela bi hilabete bakarrik utzi zuen bere mundutik ihes egiten.*

*Erlojua berriro begiratu eta oraindik denbora duela konturatzen da. Eskuinetik jo beharrean, ezkerreko bidea hartzen du.*

*Geratutako kafetegira iristean bere lagunak irribarre egiten dio, nahiz eta hamar minutuko atzerapenarekin etorri. Irribarre berdinarekin jarraitzen du eseri den unera arte.*

*– Arrosaz jantzi naiz -esaten dio etorri berri denak.*

*Besteak zerbitzariari deitu eta bi deskafeinatu eskatzen dizkio.*

*– Nire arropa beltz guztiak armairuaren alde batera bota eta beste batzuk erosi ditut. Badakizu zergatik? Behingoz, zoriontsua naizelako. Bakarrik ez nagoela sentitzen dudalako. Gaurkoz behintzat, mundua ez dago nire kontra. Eta, badakizu zer gehiago? Arrosa eraman nahi nuen. Arrosa gustatzen zait, ez dut beltzean ezkutatu nahi, egun batez. Gaur, ez zait "entzunezina" inporta eta ez dut alanbrez lotuta nagoela sentitzen.*

*Parean duen lagunak azken hau ez du ondo ulertzen, baina hitz egiten uzten dio, berak bakarrik ulertzen dituen esaldi inkoherenteak esaten, zerbitzaria etortzen den arte.*

*Esnetan kafea bota eta biak nahasten ditu, zentzurik gabeko konparazio bat eginez. Koilarari bueltak ematen dizkion segundoak kafearen usain beroak eragindako mundu beltz batean igarotzen ditu, bere zapore mikatzarekin.*

*– Debora pasa, pasa, pasa eta pasatzen da… eta ez da ezer gertatzen –esaten dio bere buruari, ideiak altuan esanez. –Mundu deskafeinatu bat behar dugu, koilarakaden indarrekin kontrolatzeko gai izango ginatekeena. Mundu deskafeinatua, mesedez.*

*– Eta bi koilarakada azukrerekin.*

# Begi urdineko begirada

Lierni Garmendia Arratibel
Jakintza ikastola
Ordizia

# I

# BEGI URDIN HORIEK

*2009/02/08, astelehena.*

– Aizan, ziur al hago? –Gorputzean izuak eragindako astindu batek egoeraren seriotasunaz ohartarazi nau. Mintzoan ere urduritasunaren salatari bikaina izan den dardara moduko bat nabaritu zait. Haatik, ez dut uste Malinek ezer hautematerik izan duenik.

– Joder, Sven! Berriro hasi behar al diagu? Hik gutunazala eman besterik ez diok egin behar eta! –Ezin izan dut hasperentxo bat botatzea eragotzi. Damuaren mozorroa etengabe sastaka ari zaidala sumatu dut lipar batez, baina ez daukat beste aukerarik, ez baitut kartzelara itzuli nahi. Malinen garrasiak are urduriago jarri nau.– Aizak, egin nahi ez baduk hire askatasun osoan hago, baina gogoan izan ezak gutun hori entregatu ezean ez duala minutu bat gehiago ere kalean emango. Ez ahaztu, gero, nori esker ez hagoen zuloan usteltzen! Bestea ere egingo huen, ezta?

– Bai, beste gutunazal urdina ere entregatu dinat, baina…

– Sven, ez nagok *bainatarako*, ez orain behintzat! Ez diat etsiko nahi dudana lortu arte, eta edozer egiteko gauza nauk, hik inork baino hobeto dakik hori. Ez zioat nire ahizpatxoari guztia berarentzat utziko, ez oraingoan. Beti bera zuan biotan ederrena, zintzoena, azkarrena. Bera izan zuan beti amaren begikoa. Eta ni? Zer nintzen ni? Hutsaren hurrengoa, besterik ez! Ez zioat sekula santan barkatuko!

– Aizan, utzi egin behar haut, bazetorren eta. Tira, deituko dinat gero.

Mugikorra ahal bezain laster eskegi eta galtzetako patrikan sartu dut. Eskaileretan behera datorren neskari begira-begira geratu natzaio. Neska gazte liraina, ederra. Urrezko adats luzea albo batera eta bestera mugitzen zaio eskaileretan behera jaitsiz ematen dituen saltotxoak direla eta, era berean marrubi usain gozoa inguruko guztiei helaraziz. Azal zuria badu ere, bere masailetako kolore arrosak aski dira honen azalari behar adina bizitasun emateko. Eta bere begiak, bere begi urdinak. Hauei itsu-itsuan begira geratu natzaie, inoiz horrelako begi urdinik ikusi ez banu bezala. Egia da ahizparen berdin-berdina dela, kopiak dirudite. Baina bere begietan badu zerbait berezia, ezin ondoriozta dezaket zer izan daitekeen, baina bere begi urdinek badute zerbait itsutzen nautena, eta ez dut uste hauen distira hutsa denik.

– Egunon! –Bere ahots samurrak errealitatera itzularazi nau.

– Ez dakit, bada, nik oso egun ona ote daukagun; gaur ere euria goian-behean. Gainera, nik etxez etxe ibili behar izaten dut gutunak banatzen, eta eguraldi hau toka daki-

dakeen okerrena da herrian biraka aritzeko –atsegina izaten saiatu naiz, normaltasun osoz jokatzuz.

– Horretan arrazoi duzula aitortu beharrean nago –irribarre egin dit.

– Barkatu, zuk ez duzu, bada, Lisbet Dahlhof ezagutuko?

– Bai, ni naiz.

Gutunazal urdina orgatik atera eta eskura eman diot.

– Hara, gutunazal hau eman dit mutil gazte batek zuri entregatzeko –neskak muzin egin eta harridura igarri diot aurpegian. Gutunazala poltsikoan gordetzeko asmoa antzeman diot. –Barkatu, baina mutilak eskutitza irakurriko duzula ziurtatzeko eskatu dit. Axola ez badizu…

* * *

Gaur ere hortxe dator Lisbet, egunero lez. Bere eguneroko errutinari hona etortzea gehitu diola esango nuke. Neska barrara hurreratzen ari dela, aurreratu egin natzaio eta egunero eskatu ohi duen laranja zukua prestatu diot. Soinean zeraman txabusina berdea erantzi du dagoeneko, eta niganantz dator aurpegian irribarre bat marrazturik duelarik. Baina irribarre eder horrek oraindik ez du lortu begi handi urdin horien distira atzean uzterik. Begi horien argi itsugarria ez da sekula itzaliko.

– Zeinen ondo ezagutzen nauzun, Asger –irribarrea areagotu zaio neskari. Baina berehalakoan desagertu da, janariz eta freskagarriz mukuru egon ohi den barran gutunazal urdin bat bistaratzean, seguruaski.

– Eta hau? –galdetu dit ezjakin aurpegiarekin.

– Barran utzi dute gaur goizean. Zuretzako dela jartzen du – azaldu diot adeitasun osoz.

– Ez dakit zein haizek jo duen gaur ezagutzen dudan bat. Martxa honetan zoratu egingo nau mutil honek horrenbeste eskutitz sekreturekin! –Nilsen kontua izango dela esango nuke. Neure buruari ezin izan diot galarazi nire gazte denborako maite hura gogoratzerik. –Tira, mahai batean eseriko naiz eskutitza lasaiago irakurtzeko. Gainera, Nils laster etortzekoa da, horrela esan dit, bederen, bere beste eskutitz “sekretuan”. Geroarte, Asger.

– Lisbet, itxaron –neskak bira eman eta gutuna eta laranja zukua barran utziz, barra aurreko eserlekuetako batean jesarri da. –Ezer behar baduzu, hemen gaituzu Anna eta biok edozertan laguntzeko. Badakizu, ezta?

– Noski badakidala, Asger. Malin eta biok ez ginen oso ondo moldatzen, badakizu. Baina izugarri maite nuen; azken finean, ahizpa nuen. Egia da geure ezberdintasunak genituela, eta nik badakit beti niganako inbidia ase ezinik ibiltzen zela. Ulertzen dut ezin dela erraza izan ahizpa bikia izan eta jendea uneoro konparaketak egiten aritzea. Aiztitik, guztiaren gainetik, ahizpa nuen, nire ahizpa maitea.

– Noski! –hasperen egin dut eta Lisbet libre dauden mahaietako batean eseri da. Agian, ez nuen gaia aipatu behar. Ene, zeinen ergela naizen! Oso gaizki pasatu du dagoeneko astebete igaro bada ere Malin hil zenetik. Dagoeneko gainditu samar izan behar luke heriotza hura, eta zuk berriro argitara atera duzu gaia. Ergel hutsa haiz, Asger! Zer demontre pentsatzen ari haiz, baina?

* * *

Gaurkoan ez dakit, bada, diru askorik lortuko ote dudan. Izan ere, oraintxe hasi berri duen euri zaparrada honen ondorioz, parke-alboko taberna honen ate-ondoan jesarri beste irtenbiderik ez dut izan.

Ez nago ziur jendeak ezer askorik emango ote didan jateko, zer edo zer eros dezadan. Tira, gaurkoa ere duela ordubete neure paretik igaro den agure eskuzabal hark emandako berrogeita hamar zentimoko txanpon honekin igaro beharko dut. Eskerrak oraindik horrelako jendea geratzen denik, askok mesfidati aurpegiarekin begiratzen baitidate.

Ordu pare batez atertuko balu bederen!

Norbait tabernatik irtetera doala dirudi. Ea diru apur bat eskuratzen dudan, neska eskuzabala dirudi eta. Kristalezko ateari bultza eginez neska gaztea tabernatik irten eta horren eraikin altuekin nekez bistara daitekeen zeru beltzari begira geratu da, eta euri tantek desagertzeko asmorik ez dutela ondorioztatu ondoren, bere gaurko asmoei hasperen batekin ihardetsi diela esango nuke. Seguruenik euritakoa etxean ahaztuko zuen. Inguruan, taxiren baten bila ibili da begiradaz, baina inongo lorpenik gabeko, alferrikako esfortzua izan da, dudarik gabe. Hau une egokia izango da diru apur bat eskatzeko.

– Barkatu, gazte, emango al zenidake diru apur bat jatekoa erosteko?

Neska ilehoria begira geratu zait burua beste nonbait balu bezala, eta nire begiak bere itsaso kolorekoekin gurutzatu dira. Horiek bai begi ederrak, inoiz ikusi ditudan ederrenak. Triste dirudite, ordea. Arrazoiko zerbait beharko du neska gaixoak horren triste egoteko, zerbait

larria. Neskak erreakzionatzea erabaki du, nahiz eta, ni oraindik bere begiekin itsututa geratu naizen.

– Bai, jakina, nola ez. Zenbat behar duzu?

– Bost euro nahikoa lirateke –neska gazteak eskua txabusina berdeko patrikarantz eraman du eta bertatik hamar euroko diru-papera atera eta eskua luzatu dit, aldi berean bere begiei kolore urdinaren distira itzuli dien irribarre bat oparituz. –Esker mila, gazte. Zu bezalako jende gehiago balego mundu honetan…

– Tira, jendeak ez du, bada, hori uste.

– Zer arraio diozu, baina?

– Ez dio axola –neska pentsakor aurpegiarekin geratu da lipar batez, baina haize bolada batek bere ilea astindu bezain laster errealitatera itzuli dela esango nuke. –Tira, ondo aprobetxatu hamar euroak, konforme?

– Horrela egingo dut, egon zaitez ziur –azken irribarre horrekin agurtu nau neskak, eta txabusinaz bere urrezko adats luzea estali du euriak busti ez dezan.

Korrika abiatzera doala, ordea, txabusinako poltsikotik gutunazal urdin bat erori zaiola konturatu naiz. Hau eskuetan hartu dut, eta neskari oihu egin diot gutunazala daukadan eskua gorantz jalgiz.

– Aizu, neska! –neskak hasieran entzun ez banau ere, bigarrenean deitu diodanean gelditu eta bira eman du niri begira geratuz. –Gutunazal hau erori zaizu!

Neska nigana itzuli eta eskutitza eskura eman diot. Gutunazal urdinari begira geratu zaio unetxo batez, eta bere begi urdinak negar malkotan hondoratzen hasi direla konturatu naiz. Zer esan jakin ezinik geratu naiz, baina bera aurreratu egin zait, antza.

– Ez, ez dut nahi –bere begietatik lehen malkoak hasi dira irteten, eta ahotsa ere nahiko dardarati dauka dagoeneko. –Bota ezazu, mesedez.

Neskak lasterka egin du ihes, txabusinaz estalirik, akaso euriagandik babesteko, baina seguruenik bere negarra ezkutatzeko. Gaixoa, pentsatu dut. Ezin dut neure buruari zer gertatu ote zaion galdetzea eragotzi. Baina ni ez naiz inor gutunazal honetan jartzen duena irakurtzeko, eta neskak eskatu bezala, pare bat metrora daukadan zaborrontzira bota dut gutunazala.

Normalean jendearen aurpegiak ez ditut gogoratzen, baina ziur nago neska honen begi urdinak ez ditudala sekula ahaztuko.

## II

## NEGAR MALKOEK HERRESTATURIKO URDINTASUNA

*2010/02/09, asteartea.*

“*Hasvik, 2010eko otsailaren 9a.*

*Nils maitea,*

*Etsipenaren azken tantak isuri ditut paper zati honetan. Zure gutunak sentiarazi didan tristurak nire odol*

*bizia beltz bihurtu du, eta orain, odol beltz hori tinta bihurturik, paper zati hau nire odoleko tinta beltzarekin zikintzen ari naiz zuretzako azken agur gisa.*

*Akaso pentsatuko duzu, zergatik? Tira, normala da, guztiok egin izan diogu geure buruari galdera hori noiz edo noiz. Nire kasuan, gehiegitan izan da. Ezin izan zaitut ulertu, ezin izan zaitut nirekin sentitu. Zu izan zara nire zergatia, baita nire galdera guztien erantzuna ere. Orain, ordea, ez zaitut gehiago nirekin izango, zuk horrela nahi izan duzulako. Zure erabakia izan da, eta uste dut nik ere badudala garaia neure erabaki propioak hartzen hasteko. Beharbada hau ez da konponbidea. Akaso badago beste irtenbideren bat. Baina nik hau aukeratu dut, eta ez zaizu onartzea besterik geratzen.*

*Hara, ez da erraza erabaki hau hartzea, baina norbaitek esan zuen pertsona baten izaera bere erabakien emaitza dela. Hau da nire erabakia. Dei nazazu ahul, ez baitut indarrik izan egoerari aurre egiteko. Dei nazazu koldar, borroka egiteko adorerik izan ez dudalako. Baina jakin ezazu ausardia ez dela beldur falta, baizik eta beldurra baino zerbait garrantzitsuagoa badela estimatzea.*

*Ez dakit zergatik erabaki duzun ni alde batera uztea. Ezta jakin nahi ere. Gutun bidez utzi nauzu, eta hori nahikoa da niretzat. Itzal amaigabe batean galdurik nabil, iluntasunaren preso, eta orain argitasunerantz joan behar naizela sentitzen dut, askatzen ez nauen zurrunbilo honetatik ihes egin beharrean ikusten dut neure burua.*

*Behin esan nizun, "utziko baninduzu, hilko nintzateke…"*

*… nire hitza bete baino ez dut egingo."*

Idazluma mahaiaren gainean pausatu eta paper zatia gutunazal gorri batean sartu zuen Lisbetek. Ezin izan zion negarrari eutsi, eta azkenerako leher egin zuen. Gutunazal gorria eskuetan, bere logelara joan eta ohean etzan zen, pilulek euren lana egin zain.

Bere begi urdinek jada ez zuten lehengo urdin kolorea. Euren itsaso-kutsua negar malkoekin batera joana zen, eta ez ziren gehiago lehengo begi urdin, bizi, distiratsuak izango. Euren distira itsugarri hura handik ordu gutxira itzaliko zen, gehiago piztuko ez zena…

## III

## BEGIRADA ITZALIA

*2010/02/16, asteartea.*

Astebete igaro da dagoeneko Lisbet ikusi nuen azken alditik, eta sekulako gogoa daukat berriro ere nire maitearekin egoteko. 7 egun bere berririk gabe. Eta oraindik Oslotik Hasvikerainoko bidaia geratzen zait trenez. Beste ordubete inguru. Pentsatze hutsak leher egiten nau! Bera ikusteko gogoa geroz eta gehiagokoa da nire barruan. Ez dakit, beste ordubete itxaroteko gai izango ote naizen.

* * *

Trenetik maleta eskuetan dudala irten eta kanpoko aulkietako batean eseri naiz atseden apur bat hartzeko etxerako autobusa iritsi bitartean. Orduan norbaitek eskuekin begiak itxi dizkit. Eskuengatik bakarrik badakit nor den.

– Nor da? –xuxurlatu dit ahots leun ezagun batek belarrira. Berehala eskuak nire begietatik kendu eta elkar besarkatu dugu Lisbet eta biok. Une batez pausaturik geratu gara, une hura inoiz ez amaitzerik nahi ez bagenu bezala. Baina segundo batzuen buruan banandu egin gara, nahiz eta Lisbetek bere besoak nire lepo inguruan pausaturik dituen oraindik. –Zer moduz guztia?

– Ondo antzean. Medikuak ama ondo jarriko dela esan digu, eta bitartean nire anaia Häns geratuko da berarekin.

– Pozten naiz, Nils, benetan –eta gure ezpainak elkartu egin dira. Askotan eman izan diogu musu elkarri, baina hau lehenengoa bailitzan iruditu zait. Lehen eguneko magia berreskuratu bagenu bezala da, eta ez dut inoiz amaitzerik nahi. Oso gustuko izan dut musua.

Elkarri begietara begiratu diogu. Ai ene, Lisbeten begi urdin ederrak. Itsaoa darama bere barruan, baina itsaso gazia ere gozatzeko gai da Lisbet. Halere, atsekabe moduko sentimendu bat sumatu diot begietan, eta beragatik galdegin diot.

– Eta zu? Malinenagatik, badakizu –isilune deseroso bat egon da, baina berehala hautsi dut. –Asko sentitzen dut zure alboan egon ez izana.

– Lasai, gainditua daukat dagoeneko –egia esan, bere erantzunean ez diot tristura arrastorik nabaritu, baina bai irribarretxo ttipi bat.

– Pozten naiz. Aizu, eta zergatik ez zenidan telefonorik hartzen? Ehun aldiz baino gehiago deitu nizun. –Galdetu

nion jakin minez, izan ere, Lisbet ezagututa, oso gauza arraroa iruditu zitzaidan telefonoaren kontu hura.

– Tira, mugikorra lapurtu zidaten, eta ez nizun eragotzi nahi. Azken batean, zure ama osatzea zen garrantzitsuena, eta gero ere izango genuela hitz egiteko astia pentsatu nuen. –Lisbeten erantzunak guztiz konbentzitu ez banin-duen ere, sinetsi egin nion.

* * *

– Arraroa da –esan diot kafetegian zerbait hartzen gau-den bitartean.

– Zer da arraroa, Nils? –ihardetsi dit. Apurtxo ba ur-duri sumatu dudala esango nuke.

– Ez, utz ezazu, ez da ezer –barre egin nuen.

– Tira, esadazu –iharduki zuen berak, burugogor.

– Zera, esango nuke zure begiei lehengo distira falta zaiela, itzalirik ikusten ditut. Ez dute lehengo argi itsugarri hura, ez dute lehengo urdin kolore bizi hura –biok elkarri begira geratu gara, gure begiradak gurutzaturik. –Tira, erromantiko hutsa naizela pentsatuko duzu.

Biok barre egin dugu bota berri dudan zentzugabekeria horren ostean. Isilune bat egon da. Nire barrea nahiko nahasia izan da, egia esan. Ez dakit zergatik den, baina Lisbet arraro sumatzen dut oraindik ere. Ez dakit zergatik den, baina ez da lehengoa. Tira, nahiago dut nire zalan-tzazko egoera hau astebetean ikusi ez dudalako izango dela pentsatzea.

Lisbeten alkandorako poltsikora begiratu eta gutunazal gorri bat daukala konturatu naiz.

– Aizu, eta gutunazal hori?

– Hau? –gutunazala poltsikotik atera eta zortzi zatitan apurtu du barre eginez. –Ezer garrantzizkorik ez.

# 573 Km

Olatz Niembro Vivanco
Bihotz gaztea ikastola
Santurtzi

Denbora gehiegi darama momentu horren zain. Bizitza osoa agian. Ez dago inor bertan, momentuz. Azken bost urteetan jasotako mezuek heltzear dagoela zioten, hala ere. Ez zituen erantzun, baina behin eta berriz irakurri zituen. Alde egin zuenetik eta bost urte horietan zehar ez zen beraz ahaztu, egunero idatzi zion ia. Bere bizitzan beste inork ez bezala. Haren zain egoteko arrazoi nahikoa. Haizeak astintzen du geltokia, markesinan txarto itsatsitako iragarpenak bertatik erauztearekin mehatxatuz. Pareten artean babesten da, alferrik. Eskuak berotzen dituen bitartean, egunsentiko lehenengo izpiek kaleko argiak itzaltzen dituzte. Urteek gogorturiko irribarrea askatzeko momentuaren zain dago. Bada garaia. Infinitura begira, oroitzapenak nahasten dira.

Sei urte lehenago.

*…Brrrrrp!… Brrrrrrrrp!…*

Ordu luze bat zeraman telefonoaren ondoan ergelduta. Eta azkenean, jo zuen. Mariaren zain zegoen. Maria. Azken urte hartan, bere irriaren arrazoi bakarra, bere iparra.

Bere ondoan amorerik eman gabe egon zena. Bueltan ezer eskatu gabe. Bizitza zor zion, bere ustez.

– Bai? –birritan pentsatu gabe hartu zuen mugikorra.

– Alex! Tentelduta dirudizu, txo! *Mecagüendios* ze modu da hori hitz egiteko?

– Erik zen.

– …ba…

– … nirekin etorri behar duzu Sergiorenera, ordenagailua prest dago, 100 euro amari eskatu ta kitto,… agian ez da ideia ona, motorra konpontzeko dirua eskatu nion pasaden astean, baina ordenagailua behar dut! Seguru utziko didala. Hala ere pelota egin beharko diot …-Erikek denbora batez jarraitu zuen horrela, Alexi kasurik egin gabe-… ikusi zenuen atzoko partidua? Denboraldiko bigarrena eta mundiala! Aurtengoa urrezko urtea izango dugu! Banekien Ronaldinho primerakoa izango zela, Barçak azkenean badu jokalari perfektu bat… emaiok denbora eta ikusiko duzu! Sevilla ondo aritu zen, baina ez zuten 1-1a merezi! Arbitroaren errua, beti bezala… ei, ez duzu oraindik hitzik esan, eooo!! Lurra Alexi deika…!

– *La ostia* mutil astuna zara gero, e! Isiltzen ez bazara telefonoa irentsaraziko dizut!

– eta 100 euroak zuk uzten badizkidazu? Badakit dirua duzula, ez duzu behar, gainera itzuliko dizut, eta…

– Ixo! 25 euro eta 3 afari sor dizkidazu oraindik.

– …eta zure amari eskatzen badizkiozu? -esan bezain laster damutu zen. Primeran ezagutzen zituen amaren eta semearen arteko harremanak.

– Dirua eskatzeko deitu baduzu, agur, dei baten zain nago.

Erikek bazekien noren zain zegoen, horregatik zen bere deia. Eta hala ere…

– Norena?

– Mariarena.

– Oh, barkatu *señorito enamorado*, ez dut erdian sartu nahi -besterik gabe eskegi zuen.

Telefonoa bota eta ohean etzan zen, hasperenka. Zerbait arraroa nabaritu zuen Eriken ahotsean Maria aipatzean. Betidanik ziren lagunak, bera ulertzeko gai zen bakarra, konfiantza osoa beragan zuena. Astuna, nekagarria, baina beti irribarretsua. Irribarre kutsagarria zen Alexek behar zuena, bere kasa alai izatea kostatzen baitzitzaion. Erikek alaitzen zuen Alex, eta Alexek zaintzen zuen Erik. Baina larritasuna nabaria zen bere ahotsean, lekuz kanpoko zerbait. Telefonoak berriz jo zuen.

– Gaur gauean Mariak ez dizu deituko.

– Ze arraio dakizu zuk?

– Badakit. Hori da guztia. Fidatu nitaz.

– Erik, gehiegi edan duzu… –Alex larritzen hasia zen, zentzuzko azalpenen bila zebilen, alferrik.

– Entzuidazu! Ez esan txorakeriarik, ez dut edan, beno, deitu baino lehen pare bat garagardo hartu ditut hozkailutik, nahiko txarrak ziren, uste dut ama dirua aurrezten ari dela…

– Eman azalpen bat. Azalpen bat eta listo.

– Ba…zera…

– Arraioa mutil, zerbait esan behar badidazu; esan edo bestela utzi txantxak!

– Maria beste mutil batekin dabil –ia arnasa hartu gabe askatu zuen azken esaldi hori, eta segundo batzuen tartean isilik geratu ziren bi lagunak– Hil daitezela nire familiako kide guztiak gezurretan banabil.

Egia zen. Egia ziurtatzeko beste modurik ez zuenean soilik aipatzen zuen bere familia. Baina Alexek ez zuen sinetsi nahi.

– Joan zaitez pikutara!

Mugikorra lurrera bota zuen indarrez, hainbat zatitan hautsiz. “Joder! Orain ezingo dut Mariaren deia jaso. Hau konpondu beharko dut… bateria nora joan ote da?…aaaah, hemen dago… klik egin eta kitto… eta beste pieza hau? Ezin da ezer soberan egon… ai ama…” gogorik gabe batzen zituen piezak “beldur zara eh Alex? Baina zeri diozu beldur? Gezurrari? Gezurrak engainuz pozik mantentzen zaitu! Ez… ez zara gezurraren beldur… egiaren beldur zara eta Erikek burbuila madarikatutik atera zaitu arraioa! Baina ez da posible… Maria, beste batekin… baina norekin?!” Ukabilak gero eta gogorrago ixten zituen,

atzazalekin eskuak urratuz. “Nola? Noiztik? Ez… ezin da, zergatik bera, zergatik niri?” bere indar guztiaz armairua ukabilez jo zuen, barnean zeraman mina oihu indartsu batez askatuz.

– Alejandro! Horrela jarraituz gero etxea botako duzu!

– Barkatu ama!

“Etxea botako duzu… eta zer daki horrek? Etxea eta dirua soilik axola zaizkio… beno, egia esanda ez nago hain gaizki, horregatik ez da larritzen. Mariak deituko ninduela zin egin zuen… baina… ez du deitu, ez du deituko, ez… leloa zara ala? Nor engainatu nahi duzu? Guzti honetatik alde egin behar dut lehen baino lehen, nirekin akabatuko dute bestela”.

Kilometro-kontagailuaren orratza lasai pausatzen zen beheko zenbakietan. Hiriko trafikoarekin nahasturik, jendeari begira. Enparantzan, umeak, toboganean irristatuz, beherantz etxera joan baino lehen seguruenik azkeneko aldiz. Gurasoak, ezkerrerantzago, urduri, umeak alferrik deika, etxera joateko ordua zela aldarrikatuz. Udako egunak amaitzear zeuden, baina oraindik eguzkiaren azken izpiek Alexen gorputza urreztatzen zuten, Honda CBF600ari izpi gorriak erauziz. Larruzko jaka iluna zeraman, inskripzio granatea sorbaldan. Mariaren gogokoena. Semaforoa aldatu egin zen: gorri. Aurrerago, parke txiki batean jendearen begiradatik urrun eta ezkutuan, maitaleak. Horrenbestean ibili zen bertan Mariarekin… orduan, amorruz beteta *ARRANCA*, eta inkontzienteki azeleragailua zapaldu zuen. Alex korrika hasi zen, oroitzapenak atzean utzi nahirik. Ehun, ehun eta hogei. Gero eta azkarrago, ilunabarreko aire freskoak aurpegia kolpatzen zion. On egiten

ziola zirudien. Ehun eta berrogeita hamar, ehun eta hirurogei. Gero eta azkarrago. Gezi baten antzera igarotzen zen autoen artetik, ia-ia baten bat urratuz. Parkeko oroitzapen alaiek bere barnea garrazten zuten. Ehun eta hirurogeita hamar, ehun eta laurogei. Bihurgune batean errepidetik aterako zela zirudien. “Maria beste mutil batekin dabil”. Bere inguruko autoek, bortizki frenatuz klaxona jotzen zuten, gidari burugabe horri biraoka. Ehun eta laurogeita hamar, berrehun. Haizea txistuka zebilen, kaleko alboak argi eta lerro difuminatuak besterik ez ziren. Urrunean argi bat aldatu zen: berdea badoa, anbar bihurtuz. Eta bera gaueko izpi gorria, zuziri azkarra eta arriskutsua. Semaforoa gorri jarri zen. Zebra bidean itzal bat, gurutzatzeko prest, eta Alex beregana, zuzenean. Eta bat-batean itzartu egin zen. Azeleragailua askatuta, zerora jaitsi zen. Motorra gelditzen hasi zen bere oin indartsuaren azpian. Alexek bere indar guztiarekin estutu zuen altzairuzko frenoa, tolestu arte. Gurpilek marka beltza egin zuten asfaltoan, erre usainak ingurua bete zuen.

– Baina zer daukazu buruan?!

Ahots horren jabeak geldiarazi zuen motorra. Ahots horren jabeak berriro ere eta enegarren aldiz salbatu zuen.

– Igo. Etxera zoaz, ezta?

– Bai.

Eta bere lagun mina galderarik egin gabe motorrera igo zen. Alexek ez zuen modurik aurkitzen Eriki eskerrak emateko. Eta ez zuen aurkituko inoiz. Une horretan gauza bakarra zuen argi: bere bihotza ez zen berriro inoiz izan

zena izango. Ez zekiena zen handik aurrera bere bizitza guztiz aldatuko zela.

Geltokira egunsentia heldu da, eta baita lehenengo autobusak ere. Eta bertan, begirada iluneko mutilak esku bat eraman du erdi hautsitako lepokora, bestearekin motorraren eskulekua estuegi heltzen duen bitartean.

Duela zazpi urte.

Alex mendian zebilen, pago erraldoien artean. Lurra heze zegoen, berde. Zuhaitzak gora heltzen ziren, zerua guztiz estaliz. Ez zegoen inor, ez zegoen ezer. Bere arnasa soilik entzuten zuen. Orduan, zerbaitek basoa zeharkatu zuen, eta Alex haren atzetik joan zen korrika. “zer ote da?”… agerrune bateraino heldu zen. Bertan eguzki izpi batzuk sartzen ziren, eta hostoen artetik zeru urdinaren zati txikiak ikus zitzakeen. Bat-batean, hostoak desagertzen hasi ziren, eta argi zuri batek zuhaitzak, hostoak, lurzorua desagerrarazi zituen.

– Ze demontre pasatzen da?

Alexek buelta eman zuen ohean, burua izara artean ezkutatuz eta leihoari bizkarra emanez.

– Etxera zatozen hurrengoan, deitu!

Erikek pertsiana igo zuen eta Alex ohetik aterarazi. Kafe beroa eta pastel zatia zeramatzan bandeja batean, pakete tolestu bat libre zeukan eskuan, behar baino nahiko zelo gehiagorekin itxia.

– Marmota, zure urtebetetzea da, ohean pasatuko duzu eguna ala?

– Eguna? Ze ordu da?

– Goizeko zazpiak eta laurden.

– *Me cago en la puta*! Ezin zenidan lo egiten utzi ala? Ekarri hona gosaria.

– Ez horregatik.

– Ez zaitez kexatu, gosariak zaplazteko bat irabaztetik salbatu zaitu.

Tarta puska hiru hozkadatan amaitu zuen. Bizkotxo lodia zen, apatza, agian gehiegi, eta beheko aldetik errea. Erditik gurin kapa irregularra zuen, baina opari bezala, nahikoa.

– Txo, horrela jarraituz gero, ez zara gozogile izatera helduko. -Alexek.

– Jan duzu behintzat, hasiera bat da.

– Zuk badiozu…

– Oparia irekiko duzu, ezta? –Erikek pakete kutrea eskaini zion -ziur Ferraria dela.

– Ja, noski, kotxea atarian dago aparkatuta eta giltzak ekarri dizkidazu, ezta? –ironia kutsua airean zegoen haien artean beti.

– Ireki eta ikusiko duzu.

– Kanpokoa bezain kaxkarra bada, tori, zuretzat. –Alexek besoa luzatu zuen Erikengana, bekain batekin

keinua egiten zuen bitartean. Lagunak eskua zabaldu zuen pakete berreskuratzeko, baina hartzera zihoanean Alexek libre zuen eskuarekin besoa estutu zion indarrez. –Ez dut Ferraririk gabe geratu nahi.

– Ah *joder* min ematen didazu, askatu!

– Eman musu lurrari… –Alexek inoiz baino serioago hitz egin zion lagunari.

Isilik geratu ziren une batez, bata besteari begira eta ondoren barrez lehertu ziren. Alexek Erik askatu zuen. Zeloa kentzeko ia hamar minutu eman zituen, eta azkenean paketea guztiz urraturik utzi zuen. Barrutik larruzko soka beltz batetik tira egin zuen. Izkina batean zintzilik hortz baten itxura zuen zerbait zegoen. Dendetan saltzen zituzten marrazo hortzen antza zuen, hiruzpalau zentimetro ingurukoa, horixka kolorekoa eta punta zorrotzarekin. Lepotik eskegi zuen.

– Aitarekin joan nintzen lonjara pasa den astean, marrazoa geratu zen sareetan trabaturik. Sorte ona ematen dutela diote. Zorionak.

– Eta Ferraria zer? –atsekabe tonua zuen ahotsean, baina irribarre burlatiak txantxetan zebilela salatzen zuen.

– Datoren urterako utziko dugu, oraindik ez duzu gidabaimenik -eta biak batera, barre berriz.

Gure mutila geltokiko kafetegian dago orain. Agian helduko ez zela pentsatzen hasia da, baina ez du oraingoz esperantza galduko. Geralekua Gazteiztik hamar minutura geratzen da, eta bertatik ateratzen dira ibilbide luzerako

inguruko autobus guztiak. Udako egun hartan bero izugarria egiten duenez, izotzez beteriko Coca-Cola freskoa eskatzen du. Tabakoaren keaz beteriko giroan ez itotzeko aukera bakarra. Ozenegi dagoen irratiak AC/DC-ren *Highway to hell* aurkezten du. “Infernua beste inon baino hurbilago berton”, dio bere barnerantz. Iraganeko garaiak birgogoratzeko momentua, antza. Freskagarriari emandako azken tragoarekin batera, burua poliki musikaren erritmoan gora eta behera astintzen duen bitartean, bera ere oroitzapenetan murgiltzen da berriz.

Sei urte atzera berriz ere, ia istripuaren ondoren.

– Berandu da, berriro ere. Motorrean zatoz, azkarregi, leihotik ikusi zaitut. Eta gainera kaskorik gabe. Ergela naizela uste duzu edo? – bere begiak sutan zeuden semearen gainean, 1-0.

– Ez nentorren hain azkar, seinaleak errespetatu ditut! Ez duzu nitaz arduratzen zarenaren plantarik egin behar, motorra osorik dago. –sua Alexen hitzetan, 1-1.

– Niri ez horrela hitz egin, lotsagabe halakoa! –zaplaztekoa, kolpe zuzena. Masaila eta begiak gorri, nahiz eta gogorra ez izan, 2-1. –Zure aita bezalakoa zara, ahobero eta txoriburua, berak bezala amaituko duzu. -Din Din Din… kolpe baxua, mingarria, baina guztiz desberdina zen mina sortzen zuena, espero ez zuena, gogorragoa. Ziztada sakona, bihotzaren erdialdean. K.O. esaldi bakarrean.

Zer egin, zer esan ez zekien, kolpe gehiegi azken orduetan. Begirada lurrera josita alde egin zuen bere gelara. Atea itxi zuen. Jaka heldulekuan eskegi zuen, bakeroak eta zapatak lurrera jaurti zituen. Ordenagailua piztu, musika-

katea martxan jarri eta bolumena topera igo zuen. Bon Jovi. Amak musika jaistea agindu zion. Paso. Barçaren webgune ofiziala bilatu zuen interneten, Erikek aipatutako partiduaren kritika eta bideoak ikusteko. *… it's my live, it's now or never, and ain't gonna live forever, i just wanna live while i'm alive…* itxaropenez beteriko abestia, indartsua. Animoa igotzen zion jartzen zuen bakoitzean. Golaren filmaketa kargatzen zen bitartean, begirada desinteresatua orrialdean zehar mugitzen zuen, iragarki batean pausatu arte.

ZURE BIZITZAZ GOGAITURIK AL ZAUDE?

BETI DESIRATU DUZUN PERTSONA IZAN NAHI DUZU?

EGIN KLIK HEMEN ETA BARNERATU ZAITEZ BIZITZA BERRI BATEAN.

Saguaren gezia berarentzat diseinaturikoa zirudien iragarkiaren gainean kokatu zuen. Frogatzeagatik ez da ezer gertatuko. Bai, ziur zegoen. Klik. Leiho berria ireki zitzaion. Erdian, eztanda baten antzera, hiru mezu agertu ziren. Lehenengoa horia zen, letra beltz handiz idatzia: "ezagutu primerako jendea!". Bigarrena, berde bizia, dirdiratsua, begietan ia mina egiten zuena, txikiagoa zen. Aurrenekoaren azpian, hitz bakarra: "doan". Azkenekoa soilena zen, karratua, beste bien gainean agertu zen. "izena eman orain eta etxeko aberea opari zuretzat. Sakatu hemen". *Hemen* hitzaren ondoan gezi hori bat zegoen. Berriro klik. Atzealde beltz baten gainean bi panpina itxura zuten irudiek ordezkatu zituzten koloretako mezuak. Irudien ondoan "hautatu zure sexua" panpina bakoitzaren azpian, "emakumea", "gizona". Gizonean klik. Emakumea joan eta bere ordez, datuak idazteko lekua. Alex aspertzen hasia zen joko absurdu horrekin.

Izena: Alex

Abizena: Gonzalez

Pasahitza: *********

E-posta: gz.alex@hotmail.com

Ados. Klik beste behin. Atzealdean hiri baten irudia ageri zen. Ezkerraldean kristalezko eraikin erraldoiak zeuden, eguzkia dirdiratsu gainean. Eskumako aldean, txalet txikiak. Bizilekua aukeratu behar momentu horretan. Hondartza aldeko etxe txikiak aukeratu zituen, inoiz ez da berandu surfean ikasteko, *Mini-Alexekin* bada ere. Mini Alex. Nahiz eta saiatu, irudiak ez zuen bere antza handirik. Begi ilunak bai, baina ilunegiak. Bere ustez, itxura alaiegia, artifizialegia. "Beno, jokoak beti joko, ez naiz ni". Etxea beste historia bat da. Bi solairu zituen, logela eta komuna goian, egongela eta sukaldea behean. Egongela erdian oparitzat zuen txakurra. Grafikoak landuak ziren, baina mugimenduak mekanikoegiak. Etxe berritik atera zen. Kalea kolorez beteta zegoen. Errepide luze baten aurrean aurkitzen zen. Bertan bere itxura antzekoa zuten bi gazte zebiltzan bizikletan. Gorago, iturri ikusgarri eta dotore baten inguruan talde bat zegoen, berriketan ziurrenik. Panpina traketsa aurrera eramatea erabaki zuen Alexek, baina kurtsorea jarraitu beharrean bueltaka hasi zen. Orduan, behean agertzen zen leihatila bat laranja kolorez piztu zen, eta ondoren ireki.

– Teklatuko geziekin mugitzen da. Berria zara ezta?

Norbait ari zen berarekin hitz egiten. Erantzuten saiatu zen, baina ezin. Botoi gehiegi. Laranja berriz.

– Erantzuteko sakatu nire gainean -bere pentsamenduei erantzun zien.

“Nola sakatuko dut ez badakit nor arraio zaren? Baldarra da gero jendea argibideak emateko orduan!” gaztea gogaitzen hasia zen. Eta berriro ere…

Itxoin –momentuan neska bat urreratu zen Mini-Alexengana– orain badakizu non nagoen (zure ondoan), tira, erantzun zerbait.

“Artaburu hau nirekin ligatu nahian? Jai dauka!” halako burutazioek betetzen zuten Alexen pentsamendua, baina ezin izan zion barne-barnetik zetorkion irribarreari eutsi.

– Telepatia erabili duzu zertan nabilen jakiteko?

– Askoz sinpleagoa. Erreza da zertan ari den ez dakien edonori kable bat luzatzea. Burmuina dugunontzat presa erraza, badakizu. –“ja, ja, ja… zirika ez da inora helduko”–. Beno, zelan?

– Burmuindun ezezagun batek tontotzat jo nau, baina beste guztia primeran. –Zergatik eman beharko zizkion hari azalpenak? Jokoa jarraitzearekin nahikoa iruditu zitzaion.

– Pozten naiz. Zure adimena berreskuratu eta ni gabe bizi ahal izateko hezi beharko zaitut orduan -irribarre berriro.

– Zein da zure izena? – galdetu zuen Alexek.

– Ai ene! Pentsatzen nuena baino zailagoa izango da. Txikitan galdu zenuen ikertzaile sena? Ea beranduegi egin baino lehen asmatzen duzun.

– Naia izeneko neska nekagarriak gainetik nola kendu ikertzea nahiago nuen, puntuak kentzen dizkit horrek? –Naia Urroz. Abere izena iruditu zitzaion, pertsonarena baino. Baina ez erabat itsusia.

– Telepatia? – iradoki zuen neskak.

– Askoz sinpleagoa. Erreza da kurtsorea zure irudiaren gainetik pasatzea -eta une batez arazo guztiak atzean utzirik, bere Bartzelonako pisuan pozik sentitu zen.

Atsegina egiten zen haiek bi berriketan ikustea. Zirikatzaile eta jostariak ziren biak. Eztabaida tontoena nor zen, abilena, helduena, onena nor zen erabakitzeko. Joko antzeko bat zeukaten, batek bota, besteak eman. Alexen barre algarak, Nahia haren esaldiak imitatzen. Erlojua hegan zebilen, baina haientzat, geldirik. Agur esateko momentua hain urruna zirudien… goizeko laurak aldera heldu zen. *Agur*, esan zuen Naiak, *laster arte,* zuzendu zion Alexek.

– Orduan, lortu ezazu *webcam* bat.

– Mesedez eskatu -agindua zen.

– Ezta pentsatu ere.

Ezkerrera, goian, laukizuzen beltz baten, letra zuriz, irten. Gau hartan azkenekoz klik egin zuen. Ordenagailua itzali eta ohean bota zen. Hurrengo goizean institutura joan behar zuen, eta laster. Norbaiti eskatu beharko zizkion fisikako etxerako lanak.

Ikasle aparta zen Alex. Amona galtzean amak "medikuek ez dakite ezer" komentatu zuenean, bera bestelakoa

izango zela erabaki zuen. Inoiz izandako medikurik onena izango zela zin egin zion bere buruari eta munduari. Egia esan, betirako olatu izateko ametsa ezinezkotzat jota zuen aspaldi. Hala ere, itsasoa bezain aske bizitzeko itxaropena ez zuen inoiz galduko. Buru-belarri ibili zen ikasketekin, eta institutuko azken urte hartan, Kanadara medikuntza ikastera joateko beka lortzear zegoen. Bartzelonan minez eta gorrotoz betetzen zuen guztiari agur esateko aukera paregabea, libre izateko ordua.

Gonzalez -Nuñez andereñoaren ahotsak isiltasun urduria urratu zuen. Pelayo lodikote bakartiak soilik zituen etxerako lanak eginda, eta ez zizkion inori utzi nahi. Agian hura zen bakartia izatearen arrazoia. Baina Pelayo ez zen Gonzalez.- Arbelera. -Alexek Markosen begirada bilatu zuen, biak Gonzalez. Markos ere Alexi begira zegoen. Alexek erdizka egin zituen lanak gelara heltzean, baina besteak ez zekien deus ere. Nuñezek klase osoari begiratu zion bere begi nimiñoak txikiegiak geratzen zitzaizkion betaurrekoen gainetik agertuz. Jendea, urduri. Alexek hiru atzamar erakutsi zizkion bere izenkideari, eta azkena jaistean, biak batera altxatu ziren.

– Gonzalez Parra, 76. ariketa. -Alex eseri egin zen.

Marcos arbelean asmatu berri zuen formula bat idazten hasi zen, eskuak dardarka zituela. Andereñoak burua ezker-eskuin astindu zuen.

– Soto, irten laguntzera.

Erik altxatu zen, irribarretsu, beti bezala. Lotsagabe, ilea nahasita, dirdira eztizko begietan. Besoak bizkarrean zeramatzan, eskuak zabalik. Askotan egindako *trikima-*

*ilua* zen. Alexen ondotik pasatzean, lagunak paper batean ematen zion erantzuna. Arbelera heltzean, letra kaxkarrarekin kopiatzen zuen Alexek emandakoa. Galdu egin zen Alexen apunteak irakurtzen, eta hanka sartu zuen zenbait eragiketetan. Ariketa guztiz kakaztera zihoanean ordea, txirrinak jo zuen. *Salvado por la campana*, boxeolariak bezala.

Institututik atera ziren Alex eta Erik batera.

– Hartu motorra eta goazen! -Erikek jada motorra abiarazia zuen.

– Nora?

– Sergiorenera, nire ordenagailuaren bila!

– Ez noa, zerbait erosi behar dut.

– Zin egin zenidan.

– Ez asmatu ezer, Erik!

– Zer erosi behar duzu? –amore eman zuen Erikek. Alexek ez bazuen nahi, ez zuen nahi, eta kitto.

– Esnea, arrautzak eta horrelakoak, badakizu. –Alexi min eman zion gezurra esatea, baina internet bidezko jolas batean ezagututako neskarekin hitz egin nahi zuela aitortzeak lotsa ematen zion.

– Tira ba, bihar arte.

Motorrean, bakoitza bere bidean, hiriko kotxeen artean trafikoan galdu ziren, haien sekretuen zama soinean harturik.

Etxera heltzean, Alexek *webcam* berria instalatu zuen ordenagailuan, eta penak atzean berriz uzteko asmoz mundu berri hartan barneratu zen. Aurreko eguneko kale luze dotorera atera zuen bere Mini-Alex. Bere etxeko atarian, Naia.

– …mesedez eskatu… - burla egin zion Naiak.

– Betaurrekoak ipini, nire edertasunak liluratuko zaitu bestela. –Alexek, harro.

Bien kamerak kargatzen ari ziren. Listo. Mutilak modelo itxurako neska espero zuen, inoiz ikusi zuen ederrena. "Tira, ilusioak egitea ez da txarra". Aurpegia zertxobait luzea zeukan, masailak apur bat biribilduak, gorrixkak, baina ez lotsati. Ile luzea zeukan, lehuna, argia, baina ez guztiz horia. Bekokia agerian, ezkerretik eskuinera gurutzatzen zuen xerlo bihurri bat salbu. Ezpainek masailen kolorea zuten, baina biziagoa. Begiek ere biziak ziruditen, baina itzalita nabaritu zituen Alexek. Galdetzera zihoan, baina neska aurreratu zen.

– Lepoko polita –irribarre egin zuen. Ahots jostaria zen, baina lasaitasuna iradokitzen zuen–. Urradura batzuk dauzka ezta?

– Bai. Haserre nagoenean egiten ditut, maniak.

– Bestia… –irribarre egin zuen berriro, irribarre ederra, zintzoa, baina horrek ere ez zizkion begiak argitu.

– Triste zaude -pentsatu gabe hitz egin zuen Alexek, edo altuegi pentsatzen.

– Triste ez, goibel, nekatuta agian.

– Utzidazu asmatzen: nitaz maitemindu zara -berriro irribarre hori.

– Utzi ametsak mutil. Ez zaitut zu maite –burlati berriz ere, baina ez alai–. Istorioa korapilatsua da, ez zaitut aspertu nahi.

– Primeran, nik ere maite dut beste bat. –Seguru? Momentu hartan ziur zekien gauza bakarra zen lagun berria pozik ikusi nahi zuela –alaitzeko balio badizu, tira, ez zaitez gehiegi luzatu, e!

– Aitor da arazoa. Nire mutila da. Ni Gasteizen bizi naiz, eta bera Nafarroan, Los Arcosen. Etxea daukat han eta ahal dudan bakoitzean joaten naiz, berarekin egoteko. Baina azkenaldian ez dakit zer egin guztiz ondo sentitzeko. Batzuetan dena dabil primeran, maite nauena badakit, eta maite dudana ere bai. Baina besteetan nirekin egoteagatik dagoela dirudi. Norbait maite duzunean berarekin egon nahi duzu, suposatzen dut badakizula, eta ni ezin naiz beti bertara joan. Noizbait etorri da bera hona, pasa den astean adibidez, baina bere aitak lan egitera etorri behar zuelako, besterik ez. Nirekin egoteagatik dagoela iruditzen zait horrelakoetan. Bolada luze batez ezin izan nuen herrira joan, eta Aitorrek deitzeari utzi zion, interesa galdu zuen, baina ni deiaren zain egon nintzen egunero Alex, maitemindu ninduen pertsona noiz itzuliko zain. Itzuli zen, eta ni pozik, hala ere esan nion, detaile txikietatik bizi gara. Ni bere herrian nagoenean bere familiarekin jaten dut, bere etxean geratzen naiz beti, berak eskatzen didalako. Baina bera hona etortzean bere aitaren etxean geratzen da, lotsa ematen omen dio, nik joan behar dut bere bila, berarekin egon nahi dudalako. Erreza

da dena ematen duena maitatzea. Ez dakit zer sentitu. Dakidan gauza bakarra da nik dena ematen diodala eroso egotea nahiago duen pertsona bati, bere etxean lo egin eta bere janaria jatea nahiago duen pertsona bati, beste edozeren gainetik. Baina begiratzen nauenean, maite nauela esatean, denbora betiko geldiaraziko nuke – biek batera hartu zuten arnasa sakon – luzea zela abisaturik zeunden, ez kexatu.

– Txoratuta zaude. Ni zu banintz, pikutara bidali izango nuen aspaldi -tolesgabea izaten ari zen Alex, egia esaten ari zen, baina gogorregi agian.

– Gorrotagarria da egia, ezta? Seguruenik horrek asko lagunduko luke, baina ezin dut.

– Bai, bada… kontaiozu zer gertatzen den. Benetan maite bazaitu, ulertuko du. Ziur ulertuko duela. – laguntzeko nahiak bete zuen Alex bat-batean.

– Behin baino gehiagotan egin dut.

– Baina ez niri bezala, ez egia osoa. Egizu.

– Eskerrik asko, Alex. Joan beharra dut, hurrengoan zuk kontatu beharko didazu zuri buruz e! –“orain bai”, azkenean, begiekin egin zuen barre Naiak, bihotzarekin.

Arratsaldeko bostak. Seigarren Coca-Colaren ondoren, lehen garagardoa heldu da. Itxaropena da galdu beharreko azkena, esan zioten behin. Tabernako ke eta izerdi kiratsak kanpora uxatu du berriro gaztea, eta hasiera batean bezala, bere motor zaharraren ondoan dago berriro ere, argazki tolestu eta zahar bati begira. Baina aurpegi hori oraindik

ez da geltokian ageri. Jendea berari arraro begiratzen hasia da, baina bost axola. Bere denborarekin zer eginik ez du, pasatzen uztea baino. Pasatzen utzi eta etsi gabe itxarotea.

Urte erdia zen Alexek Naia ezagutzen zuenetik. Naiak berreskuratu zuen Aitor, Bartzelonako lagunaren aholkuari esker. Alexek primeran zeraman ikasturtea, Gasteizko lagunak fisikan emandako laguntzei esker. Beka ia lorturik zuen. Bi hilabete. Bi hilabete eta urrun egon ahal izango zen azkenean. Ez zuen berriro Mariarekin topo egin. Hobe. Inoiz baino lotuago sentitzen zen Erikekin, gehiagotan ikusten zuten elkar.

Naiarekin egunero hitz egiten zuen. Batzuetan, kostata, bere buruari eta bere arazoei buruz ere hitz egiten zuen berarekin. Elkar ikusten zutenean, nahiz eta pantaila bati esker izan, guztiak galtzen zuen garrantzia. Alexek bakarrik zegoenean izandako kezka guztiak momentuan desagertzen ziren. Naiak bazekien sufritzen ari zela, ihes egitea zela bere desirarik handiena, baina gehienetan ez zuen ezer galdetzen. Bazekien noiz zegoen hitz egiteko prest eta noiz egin behar zuen ezer ez zekienaren planta. Eta Alexek bazekien bere sufrimendu isil horrek min ematen ziola, ez zitzaiola gustatzen bakardadean jasatea bere arazo guztiak. Baina Alexek ez zuen Naia zama guztiarekin kargatu, ez zuen gustuko bera larritzea, edo begietako irribarrea ez ikustea. Hala ere, hain erreza zen berarekin hitz egitea… beti ulertzen zuten elkar, bata bestearen euskarri. Naiarentzat, Alexen irribarrea munduko botikarik onena zen. Irribarretsu zegoenean, dena ondo zihoala nabaritzen zuen. Irribarre kutsakorra benetan. “Egizu barre ahal duzun guztietan, gehien kostatzen zaizunean batez ere, eta orduan ikasiko duzu ezer ez dela zure zoriontasuna zapuzteko gai,

zuk uzten ez badiozu, ezta zerbait mingarriaren aurrean negar egiteko beharrak ere". Hura izaten zen haien leloa. Inoiz ez zukeen inork bi pentsamendu harmonikoagorik aurkituko, bi bihotz batuagorik. Eta horregatik, behin, Alexek bere familiari buruz gordetzen zuen guztia askatu zion.

– Nire aita motor istripuan hil zen pasaden urtean, nik 16 nituen, ia 17. Gaua zen, eta dei bat jaso zuten polizia-etxetik etxean. Erik eta ni poligono industrialean atxilotu gintuzten. Inozo burugabeak… etorriko zirela bagenekien. Motorrarekin lasterketak egiten genituen maiz, baina gau hartan sarekada egongo zela jakinarazi arren, bertara joan ginen. Erikek eta biok dirua behar genuen, pieza berriak, tabakoa… eta apustuak inoiz baino gogorrago jotzen zuten. Bai edo bai. Irabazteko beharra genuen. Edo behintzat hori uste genuen. Lurra izoztuta zegoen, neguko gau hartan hotz izugarria egiten zuen. *Mossos de escuadren* autoen sirena entzun eta gehienek alde egin ahal izan zuten, baina Eriken motorrak laprast egin zuen, beti izan da nahiko traketsa izotz gainean. Aitari antzeko zerbait gertatu zitzaion, baina auto baten kontra tupust eginez -begiak gorri zituen, bustita, baina ez zuen malkorik askatu. Minez ahoskatzen zuen "aita" hitza. –Ama ospitalera heldu zenean, esaldi bakarra esan zuen: "zuk hil duzu Martin". Harrez geroztik, gorroto nauela esan daiteke. Nire izebak eta aitaren lagunek, animoa ematearren, ama bere antz gehiegi aurkitzen didalako dagoela minduta diote. Ile beltz berbera, laburra. Begirada sakona eta itxura gogorra. Biok alaiak, biok sufrimendua ezkutuan. Agian horregatik da, agian ez. Beharbada guztia batera. Baina lau hitz horiek nire barnean geratuko dira betiko eta amaitzean, gaueko malko bakarraren gazia dastatu zuen ezpainetan.

– Sentitzen dut, benetan –Naia hunkiturik zegoen, zer esan ez zekiela. Inpotentziak bere sentimendu guztiak tindatu zituen. Inpotentzia, lagundu nahi duen horren hesia – ezer baino gehiago nahiko nuke orain zure ondoan egotea, zu besarkatu, zure euskarri izan, zu nirea izan zaren modu berean. Zerbait egin ahal izango banu, hemendik, hain urrutitik…

– Orain urrun gaude Naia, baina egunen baten zurekin egongo naiz, zu zaintzeko. Azken finean, horretarako dira lagunak. Gainera, zeru beraren azpian bizi bagara, ezin gara hain urrun egon, ezta?

Zazpi t'erdiak jada. Geltokiko bozgorailuaren hotsa buruz ikastear dago gaztea. Erdi irribarrez, erdi triste gogoratzen du momentu hura. *El autobus con destino a Bilbao saldrá del andén número cinco en diez minutos. Bilbora doan autobusa bosgarren nasatik irtengo da hamar minutu barru*. Gose da, motxila barruan bilatzen du bere diru-zorroa. Liburu bat topatzen du. Azala horia da. Erdialdean duela bi mendeko janzkera eta orrazkera duen emakumearen irudia agertzen da, zuri beltzean. Azpian, letra handiz, honako hau irakurri daiteke: *PERSUASIÓN*, por JANE AUSTEN. Entzuna zuen liburuaren izena, Naiak askotan hitz egin zion hari buruz. Kanadan erosi zuen. 2006an *The Lake House*, lakuko etxea, lehen aldiz ikustean oroitu zen liburuaz. Filmeko protagonistak dio *"…itxaronaldiari buruzko istoria da, ezagutzen eta maitemintzen diren bi pertsonari buruzkoa. Baina ez da momentu egokia. Urte batzuk geroago berriz ikusten dute elkar, baina ez dakite gehiegi itxaron ote duten, agian beranduegi da ezertarako"*. Momentu hartan maitemindu zen istoriaz. Buruz daki bere desira bakarrari eta bere is-

toria propioari forma ematen dion liburu hori. Berriz ere irakurtzen hasten da, ezusteko enkontruaren zain, itxaroten jarraitzen duelarik.

Kurtsoko azken eguna. Alexek *McGill University Faculty of Medicine*-en ikasteko beka lortu zuen, Montrealen. Maleta egiten ari zen etxean. “azkenean, libre!” hori zen bere zoriontasun iturria, “han goian hotz egiten omen du” bere kezka bakarra. Amak ez zion zorionik eman, nahiz eta bientzako onuragarria izan. Alexek guztiarekin apurtu ahal izango zuen azkenean, eta ama Martin ahazten hasiko zen. Naia pozik zegoen Aitorrekin. Gasteizera joango zen bizitzera, azkenean bidaiak akabo. Telefonoak jo zuen.

– Erik! Bihar banoa, azkenean! –Erikek bazekien, soberan. Pozten zen.

– Zorionak, txo! Maletarekin amaitzen duzunean, mesedez, etorri enparantza atzeko betiko parkera, zerbait erakutsi behar dizut.

– Zer da?

– Egia -eta eskegi egin zuen.

Parkera heldu zen, erantzunen bila. Ez zuen deus ere ulertzen. Motorra farolari lotu zion, eta barrurantz joan zen. Eta orduan ulertu zuen ulertu nahi ez zuen guztia. Eztarrian korapilo mutugarria ez balu, egia munduko armarik zitalena dela esango zukeen. Arrazoizko sentimendurik izan balu, zuhurtziaz soilik eman ahal dela esango zukeen, egia duenak beste norbait suntsitzeko boterea duela. Inpotentziak bere gorputzeko gihar landu guztiak geldiarazi ez balizkio, Erik hartu eta bertan jo eta hilko

luke. Inork ez zuen ulertu, ezta berak ere, ordea, bere erreakzioa. Betiko lagunarengana hurreratu eta besarkatu egin zuen, bizkarraren gainetik Mariari begiratuz. Pieza guztiak zeuden elkarturik azkenean.

– Ondo izan –ahoskatu ahal izan zituen hitz bakarrak izan ziren, baina inoiz izandako zintzoenak. Beti elkar maite izan zutela ulertu zuen. Begiradak ulertu zituen, oihu egin nahi zuten isiluneak ulertu zituen. Bere herrira lotzen zuten beste bi kate mozturik, bat bakarra geratzen zitzaion. Zaliena.

Etxean, Mini-Alexen mundura sartu zen azkeneko aldiz. Naia zain zeukan, beti bezala. Azken bideokonferentzia.

– Beka lortu dut –ez tristurarik, ez alaitasunik. Informazio hutsa zen.

– Bazoaz, orduan? –hitz erabat lauak Naiarenak ere.

– Bihar.

– Zorionak.

Isiltasuna. Luzea, deserosoa. Tentsioa begiradetan. Aireak normalean baino pisu gehiago hartu zuen Alexen bizkarrean. Listua su bihurtu zitzaion eta eztarria erretzen zion. Mutututa sentitu zen, baina hitz egin behar zuen, azkeneko aldiz.

– Denbora asko behar izan dut hau esateko, gehiegi, eta orain berandu da ezertarako, baina maite zaitut, nire bizitzako onena izan zara, zaude ziur. Ezingo zaitut inoiz ahaztu. –Naia ere mutu geratu zen, zuri, une batez. Baina berak ere askatu zuen bera.

– Guztiok eduki dugu, gure bizitzan zehar momentu txarren bat. Indar guztiaz aurrera egiteko erabakia hartu behar da, sakongunetik atera. Umorea etengabe aldatzen zaigu, batzutan alai gaude, besteetan berriz, itzalita, eta arnasa hartzea kostatzen zaigu. Inork baino hobeto dakizu nolakoa den. Badakizu ez duela merezi triste egoteak bizitza honetan. Inguratzen gaituenari alde txarra soilik ikusten badiogu, zirkulo ezkorrean erortzen gara, eta bertatik ateratzea, gehienetan, zaila izaten da. Zaila da ere oraina baino hobeagoa izan zen iraganean eutsirik bizitzea, iragana eta oraina baino hobea izango den geroa eraiki behar da. Baina alaitasunez borroka eginez dena gaindi daiteke. Zuk irakatsi didazu hau dena, eta ihes egitera zoaz. Erabakia zure eskuetan dago, baina diozun bezala gasteiztar hau axola bazaizu, itxaron. Itxaron nazazu eta zuregana helduko naiz.

– Barkaidazu, benetan. Distantzia, 573km; eta Aitor. Gehiegi da. Ezin diot nire askatasunari uko egin. Bizitza osoa daramat aukera honen zain.

– Eta zerbait aldatuko nuke esango banizu inork ez zaituela inoiz nik maite zaitudan bezala maitatuko? – etsita, Naiak bazekien galdera horren erantzuna.

– Agur –Alexen azken hitza zen, azken katea apurtu zuena.

– Hurrengora arte –zuzendu zion Naiak.

– Ordenagailua itzali zuen, eta oheratu egin zen. Bere aurreko bizitzako azken egun hartan, azken aldiz egin zuen negar.

*Hurrengora arte*. Azken bi hitz horiek bizitza osoan jarraitu dute bere atzetik. Kanadan bere ametsa bete zuen,

askea zen azkenik. Beno, ez guztiz. Bi hitz horiek azken sokaren azken haria moztu gabe utzi zuten, eta indarrez egiten zuten tira, bihotza uzkurtuz. Eta orain, karrera amaituta, Naiaren azken eskakizuna betetzen ari da. Itxaroten ari da, agintza urrun baten bigarren partea noiz beteko zain. *Zuregana helduko naiz.*

– Aitor –Naia Aitorren etxean zegoen. Ia sei urte zeramatzaten batera –Bost urte. Bost urte eta oraindik ezin dut ahaztu. Faltan botatzen dut bere ahotsa, bere irria eta bere begiak, bere idazteko era eta hitz egiten ari ginenarekin bat ez zetozen bat-bateko bere burutazioak, webcama jartzen zidanean eta munduko pertsonarik sexyena zela ziurtatzen zuenean bere masailek hartzen zuten kolorea, gauez heldu eta egun hartan egin zuen guzti-guztia kontatzen zidan unea, fisikako etxerako lanekin laguntza eskatzea ematen zion lotsa, bere aita oroimenera etorri eta triste jartzen zenean bere buruari animoak emateko era. Horrenbeste faltan botatzen dut ordenagailua piztea eta bere agurrik ez ikustea… eta zuk badakizu, Aitor. Primerakoa zara, izugarrizko mutila zara, zu bezalako jende gutxi dago munduan, zortea izan dut zu ezagutu ahal izategatik. Baina ezin zaitut maite Alex burutik atera gabe, eta azkenean minduta amaituko duzu. Ez duzu horrelakorik merezi -besarkatu eta azken aldiz eman zion muxu, Aitorri dena sinesteko denborarik eman gabe ia.

– Bost urte hauetan engainatzen ibili zara?!

– Ez!

– Ja, noski. Eta honi deritzozu maitasuna? Nirekin egonda beste batengan etengabe pentsatzeari?

– Barkatu Aitor, eta eskerrik asko. Denagatik –eta besterik gabe bertatik alde egin zuen Naiak.

Gaueko azken autobusa heldu da geltokira. Gazteak telefonoa du eskuan, gidaliburua bestean. Lo egiteko hotel libreren bat aurkitu beharra du, autobus geltokiak ez dira oso erosoak. Hotel Boulevard Vitoria-Gasteiz, garestiegia. Residencia Paramo, hotel Dato, topera. Hotel Silken Ciudad de Vitoria, ez dute telefonoa hartzen. Gran Hotel Lakua, libre, eroso, prezio onargarria. Gau baterako logela alokatu du. Azken autobusaren aurretik pasa da, aurpegi ezagunaren bila. Zain geratu da. Bikote bat, alemaniarra, bere semearekin. Alkoholarekin pasatu diren bost gizon-emakume, eskaileratan behera. Motorraren gainean igo da eta gidaliburuan hotelaren helbidea egiaztatu du. Azken pertsona bat jaitsi da autobusetik, begirada lurrari josita. Geltokiko mutila begira geratzen da, itxaropen azken hatsarekin. Burua lurretik altxatuko ez duela dirudi. Baina azkenean, iluntasunean, ezagunegiak diren urrezko bi begiekin egiten du topo. Eta orduan, inoiz baino biziago bihurtzen dira.

– Alex.

Bere izena entzutean harriturik geratzen da. Bizitza osoa zain. Naiarengana hurbiltzen da, eta besarkada batez, bost urteetako samin guztia hitz bakarrarekin uxatzen dute.

# Ikaro

Xabier Aboitiz Correa
Lekeitio institutua
Lekeitio

Aspaldiko kontua da ni, Ikaro neure buruari neritzona, Aran haraneko herri txiki batetako zoroetxe ilun, latz eta edukazio falta izugarrikoan nagoena, zoratuta egon ez banago ere. Une honetan, une oro bezala, pelikuletan agertzen diren alkandora bat daukat, eskuak bizkarrera lotzen dizutenetarikoa eta gainera, koltxoi itxurako hormak dituen gela batean preso naukate, nire hegan egiteko gogoak etsiz, nire maite eta kuttun Mirari ikusteko aukerak kenduz.

Bazen garai bat noiz oraindik jendea zegoen esaten zuena nire laguna zela, itxura hutsa zen, ordea. Bazen oraindik jendea nirekin solasean ari zena, beste batzuei esateko ni zein leloa nintzen, baina bazen garai hartan zeru zati txiki bat Lurrean, une batez nire eskuekin ukitu ahal izan nuena, usaindu izan ahal nuena. Nire argizarizko hegoek, ordea, ez zuten luzaroan eutsi paradisu hartan, zeruen eta hodeien mugan, Mirari.

Laurogeigarren hamarkada martxan jarri berria zen, nik hogei urte betetzeko bi hilabete bakarrik falta ziren. Nire ohiko osteratxoa egiten nengoen etxe bueltako par-

kean; negu erdian geunden. Begien aurretik pasatzen hari ziren zuhaitzei erreparatu nien, arrazoitu ahalko nuen ideia batek egin zidan jauzi burura: zuhaitzak animalien aurkako sentsazioak zituztela. Gu neguan berokiz, botaz, panazko prakaz, jertsez, bufandaz, eskularruz eta beste ez dakit zenbat gauzaz estalirik hotzetik ezkutatu nahian gabiltzan bitartean, zuhaitzek beraien gorputza biluzten dute, haizea, hotza eta euri ekaitzak gustatuko balitzaizkie bezala. Parke erdi-erdian zuhaitz erraldoi bat zegoen, denak baino handiagoa, denak baino indartsuagoa eta denak baino zakarragoa ematen zuena. Bat-batean zuhaitz handi hark, bere erro siku eta meheenak, oinetatik kolpe zidaten, agian nire pentsamenduak irakurri eta ez zitzaizkiola gustatuko pentsatu nuen. Garrasika eta ostikoka hasi nintzen lau haizeetara, infernu hartatik salbatuko ninduen aingeru baten bila, eta hala izan zen. Neskato lirain bat nuen begien aurrean, niri garrasika, hala ere nik ez nion ezer entzun. Bere begiradan galdu nintzen, greziar odisea bat baino harrigarriagoa zen bidaia batean. Lili urdinak, azal fina eta betula fin beltzak, begien aterpe lirainak nituen aurrean. Emozio guzti haien korapiloak eztanda egin zuen nire barnean, begiak ixtera behartuz.

Nire onera bueltatzerako, ospitalean nengoen. Gela oso argiztatu eta txuri batean. Ni etzanda nengoen ohearen eskuinetara gurasoak nituen lo seko eta ezkerretara zegoen nire aingerua. Lo zegoela, berari begira eman nuen ordu erdi gutxienez; azal argia zuen, elur bota berria bezalakoa, betule luze beltzak, bekain dotoreak, ilea garia bezalakoa, luze, hori eta fina, sudur txikia, ezpain xamurrak eta tentaziozkoak, gorputza… gorputza… inoiz ahaztuko ez dudana, ikusi dudanik dotoreena eta ederrena, fina eta probokagarria aldi berean.

Lotan zegoen bitartean, eta ni berari begira nengoela, portzelanazko panpina hauskor bat zela imajinatu nuen, nire esku traketsen artean hautsi egingo zena, ukituko banu.

Begiak ireki zituen unean berari aurpegia begiradarekin arakatzen nengoen, lotsak eta zirrarak batera sabelean kolpe bat emango baninduten bezalako sentsazio arraro eta atzerakorra sumatu nuen.

– Kaixo, zer moduz zaude? –esan zidan ahots lasaiz. Bost segundoko atzerapenarekin erantzun nion, sentsazio hartatik ezin ihes eginik nenbilen, oraindik "shock" egoeran nengoela pentsa zezakeeneko desiroz nengoen, zelako lotsa.

– O… ooo… ondooo… -hitz egiten ahaztu zitzaidala ematen zuen.

– Pozten naiz, jaja. Barkatu, ez dut neure burua aurkeztu, Mirari Larrea deitzen naiz.

– Asier Zabala –dardarka nengoen.

Asier! Maitetxo, nola zaude? -ama iskanbila eratzen, betiko lez.

– Ondo ama, ondo. Ama! Ez eman muxurik, mesedez! –ama bere muxu bortitz higuingarriak balak izango balira bezala jaurtitzen ari zen nire aurpegiaren aurka.

– Mari! Mesedez, mutikoa txarto pasatzen ari da! –aita ere, egia esan bere aurpegi gorrituak argi eta garbi zioenez, txarto pasatzen ari zen.

Gurasoei pasatu zitzaidana eta zergatik Mirari han zegoen azaldu nien, egia esan, nik ere ez nekien Mirari zergatik zegoen nirekin ospitalean.

Alta eman eta segituan, ordu batzuetara, Mirarirekin irten nintzen kalera bere eskaera betez. Gurasoak ez gomendatu arren, nirekin txikitan erabilitako amarru bat erabili nuen ahoa ixteko.

– Asier zu ez zoaz kalera. Ezta pentsatu ere!

– Ama, esaten zenidaten hamazortzi urte bete eta gero izango nintzela aske zuengandik, hogei ditut, beraz… –irribarre batekin irten nintzen etxetik nire askatasunerako lehen pausuak emanez.

Mirarirekin gelditu nintzen ezagutu ginen leku berean. Ordu laurden bat lehenago iritsi nintzen. Berak puntualtasun eskaseko neska zela erakutsi zidan, baina berdin izan zidan. Urrunetik ikusi nuen etortzen, arropa arraroak zekartzan, gutxienez bera bezain beste urte zeukaten, zulo eta mantxa ugariz beteak.

Ordu betez egon ginen elkarrekin. Denbora guzti horretan bai edo ez esatera mugatu nintzen soilik, ez nintzen ausartu zergatik lagundu zidan ospitaleraino galdetzera, edota zergatik gelditu zen nirekin egun hartan galdetzera. Asko hurbiltzen zitzaidan, ez nuen ulertzen, neskekin izan nituen erlaziorik gogorrenak ikastetxean geundela izan ziren, eta asko jota eskutik kolpe eta borragoma eskatzea ziren. Gainera Mirarik dagoeneko eskutik kolpe zidan, hurrengo pausua borragoma eskatzea zen, baina ez borratzekoa!

Hori pentsatu nuen unean mitxoleta bat bezala nengoen, Mirarik ikusi egin ninduen, noski, eta barre egin

zidan. Horrek, ostera, ni are gehiago lotsatu ninduen. Bi segundoko unean hogei urte zahartu nintzela sumatu nuen.

Denboraren poderioz Mirarirekin hizketan ikasi nuen, ikasi, diot, lehenengotan ez banuen jakingo bezala izan zelako, eta egun batean lotsa bizkarretik bota eta ausardiari esan nion igotzeko.

– Zera Mirari. “Ezagutu” ginenetik galdetzen ari naiz neure buruari zergatik etorri zinen niri laguntzera ospitalera eta zergatik gelditzen zaren nirekin kalera irteteko. Nik ez daukat gauza handirik zu bezalako neska bati eskaintzeko eta.

Harridura aurpegia jarri zuen eta ahots mehez esan zidan:

– Asier, egia esango dizut, ez naiz gezurretan ibiltzen denetakoa. Ikusiko zenuenez nire itxurak ez du inbidiatzeko ezer, daramadan arropak gutxienez hogeita bost urte ditu. Atzo bertan okindegiko jabeari ogi apurtuak eskatu nizkion afaltzeko. Lana galdu nuen orain dela bi hilabete gutxi gora behera, eta, lan hura ilegala zenez, orain ez dut langabezia soldata kobratzen –negarrez hasi zen– eta pentsatu nuen zugandik aprobetxatzea ideia ona izango litzatekeela. Barkatu Asier.

Aurpegia malkotan garbitzen zitzaion, zotinka zegoen, ezin nuen horrela ikusi.

– Lasai Mirari, lasai –besarkatu egin nuen nire berotasuna transmititu nahirik, portzelanazko panpina ukiezin hura trapuzko panpina batera pasatzera heldu zen, hala ere beste guztiak baino politagoa zen –pisu bat alokatzeko nengoen, nahi al duzu nirekin etorri?

Gezurra zen alokatzekoarena noski. Aurpegia zabaldu egin behar izan zitzaion zuen irribarrea sartzeko.

– Bai, noski, molestia handia ez bada.

– Ez, ez. Lasai neska –a ze korapiloa egin nuena.

– Konforme, baina jatekoa nik erosiko dut.

– Baina nola? Ez duzu lanik eta.

– Niretzako bai, zurea ezin izango dut, egia –desilusionatu aurpegia jarri zitzaion.

– Lasai neska, gurasoei eskatuko diet nik. Mirari, zuk ba al duzu gurasorik hirian?

– Ez dut gurasorik.

Isilune pausatu hotz bat geratu zen airean trabaturik une batez.

Etxera heltzerako, amari independentzia eskatu nion. Gerrarekin etorri zen eskakizun hura. Egun batzuetako guda ondoren amonaren etxe ohiaren giltzak hartu nituen sari bezala.

Mirari eta biok batera instalatu ginen etxe hartan, lehen egunetako elkarbizitza arraroa izan zen. Korridorean elkar gurutzatzeko bidean bagindoazen, berriro atzera egiten genuen geunden tokira. Onena, afariak ziren. Etxe hartako argi bat bera ere ez zen martxan jartzen, orduan kandelaz beteta afaltzen genuen. Iluntasun erdia sortzen zuten kandelek, lotsak, ikarak, denak joaten ziren argiarekin. Aurpegira begiratzen genion elkarri eta batak besteari istorio

harrigarriak kontatzen genizkion. Bere egoeraren arrazoia kontatu zidan, aita gizon aberatsa omen zen, ama aitaren erizaina. Gizona, anbizioz beterikoa, helmugara gehiegi hurbildu zen handinahien erruz. Adibidetzat Ikaroren istorioa ipini zidan. Gauza bat ulertzea eragin zidan horrek, denok ditugu desirak eta ametsak, baina inoiz imajinatuko ez genituzkeen ametsak betez gero, hondoratu egiten gara.

Afalostean, oherako bidean, Mirarik muxu bat eman zidan kopetan. Gabon esan eta arrapalada batean joan nintzen ohera emozioz beterik, Ikaroren istorioa gertatuko ez zitzaidan asmoaz.

Gauerdian esnatu nintzen, lepoan zerbait deseroso nuen, zerbait nuen lepotik zintzilik. Zutik jarri nintzen, pijamaren goiko aldea guztiz apurtuta zegoen, eskuetan nuen. Argia piztu nuen. Lepoan hegoak nituen, ia bihotzekoak eman zidan. Logelaren atean Mirari zegoen niri itxaroten, biluzik eta bera ere hegoekin. Ezer esan gabe eskua eman zidan, izugarri lasaitu ninduen. Eskutik tenkatuz eskatzeko leihoraino eraman ninduen, ireki egin zuen. Tiratu egin zidan leihotik kanpora jaurtiz. Biok hegan ginen hiriko teilatuen gainetik, ez zegoen hegoak urtzeko arriskurik gaua baitzen. Hegan geundela musukatu eta maitatu egin genuen elkar, benetan maite nuena Mirari zela sentitu nuen, beti maitatuko nuena inoren gainetik. Orduak eman genituen hegaz hiri gainetik, hiri gainetik maitasuna adierazten. Eguzkiak irten zuen arte. Goregi geunden, Mirari gorantz zihoan, ni berari jarraitu nahian nenbilen, baina nire hegoak urtzen ari ziren. Mirarik gorantz segitzen zuen, berari eskutik heltzen saiatu nintzen baina ni beherantz nindoan, ezerk ez ninduen geldituko, lurrak berak izan ezik.

Begiak ireki nituen. Egun batzuk lehenago egon nintzen ospitale berberean nengoen, oraingoan hanka bat eta saihets bat edo beste ere bai apurtuta. Eskuinetara gurasoak zeuden, baina eskuinetara ez zegoen inor. Gurasoak esnatu nituen, Mirari non zegoen galdetu nien. Ez zekiten nor zenik ere, bakarrik berari buruz hitz egin niela, ez zutela inoiz ikusi. Gertatutakoa kontatu nien, eta parkeko gertaeratik ez zidala Mirarik salbatu esan zidaten, gizon batek deitu zuela 112ra baino, eta bertako egunekoa, neska-mutil koadrila batek ikusi ninduela gaueko orduetan leihotik jauzi egiten.

Ez nuen gehiago Mirararik ikusi, antza denez ez zen inoiz ospitalean egon, ezta nirekin ere. Benetakoa ez zela esan zidaten, nik ez nien sinetsi.

Gurasoak medikuen aholkuz nire “arazoak” tratatzeko medikamenduak hartzera behartu ninduten, baina horrek are txarragoak eta ugariagoak egin zituen nire buru-joateak. Mirari ezin ahazturik, botila asko eraman nituen ezpainetara, gehiegi egia esan. Denbora luzez egon nintzen whisky merke botila osoak edaten gau eta egun, delirium tremens bat izan nuen arte. Orduan desintoxikazio zentroetara eramaten ninduten gurasoek, azkenean gaur egun nagoen zentroan amaitu nuen, zoroetxe zikin honetan. Mirariren erruz etorri nintzen arren hona, nik inoiz ez diot errurik botako, erlojuaren tik-takek eta Lurraren birek jarraitzen duten bitartean, nik beti izango dut oroimenean Mirari.

# POESIA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

# Denbora

Nerea Eizagirre Telleria
Zumaia institutua
Zumaia

**DENBORA**

Denbora tipi,
*tempus* tapa,
trostan
tik,
arineketan
tak,
da, eta denetik dabil,
“Big-Bang”,
“puum” handitik.

**DA**

Olatua da,
datorrena,
doana,
bidean
bustitzen gaituena.

Zaldi eroa da,
trostari emana,
menperagaitza,
heldu nahi eta ezin,
ihes esku artetik.

Kartoladun idia da,
ezin atzera begira,
soa beti aitzina,
aurreraka doan basatia.

Trena da,
geltoki bakoa,
ezezagun esperoa,
igo ala ez
beti badoa.

**DABIL**

Badabil, badabil,
leizeetan kukuka,
haitzetan biribilduta,
birramonen masailetan kizkurtuta.

**HARRAPATU NAHI**

Gizakiok gura
kristalezko ontzitxoan
gordetzea hura,
betiereko jabetzaz
hilezkor izateko.

Baina saiatuagatik…
irrist
digu
egiten

## DENBORAREN MAKINA

Imajinatu dugu
aurreraka, atzeraka
dabilen gailu,
denboraren gordailu.

Eta munduak ez daki,
ez alegien idazleek,
ez zinemako gidoilariek,
munduak ez daki
gure filosofiako maisuak
asmatu zuela,
eta geroztik…
*bla*tik *bla*rakoan
digu gelditzen denbora.

**URTU**

Denbora ezin omen urtu,
nahiz eta Dalik
margoekin lortu,
denbora, koadroetan baino,
ezin omen urtu.

Baina niri,
ez koadroetan,
niri, barra ertzeko
goizaldeetan,
ilunak eta argiak
bat egitean,
niri, gau hordietan
zait urtzen denbora.

**LAPURRETA**

Ez didate digitalik,
ez hareazkorik,
ez orrazdun,
ez eguzkizko,
ez didate erlojurik lapurtu.

Ebatsi segundoak,
harrapatu milarenak,
denbora bera
didate lapurtu.

Kaputxa beltzik
gabe ere,
lagun inpuntualei,
autobus berantiarrei,
itxarongelei,
igartzen zaie
lapurrak direna.

**KALKULUAK**

Fisikariek
denbora dute galtzen
denbora kalkulatzen,
koitaduek ez dakite
T handiak
kalkulatzen gaituela gu.

# SMS-ak

Blanca Garcia Cengotitabengoa
Ekialdea institutua
Gasteiz

## ARGENTINAN, OLATUEK EZ DUTE LORIK EGITEN

Polit esnatu da
Buenos Airesen eguna;
zuk gustuko duzun moduan:
eder, brillante.
Buenos Aireseko tximeletak ere
distira bereziarekin
jaiki dira gaur:
urdin, hori, more
intentsuez zirriborraturik.

*Haizeak daroan xirimiriaren*
*tantak*
*hiriaren bular biluzietan*
*pausatu dira*
*emeki,*
*lotsaturik.*

Eta egunsentiko eskala kromatikoan
egin zara galdu,
inkontzienteki,
norantza ahantzita duen
indar bektorialen
batek eraginda,
gezidun lerro
infinitu,
eterno
baten erruz.

*Ozeanoaren bestaldeko beirateei ere*
*hemengoen antza antzeman diezu;*
*laztan bat,*
*muxu bat, irribarre bat…*
*Prezioek gora egin dute*
*azkenaldian.*

Argentinan,
olatuek ez dute lorik egiten.

## BATURAK

Zelan egiten dien
grapagailuak kosk
orriei.
Eta zelan batzen dituen
tamaina
eta
kolore
eta
adin
ezberdineko folioak,
grapa soil batez.

## TOXIKAZIOA

Garagardo bitsez
zipriztinduta baleude lez,
garagardo bitsak
elikatu,
asetu balitu lez,
*heineken* bihurtu
zaizkizu
behinola galtzerdi fabriketako
robot metalizatuek
laztanduriko
artile hariak,
odol tanten babes
truke
zure larruazalaren
autopistatik
((debalde))
igarotzen diren
tutu ttipi estuak,
alkoholizatuak…

…eta burbuilen antza hartu diezu kolore bako globulu
[gorriei.

## PRINTZIPE URDINAREN ZAIN

Zerk bihurtzen ote duen erotismoa hain erakargarri.
Plazerrak agian.
Agian sujerentziak, haragi zati baten botere infinituak.
Imajinazioak.
Telazko panpinen
goxotasunak
kondenatzen ei ditu neskatilak
betiko.
Telazko panpinen
masail gorriek,
airean (oxigeno molekula artean) galdutako
muxuek.
Hotzikarek.

Taxia galdu ote duen printzipe urdinak.
Semaforo gorriak topatuko zituen bidetik eta
ez zaitez larritu, laztana,
iritsiko da eta,
zure bila etorriko da.
Eta muxu emango dizu gero,
aire partikula artean galduko ez den muxua emango dizu.
Bizikleta gainean besarkatuko zaitu,
edo tranbiaren hirugarren bagoian akaso.
Baina iritsiko da, lasai egon,
*sms* bat bidaliko dizu.

## MERKROMINAREN GEOMETRIA

Poltsikoan galduta
noraezean
topatutako txanpona
manta koadrodunaren gainera
jaurti duzu,
gitarra desafinatuaren
kordek akorderen bat
jotzen,
definitzen
duten artean.

Rock & Roll-a izango da,
seguru.

Eta irribarre eginez
bulegora sartu zara gero,
euro erdiko txanponak
gitarra-jolearen zauri denak
sendatuko dituelakoan.

Borobilak omen baitira
gaur egungo
merkromina poteak.
Borobilak,
eta urre kolorekoak.

## IRENTSI

Helbiderik gabeko kartazala
zenuen postontzian zure zain.
Hitzik gabeko gutuna zekarren,
esaldirik gabeko orria.
Antzua.

Ez laztanik,
ez muxurik,
ez zekarren besarkadarik.

Zigilua buruz behera jarri,
ahoz gora.
Eta usaindu.
Jada lurrindutako listuaren usaina
arnastu,
dastatu,
barneratu
.
.
.

*irentsi*

# Gaueko printtzesa

Irati Oregi Belaustegi
Zumaia institutua
Zumaia

Ez nuen maitatzeko gau egokiena aukeratu,
ez zen, ordea, nire nahia,
ez nuen nik bilatu.
Bera sartu zen hesiz inguraturik zegoen bihotzera,
karteltxoan *ne pas toucher* zioen arren.
Maitasunak ez zigun sikira
leku erromantikorik eskaini,
hondartza bateko ilunabarra edo
ortze izartsu bat hautatzeko utzi.
Ez geneukan zisnez beteriko laku gardenik
gure txalupatxoaren inguruan dantzan,
ez nuen nire printzesa zaldi gihartsuaren gainean
zelai berdeetan zehar eraman
basoko nenufare pinpirin eta igel hiztun artean.

Ez zen zazpi ipotx bizi ziren etxean
sagar gorri batez pozoitua izan,
ezta suzko hatsa zuen dragoiaren hatzaparretatik
erreskatatzeko premiarik.
Ez ninduen ohe garai eta erosoan maitatu
zetazko izaraz laztandu, hitz goxoekin bildu.

Maitemintzeko aukeratu nuen gaua
herdoildutako izkina bateko lanparatxo bik argiztatzen zuten
kartoizko kaxa batetik irtena zen paisaia demakratuan.
Lainoak fabrikatzen zituzten tximiniak
zigarrokinaren harizpiekin nahasten ziren
kale gorrian
estolda zuloko kirats ustelaren fragantziaz.

Arratoien *private party*aren ondoan,
kitzikatu zitzaizkidan zainak,
berotu odola,
zure arnasestua aditzean.
Ardoa egiteko mahats zukatuen tantaz beteriko botilak hustuz
tindatu nituen kaleak,
gure bihotzak
eta matrailak
gorriz.
Ahantzi nuen hotza gaueko zorabioan murgilduta
zure mingainaren pozoiaz
eromenerako bidean itsu
galdu nuen burua
sentipenik ez zuen karrika herdoilduan.
Hiri gorrian.

Bihotza zapaltzen ziguten kurrikak
geroz eta bortitzagoak bilakatuz joan ziren.
Nire aurrean biluztu zintudan eta
nire ezpain artegek zure errepideetan zehar bidaiatzeko
[baimena izan zuten.
Zure haran goxoen ibiltari bilakatu nintzen
*mundu berria*ren bila zebilen erdi aroko bidaiari.
Robin Hood eta Dulcinearen garaiko gerlari
sakela ondotik ezpata atera eta
aurretik igarotzen zen oro mozten zuen
suge gorri, dena bereganatzearren.

Zure azal leunean zehar bidaiatu zuen nire begirada zoroak
zure gorputzeko sekretuak usaindu nituen, dastatu,
beldur zinela hautemanez izkina bakoitzean.
Hor bertan maitatu zintudan.
Hor bertan amatatu zintudan
zimitz eta arkakuso artean
larru gorritan.

Eldarnio ilunaren itzalpetik
inguratu ninduten
argi gorriek
zure isiltasuna entzun eta
erreskatatzera etorri ziren.
Gainean zeneraman soineko luzea,
bihotzen dantzek busti zuten
txorrotadaz txorrotada.
Ene printzesa,
ondotik eraman zintuzten,
jada nirea zinen eguzkirik gabeko
gau ilunean.
Zure presentziak **itsutzen** dit,
zure ausentziak **zoratzen** nau.

*Beranduegi konturatu zen,*
*botilako ardo gorria isuritako odola zela.*
Bihotza zapaltzen zuten kurrikak
ez zirela metafora huts bat.
Erreskatatzera joandako printze urdina
ez zela behin musu emandako igela.
(…)ala bazan edo ez bazan,
sar dadila kalabazan(…)



# Ispiluaren aurrean

Maialen Artetxe Maiztegi
Urola institutua
Azkoitia

**1**

Itzalaren maitalea
taupada batean saldu
inor ez zegoen salbu
gertu zen bakardadea.
Malko baten eskalea
iruzurraren esklabo,
gaur nor noren menpe dago?
Erantzuna hitz gabea!
Pentsamendu bat gehiago
beldurrak soilik ikusi
ezin zuen egin jauzi
ta ezin zuen itxaro…
Ni bihotzari so nago
taupada isilen goian
ezker eskuko kantoian
ezkutatuta baitago.

**2**

Muxu baten iragana…
Ilunabarra dirudi!
Ez du argirik isuri
eta haizeak darama.
Hitz biluztuak esana:
“Itzalez estali dena
hau da gaurik ilunena
noraezean narama”.
Begiradaren eztena
nonbait ezkutatu dadin
saiatu da… baina ezin!
Arnas estuen etena.
Sentimenduan barrena
zure bidean nindoan
elkarren azken pausoan
bilakatu naiz herrena.

**3**

Ilargiaren bezero
malkoz jantzita bi begi
mugitu gabe gehiegi
zurekin ziren gauero…
Sentimendu hotza gero
muxurik gabe adio
egia esan banio
hitzak aurkitu ezkero…
Mina nire arerio
gezi batean opari
magalak ez du nabari
irria horren serio
nahigabe, nahita… presio
bihotzean ez da giro
gau ilunari berriro
eskutik helduko dio.

**4**

Giltzapean magalera
hankak tarrasean nator
bidean ez dago inor
ta etsipena lurrera…
Nire taupaden oinera
zatiak jausi direla,
bizitza doa honela
gertu daukat amaiera…
Pentsamendu hain ustela
inguruan dut bueltaka
astiro edo presaka
baina_eraman nahi nauela…
Nire sentipen goibela
esan du_”ez altxa burua
zure ametsean galdua
berriz itzuliko ez dela”.

**5**

Zergatik zuri begira?
Lapurtu didazu hitza!
Bidali nahi dut bizitza
ezerezaren hegira.
Ilunak duen argira
gaua iristen denean
soilik zure eskupean
malkoak itotzen dira.
Bihotzak bere oinean
askatu duen taupada
galduko zen beharbada
ihesi noraezean.
Malko baten barrenean
eskutan daukat arantza
zulatu dit esperantza
ispiluaren aurrean.

**Doinua: Habanera**

# Gogoan

Blanca Garcia Cengotitabengoa
Ekialdea institutua
Gasteiz

Gogoan ditut
teilatu gainean
igarotako arratsalde hezeak,
udari azken eguzki printzak
osten genizkionean,
lotsagabe,
inuzente.
Solasean,
tximinia artean geure buruak
mozorrotuz,
izaera diferente bat
bereganatuz,
beste *gu* bat
ezerezetik sortzen,
zirriborratzen,
koloreztatzen
genuenean.

Gogoan dut
telebistaren karratutasuna ere
ilusio optikoa dela
azaltzen zenidanean,
ondoegi ulertzen ez nuen arren,
airean zizelkatzen saiatzen zinenean,
behatz puntaz,
suabe.
Eta esaten zenidanean
tostadek emeki berotzen dutela gurina,
emeki
urtzen,
            xurgatzen,
                                    preso hartzen
dutela.

Gogoan dut
zure hitzek
arnasgabetzen nindutenean,
eta nola itotzen nintzen
gerora
ia konturatu barik,
bizirik.

Teilatu gainean
kontatzen zenizkidan
orain
giltzapean kamuflatzen dituzun
sekretuak,
notarik bako melodia
indefinituak,
txuri-beltzak.
Gogoan ditut
oparitzen zenizkidan
irribarre gordinak,
teilatuak xurgatu izan balitu lez,
tximinietatik behera irristatu balira bezala,
gaur egun zure anatomia fisikoak
ezagutu ere egiten ez dituen
keinuak,
konplizitatez josiriko
begiradak.

Zure ileen artean
erritmikoki
endredatzen,
nahaspilatzen
nintzen.
Korapilatzen nintzen
erritmikoki, zure ileen artean.

Eta gogoan dut
zure ezpainen geografia.
Gogoan,
elkarri trukaturiko muxuen
aritmetika perfektua,
perfektuegia.

Gurea.

Eta gogoan zaitut
zu,
gaur egun aurkitu
ezinean nabilen
zu hori,
zu inpertsonal,
ezezagun hori,
tximini artean
(munduari barre egiteko)
kamuflatzen zen hori,
zu izateari utzi
eta *hura* bilakatu den
zu hori.

## TEILATU GAINEKOAK

– *Telebistaren antzekoak dira tostadak*
– *Baina tostadek gurina kartzelaratzen dute, erruki barik*
– *Mermeladari leku egiteko da hori*
– *Baina mermelada izan daiteke edo laranjazkoa edo*
*[marrubizkoa edo melokotoizkoa*
– *Marrubizko telebistak ere badaude*
– *Baina karratuegiak dira, perfektuegiak.*

# POESIA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

# Tabernaren bestaldetik

Ane Garcia Lopez
Talaia institutua
Hondarribia

## HEART BLUES

Nahiko nuke
kanta bat idatzi
zure bihotzaren
eta nirearen
erritmora.

Taupada urduriak
nahastuz,
sortu
bateria ezohizko bat.
Lotsazkoa.

Nota bat
eta beste bat
kateatuz airean,
kateatuz mingainetan.
Blues doinu sentsuala,
astiroa.
Disfrutatuz
aurrena.

Gitarra baten
soka ezegonkorretan
igo,
jaitsi,
eskuak lotarazi.

Eta dantzatu nahiko nuke
musikaren gainetik,
barnetik;
osatzen dugunean
gure doinu
intimoa.

Saxofoi baten
espresio urratua
baliatuko dut
zugana isilka hurbiltzeko.

Noten artean nahasturik
ikusezina bainaiz.

Baikara.

## SMOKE SOUL

Kea
dantzan
zigarretatik kanpo.

Nire begien aurrean
kiribilkatuz,
endredatuz,
askatuz.

Zu eta nire arteko isilunearen
arima txikia bailitzan.
Mugituz doa,
forma erakargarrietan desagertuz.

Begirada lausoz
isiluneari so eginaz.
Itzali da,
zigarro-mutxikin bihurtuz.

## WHISPERING NIGHTS

Ametsetan maitale,
gauez eskale.
Desesperatuki,
patrika hutsa betetzeko
begiradaren bat erregutuko nizuke.

Baina.

Anonimoa naiz,
ezereza,
inor ez.
Gauero
hasperen txikiz
whisky kopak lurruntzen dituen
malkoa.

# Nori

Zihara Jainaga Larrinaga
Gernika institutua
Gernika

Arbola, arbela, orbela
berde, berdea
haizearen arnasaz gozatzen
hodeietan kulunkatzen
nori itxaroten zaudete?
txoriari, ilargiari,
o! aitonari!
aldapan gora
ikusi dut.
Arbola, arbela, orbela
aitonari begira
bere oinatz kirriak
bideak ditu lasaitzen
hostoak laztantzen
bizi berria eskatzen
txoriari, ilargiari
o! aitonari!
maldan behera
susmatu dut.

Hotsa, zotza, hotza
neguaren bihotza
basoaren dardara
elurraren indarra
aitonaren negarra
nori itxaroten zaudete?
Udaberriari, eguzkiari
o! amonari!
sukaldean barrena
ikusi dut.
Hotsa, zotza, hotza
gauerdiaren hilotza
apurtezineko arkaitza
egin dezagun ametsa
baserri aurreko
udagoieneko mahatsa
o! amonari!
lorategian berbizten
sentitu dut.

Mezua, sua, mosua
urkoaren besoa
loaren lausoa
maitatzeko gogoa
amesteko desioa,
nori itxaroten zaudete?
Aitonari, amonari
o! zeuri, zeuri!
inon ez zaitut ikusi.
Mezua, sua, mosua
ilusio osoa
itxaropenaren usoa
jaiaren eroa
lagunaren beroa
o! zeuri, zeuri!
bizipozari,
maitasunari!

# Ilunabarreko kantua

Eider Perez Martinez
Herri-ametsa ikastola
Donostia

Irailak 7 asteazkena,
astero lez, ilunabarra nator agurtzera.

Kantauri itsasoko olatu bortitzen kresalak,
arrats ilunak eta pauso gabeko bideek
begiak itxita ikusteko duintasuna bereganatzen didate.

Eguzkiaren azken izpiek bustia dagoen belarrean
dute distira pixkanaka galtzen.

Hemen goitik
portuko itsas argiak eta bustita dauden kaleak ditut
[estimatzen.

Lainoa sartu eta gau beltzean barrena
lehenengo izarrak direnean azaltzen,
haizeak labarraren aurka jo eta
amorrua, zalantzak eta zaurietako mina,
nire abesti gogokoenaren akordeetan dira galtzen.

Gitarra magalean dudala
nire ahotsak ilargia agerrarazten duenean,
babestua sentituz
gogoz ekiten diot abesteari;
txuri beltzeko ametsak margotu nahian,
soka bakoitzean gatibu dauden ilusioak askatuz.

Urrutian dagoen itsasontzi baten argia hasperen batean da
[piztu.
Begirada haruntz zuzendu dut eta
noraezean lanbroan naiz galdu.

Orduantxe dut isiltasunaren erdian ikusi ilbetea.
Soka batez nahi dut lotu.
Bertatik helduta teilatuz teilatu joango nintzateke
nire kantuaren konpasean hegan.
Inor esnatu barik,
soilik,
ahotsaren gozotasuna lo dagoen jendearen ametsetan
[zabaldu nahirik.

Dardarak,
sentsazioak eta
emozioak dira nagusi orain harkaitz leunen gainean.

Haize hotzak hunkitu egiten nau
eta malkoak isurtzen dizkit nahigabe masailean.

Libertatearen erdian, kantu egiteko zirraraz betetzean,
gitarraren do maiorra besterik ez da entzuten amildegiaren
[oihartzunean.
Geroz eta ganora gehiagorekin oihu egin nahi dut,
amore eman gabe,
etsi gabe.
Soken bibrazio indartsua,
olatuen mugimenduekin bat lagun minei abesten diet,
senitartekoei, euskaldunei, galdu ditugunei,
akatsei, pozari nahiz negarrari,
haserre, gorroto eta lehen muxuei,
*maite zaitut* hitzari, poesiari, bizitzari.

Orduan bertan zazpi mila arrazoi barre egiteko
eta pentsamenduetan murgiltzeko etortzen zaizkit burura.
Horrekin batera kantua zerumugan galtzen da.
Isilpean eserita nagoen harritik zutituz, pausoz pauso
[agurtzen dut gaua:
laster arte.

# Beste egun bat

Amaia Cabero Saizar
Ondarroa institutua
Ondarroa

Eguzkiak
mendi gailurretako elurra urtzean,
hotzak
bihotz barneko sentimenduak izoztean,
inguruan
kolore guztiak garden bihurtzean,
gauetik goizera
ateak maratilaz ixtean,
kale-ertzetan bizitzak bizkarra ematean,
edozein begirada bestaldera zuzentzean,
IKUS DISDIRA
urmael lasaian isladaturik dagoen
zure irribarre tristean.

Olatuek
hondartzako azken hondar alea irenstean,
hostoek
udazkeneko haize bortitzarekin alde egitean,
zeruan
izar disdiratsu guztiak itzaltzean,
bat-batean
bizitzako musika oro isiltzean,
inon zentzurik ez aurkitzean,
non eta zertan ari zaren galdetzean,
BEGIRATU NIRI,
mundua den gauza guztietatik aldenduz
nire bakardadean.

Nagusiek
ume baten eskuetatik goxokia lapurtzean,
oztopoek
edonora doazen bideak apurtzean,
arranoek
azken hegaldia egitean,
halako batean
zelaiko lore alaiak zimeltzean,
hodeiak euri eran desegitean,
inoren laztanik ez sentitzean,
PENTSATU,
oraindik-orain ere badirela
loratzeke dauden haziak baratzean.

Gauero
alboan inor izan barik oheratzean,
begiak itxi
eta bizitzan atzera begiratzean,
malkoak,
bakardadearen erruz isuritako malko artean lokartzean,
ametsen artean barneratzen zara
zure arazo guztiekin ahaztuz,
errealitatezko mundu zitaletik aldenduz,
fantasiazko lurralde magikoetan murgilduz,
konturatzen zara
beste egun bat hasi duela,
lehen eguzki-izpiek zure gorputza laztanduz.

# Espero ez nuena

Uxue Agirre Mosquera
Haurtzako ikastola
Oiartzun

Gutxien espero nuenean,
urrun sentitu zintudan,
maite ote ninduzun, duda-mudan:
bakean biziko al ginen ala gudan?

Gutxien espero nuenean,
ez zinen iritsi,
ateak zenizkidan itxi,
orduz gero dena zen arraro eta bitxi.

Gutxien espero nuenean,
malko bat zitzaidan erori,
zeuk sortu zenidan hori.
Zure haserrea hain zegoen gori!

Gutxien espero nuenean,
ez ninduzun besoetan hartu,
izotzezko ezpala zenidan sartu,
eta isiltzera behartu.

Gutxien espero nuenean,
ikusi nintzen giltzapeturik,
gelatxo hartan guztiz bakarrik,
gorputza minberaturik.

Gutxien espero nuenean,
telefonoa zenidan kendu,
besotik gogor heldu,
gorputz guztia ubeldu.

Gutxien espero nuenean,
ninduzun ohera lotu,
gorputz osoa zitzaidan gogortu,
gainerakoa nahiago dut ez oroitu.

Gutxien espero nuenean,
lagunak zenizkidan ostu,
guztiz nintzen izoztu,
gure artekoa nahi baina ezin moztu.

Gutxien espero nuenean,
egin ninduzun neskame,
etxetik atera ere gabe,
zu zeu, neure jabe.

Gutxien espero nuenean,
ama izan genuen etxean,
eta, saihestu ezinean,
kolpe latza eman zenion bihotzean.

Gutxien espero nuenean,
biok ginen amets gaiztoan;
ama mundu honetatik zen joan.
Hobeto egongo ahal da han!

Gutxien espero nuenean,
labana zenuen esku batean,
whisky botila bestean,
eta amorrua bihotzean.

Gutxien espero nuenean,
pertsianak zenituen jaitsi,
ez nintzen irtetera iritsi,
eta, oihu ez egiteko, zenidan ahoa itxi.

Eta… espero bezala,
aiztoaren hotza nuen lepo hezean,
orain nire arima ibiliko da noraezean,
